



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2020ko abendua

EUSKARA KIROLKIDE

**Lanketa teoriko-
kontzeptuala**

2020-2022 Ikerketa aplikatuaren markoa



Egileak:

- Jone M. Hernández García (AFIT Ikerketa taldea – UPV/EHU)
- Jaime Altuna Ramirez (AFIT Ikerketa taldea – UPV/EHU)

Koordinatzailea:

- Maialen Iñarra Arregi (Soziolinguistika Klusterra)

Sustatzaileak:



Partaideak:

- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza eta Kirol Zuzendaritza
- ARTEZ Euskara Zerbitzua
- Kirolean Euskaraz Aholkularitza

Babesle-partaideak:



Aurkibidea

HITZAURREA.....	4
Txostenaren oinarriak eta ezaugarriak.....	4
"D ereduko kirola" proiektua (2016-2018), gazteekin ikasteko aukera.....	7
1 EUSKARA GAZTEEN ISPILUAN	9
1.1 Bi hitz gure "subjektuen" inguruan: zertaz ari gara gazteei buruz hitz egitean?	9
1.2 Gazteak eta euskara: argazki orokor bat	11
1.3 Gazteak eta euskara: erabileraren auzia	16
2 GAZTEAK, AISIALDIA ETA KIROLA	19
2.1 Aisiaren kontzeptua: zehaztapen orokor batzuk	19
2.1.1 Egungo aisiaren gako gutxi batzuk	21
2.1.2 Haur, nerabe eta gazteen aisiaren esparruak	23
2.1.3 Egungo nerabeen aisia eta gazteen kontakizunak	24
2.2 Kirolaz zehaztapen orokor batzuk	26
2.2.1 Nerabe eta gazteen kirol praktikak: datu gutxi batzuk	28
2.3 Euskara gazteen aisialdi eta kirol praktiketan.....	29
2.4 Aisialdia eta kirola, aukera gisa: eskola/familia eta kalearen arteko zubia	31
3 HITZ EGITEA TALDE LANA DA: PRAKTIKA KOMUNITATEAK ETA HIZTUN GAZTEAK.....	33
3.1 Praktika-komunitatea: hizkuntza esperientzien "lurra"	34
3.2 Taldea oinarrian: kirolak batzen gaitu	36
3.3 Hizkuntz praktikak, talde lana	38
3.4 Hizkuntz identitate berriak garatzeko babesguneak	40
3.5 Taldea, parte-hartzea eta (hizkuntza) erronka partekatuak.....	41
4 GAZTEAK, HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA ETA MUDANTZAK	44
4.1 Hizkuntza sozializazioa eta hizauna bilakatzeko bideak	44
4.2 Hiztun berriak: ezagutzaren sozializazioa eta erabileraren hutsuneak.....	47
4.3 Hiztun berriak Euskal Herrian.....	50
4.4 Hiztun berriak eta mudantza prozesuak	54

5	HIZKUNTZA-IDEOLOGIAK. GERTURAPEN OROKOR BAT.....	62
5.1	Euskal gazte hiztunak: belaunaldi berria, betiko leloak?	66
5.2	Benekotasuna, anonimotasuna eta naturalizazioa, diskurtso nagusiak.....	69
5.2.1	Euskara eta anonimotasuna.....	72
5.2.2	Euskara eta benekotasuna.....	73
6	KIROL ESPARRUAK ESKAINTZEN DITUEN AUKERAK: BABESGUNEAK.....	77
6.1	Babesgunea(k): egiturazko baldintzak	78
6.2	Babesgunea(k): partehartzezko baldintzak	82
7	ONDORIOAK.....	85
	BIBLIOGRAFIA	87

HITZAURREA

TXOSTENAREN OINARRIAK ETA EZAUGARRIAK

"D ereduko kirola" izeneko proiektua 2016an abiatu zen eta 2018an amaitu. Hiru urteko prozesuaren gaineko balorazioa positiboa izan zen, eta, aurrera egiteko gogoia zein beharra antzematen zen. Baina beste ezer baino lehen, eta eskuartearen material asko genuela jakinik, hausnarketa eta gogoeta egiteko tartea hartu nahi genuen. Hori egin dugu aurten, Euskal Herrian zein mundu osoan bizitza "hankaz gora" jarri zaigun honetan. Egoera honek zer ekarriko duen ez dakigunean ere, gazteak eta euskararen gaineko harremanaz mintzatzea dagokigu berriro. Tentu handiz eginbeharrekoa dela uste dugu. COVID-19ak euskara bezalako hizkuntz gutxituen kasuan ekarritako ondorioak zein iristear daudenak ez daude denak ikusgai, eta agerian daudenak ez ditugu txosten honetan zuzen-zunean aipatuko, hori ez baita lan honen helburua. Edozein kasuan, adi egon beharko dugu, besteak beste, COVID-19ak eragindako errealitate berriak, ziurazki, "Euskara Kirolkide" izenarekin abiatuta dagoen proiektuaren fase berrian eragin zuzena izango duelako. Jada eragiten ari delako.

Edonola ere, momentuz, gazteak eta euskara izango ditugu ipar eta ardatz idazlan honetan. Azken urteotan, hamaika hausnarketa eta gogoeta piztu ditu bikote horrek, baita egitasmo zein plangintza bultzatu. Harreman emankorra eta, askoren begietan, gatazkatsua ere. Eztabaidak, galderak, kezak... horrelakoak pizten dira gazteak eta euskara hizketagai agertzen direnean. Askok dago idatzita eta asko idazteko ematen du.

Dokumentu hau osatzeko, aldiz, aukeratu beharra zegoen. Izan ere, gure helburua ez da inoiz izan gazteak eta euskara binomioai buruz esan beharrekoa agortzea. Gure kasuan, gazteak eta euskara, eremu jakin batean kokatu nahi izan ditugu: aisialdian eta, horren barruan, zehazki, kirol arloan. Gainera, "Euskara Kirolkide" proiektua iparra izanik, eta "D ereduko kirola" egitasmoak eman zuena kontuan harturik, fase berrirako egokitzeak jotzen ditugun tresna kontzeptual eta teorikoak lantzea izan da hasieratik txosten honen asmo nagusia. Hizkuntz akademikoa erabiliz, esango genuke marko teoriko bat jarri nahi izan diegula datozen urratsei. Ikerketa-ekintzarekin hasi aurretik, oinarri bat ezarri nahi genuen, geroago zeri eta nondik begiratu argiago ikusteko. Zertan erreparatu eta zertarako. Datorren egitasmorako oinarri teoriko-kontzeptuala litzateke dokumentu hau.

Zeregin horretan argi genuen "D ereduko kirola" egitasmoak emandakoa, horren ondorioak, abiapuntuan jarri nahi genituela baina, baita ere, azkenengo bost edo sei urteotan, gazteekin egindako beste ikerketa batzuk. Izan ere, ibilbide honetan zehar nabarmen sendotu dugu nerabeekin egindako harremana eta hartu-emana. Askok ikasi dugu eurekin. Askok irakatsi digute. Ez dago dudarik, prozesu honetan "D

ereduko kirola" mugarri garrantzitsu bat izan dela, baina, gure kasuan behintzat, esperientzia hau ezin da modu isolatuan ulertu. Aldiz, harremanetan eta elkarriketan dago aurretik, ondoren edota paraleloki egiten aritu garen beste zenbait lanekin. Horiekin elikatu gara eta horren berri eman nahi dugu orri hauetan. Horregatik, informazio iturri nagusia 2016-2018 urteetan bildutako materiala izango bada ere, tartean beste ikerketa eta proiektu batzuei ere erreferentzia egingo zaie, azalpenak edo argibideak borobiltzeko asmoz.

Jarraian dokumentu hau osatzeko kontuan hartu diren ikerlanen erreferentziak zerrendatzen dira:

- Jaime Altuna. 2015. "Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan"
- Jaime Altuna. 2016. "Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean".
- Jaime Altuna eta Jone M. Hernández. 2016. "Gu gazteok".
- Jaime Altuna; Jone M. Hernández eta Iñigo Beitia. 2018. "D ereduko Kirola 2016-2018. Ikerketa".
- Jone M. Hernández. 2020. "(Gure) Hitzun Gazte Digitalak" Txostena.
- Jone M. Hernández eta Soziolinguistika Klusterra. 2020. "Gazteak euskararen eszenatokian".

Material hauek oinarri hartuta, txostenak zazpi atal barnebiltzen ditu. Lehenengoan sarrera orokor bat egingo da. Bertan gazteak eta euskararen erabileraren auziari buruzko gogoeta orokor batzuk zabalduko ditugu. Jarraian, "Euskara Kirolkide" proiektuak hartzen duen esparrua ezaugarrituko dugu: gazteen aisialdia eta kirola. Ondoren, euskal gazte hitzunekin lotutako hiru gai nagusi landuko dira sakon: praktika-komunitatea(k), hizkuntza sozializazioak (eta honekin lotuta hitzun berriak eta mudaren nozioak) eta hizkuntza-ideologiak (bertan benekotasuna, anonimotasuna eta naturalizazioa aztertuko dira). Gai hauek jorratu eta gero, atal bat eskainiko diogu "babesgunearen" nozioari eta, azkenik, ondorioekin itxiko dugu txostena.

Dokumentu honen prestaketa ariketa garrantzitsua izan da guretzako eta oso baliotsua hurrengo urratsei begira. Gainera, espero dugu material hau, "Euskara Kirolkide" egitasmoaren prozesuan erabilgarria izateaz gain, gazteak eta euskara ardatz duten beste egitasmo edo ekimenetan aritzen direnentzat ere lagungarria izatea. Azken finean, orri hauetan aipatzen diren gaiak eta mahaigaineratzen diren auziak aisialdiaren eta kirolaren eremuak gaingitzen dituztela uste dugu. Gai askok, gainera, presentzia dute euskararen mugez gain ere, alegia, beste hizkuntz gutxituak dauden tokietan. Hau garrantzitsua iruditzen zaigu, batetik, euskarak dituen erronka asko gureak bakarrik ez direla jabetzeko; eta bestetik, eremu zabala irekitzen zaigulako beste testuinguruetan egiten ari diren ikerketa zein esperientzietatik ikasi ahal izateko. Asmo hau oso presente dago testu honetan, eta, ikusiko denez, hainbat adibide eta aipamen txertatu ditugu gogoetatzeko zein aplikatzeko interesgarriak iruditu zaizkigulako.

Guzti honen berri izango du irakurleak datozen orriotan. Baina beste ezer baino lehen, "D ereduko kirola"ren proiektuaren inguruan kontakizun laburra osatu dugu, egitasmo horretara lehenengo aldiz hurbiltzen direnak kokatu ahal izateko. Atal hori pasata, "Euskara Kirolkide" proiektuaren oinarri teorikoa finkatzeari ekingo diogu. Espero dugu zuen interesekoa izango dela.

Jone M. Hernández García
Jaime Altuna Ramírez
UPV/EHU, Donostia, 2020-12-12

"D EREDUKO KIROLA" PROIEKTUA (2016-2018), GAZTEEKIN IKASTEKO AUKERA

"D ereduko kirola" egitasmoa Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza) diruz lagundutako proiektua izan zen. Soziolinguistika Klusterrak koordinatu eta bideratu zuen ekimena. Ikerketa eta eskuhartzea¹ Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) zenbait ikerlarik² garatu zuten. Azkenik, Urtxintxa Elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak ere parte hartu zuten prozesu osoan hainbat zereginetan.

Hiru urtetan zehar (2016-2018), antropologian ohikoak diren teknikak erabiliz, ikerketa etnografikoa egin genuen hiru kirol klubetan: Zaramaga Pilota Elkartea (esku-pilota), Padura Taldea (saskibaloia) eta Real Sociedad (futbola)³. 2016. urtean, "D ereduko kirola" egitasmoa abiatzerakoan, bi xede orokor zehaztu ziren. Batetik, begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango duen kirol-aisialdi antolatu bat modu esperimentalean eratzea arloko eragileekin: *D ereduko* kirol moduko bat. Bestetik, *D ereduko* kirol horren eraketa-prozesuaren eta bertan parte hartzen duten eragileen ahots ezberdinen gaineko ikerketa egitea: helduena (guraso, ikastetxe, udal, klub...) eta, batez ere, haur eta gazteena (jardueretako partaideak zein entrenatzaileak).

2016-2017 ikasturtean lau kirol-talderen hizkuntza-praktiken lehen hurbilketa egin zen, entrenatzaileen jarduna, iritziak eta bizipenak erdigunean jarritz. Lehen urte horretan eskuhartzea eta ikerketa-lana modu bananduan burutu ziren. Ikerketa-lanaren kasuan, testuinguru orokorra finkatzeaz gain, esplorazio moduan hainbat elkarrizketak eta behaketak burutu ziren. Eskuhartzea lau talde horien entrenatzaileekin egin zen: formazio saio batzuk garatu ziren euskararen erabilera handitzeko estrategiak eta tresnak eskaintzeko asmoz.

2017-2018 ikasturtean ordurarte egindakoan sakondu zen bi aldagaitan oinarrituz: (1) kirolari nerabeen ahotsa lehen planoan jarri zen, (2) esku-hartzea eta ikerketa-lana batera landu ziren. Bi gako horiek definitu zuten, hein handi batean, ikerketari begira planteatutakoa. Ikuspegi antropologikoarekin garatutako ikerketa kualitatibo baten bidez, hiru kirol talderen (Real Sociedad, Zaramaga eta Padura) kirolarien hizkuntza-praktikak eta diskurtsoak jaso genituen. Gazteak (kirolariak bereziki

¹ Egitasmoaren lehenengo urtean (2016-2017 ikasturtean) Euskaltzaleen Topaguneak hartu zuen beregain esku-hartzea gauzatzearen ardura. Bigarren urtean aldiz ikerketak eta esku-hartzeak bat egin zuten eta EHUko kideek hartu zuten horiek kudeatzeko eta gauzatzeke lana. Halere, zeregin honetan Julene Maiaren laguntza –garai hartan Urtxintxa Elkarteke langilea- izan zuten.

² Hauek dira proiektuan parte hartu zuten EHUko ikerlariak: Jone M. Hernández (zuzendaria), Jaime Altuna, Iñigo Beitia, Maialen Altuna eta Iraitx Otaño.

³ Egitasmoa abiatzean, hau da 2016an, Padura Taldearen lekua Aixerrota Boleibol Taldeak (Getxo, Bizkaia) zuen. Lehenengo fasea amaituta Aixerrotak bertan behera utzi zuen bere partehartzea. Era berean, lehenengo urte horretan Zarautz Kirol Elkartek ere parte hartu zuen, baina fase hori amaitzean bere partehartzea egitasmoaren helburuetarako egokia ez zela pentsatu genuen kirol klub horretan euskararen erabilera ia erabatekoa baita. Hortaz, Zarautz bigarren fasean ez egotea erabaki zen. Edozein kasuan nabarmendu nahi dugu bi kirol talde horiek adierazitako prestutasuna eta eskuzabaltasuna ikerketa honekiko.

baina baita entrenatzaile gazteak ere) erdigunean jarri genituen, euren ahotsak, esperientziak, bizipenak eta iritziak azaleratuz eta azpimarratuz⁴. Paraleloki, eskuhartzea bideratzeari begira, talde-dinamika ezberdinak diseinatu genituen sekuentzia batean antolatuta. Guztira ordu erdiko zortzi saio egin ziren kirol talde bakoitzean. Hauetan hainbat dinamika proposatu genituen hausnarketak pizteko asmoz. Gehienetan hauxe izaten zen prozedura: (1) gazteak lauzpabost lagunez osatutako taldetan elkartzen ziren guk proposatutako dinamika (ariketa) bat egiteko, (2) taldeetan osatutako dinamikaren emaitza elkar banatzen ziren talde handian, eta, denon artean, landu nahi genuen gaiari buruz hausnarketa egiten zuten. Azkenik, (3) sortutako materiala eta ondorioak biltzen genituen.

Denera 44 laguni egin genion elkarrikerketa: lehenengo urtean 4 entrenatzaile eta bigarren urtean 37 neraberi (12-15 urte bitartekoak) eta 3 entrenatzaile. Gainera, prozesuan zehar 37 behaketa saio gauzatu ziren: 14 lehendabiziko urtean eta 23 bigarrenengoan. Ikerketak bideratutako elkarrikerketak osorik eta hitzez-hitz transkribatuak izan ziren, eta behaketetan jasotakoak egunerokoetan deskribatu ziren. Eskuhartzearen kasuan, talde dinamiken zehar sortutako materiala jaso eta antolatu zen. Bukaeran material hori guztia sakonki aztertu zen bukaerako txostena eta ondorioak idatzi ahal izateko.

Prozesuaren amaieran laburpen tekniko bat egin eta zabaldu zen, eta bertan ikerketak zein eskuhartzeak emandakoa laburbilduta agertzen dira. Horretaz gain, gazteekin planteatutako dinamiken emaitza gisa, bideo labur bat ekoiztu genuen⁵ eta bertan, neurri batean, jaso geratu zen egindako lana eta batez ere protagonista nagusien ahotsak: gazte kirolarien ahotsak. Aipatutako material hori guztia, zein hiru urteetan zehar sortutako txostenak eskuragarri daude⁶.

Orain, ahots horiek berreskuratu nahi izan ditugu dokumentu hau osatzeko, aurrera begira jarraitzeko eta "Euskara Kirolkide" faseari hasiera emateko. Horretarako 2016-2018ko ibilbidea amaitzean mahai gainean geratu ziren zenbait aspektu (kontzeptu, ideia, hausnarketa, etab.) berriz hartu nahi ditugu gogoeta hau gidatzeko. Eta hori da, hain zuzen ere, datozen orrialdeetan aurkeztu nahi duguna.

⁴ Esan behar da, egitasmo honen emaitzak talde-lanaren fruitua izan zirela. Ikerlari taldeaz gain, aritu ziren gurekin batera beste elkarte zein erakunde: Urtxintxa Elkartea, Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Topagunea. Bestalde, Infotres enpresarekin lan polita egin genuen amaierako bideoa ekoizten. Azkenik, parte hartu zuten kirol klubak inplikazio azpimarratu nahiko genuke. Lehenengo ikasturtean Aixerrota Boleibol Taldea eta Zarautz Kirol Elkartea, eta gero, Padura, Zaramaga eta Real Sociedad kirol taldeetako arduradunek erraztasun guztiak eskaini zizkiguten lan egokia garatu ahal izateko.

⁵ Infotres enpresa arduratu zen bideoa egiteaz.

⁶ Proiektuaren inguruko oinarritzko informazioa zein prozesuan sortutako materialak (txostenaren laburpena eta bideoa), interneteko helbide honetan daude eskuragarri: <http://www.soziolinguistika.eus/Deredukokirola>

1 EUSKARA GAZTEEN ISPILUAN

Kirolari gazteak dira txosten honen protagonistak, "D ereduko kirola" egitasmoan izan ziren moduan eta "Euskara Kirolkide" proiektuan izango diren bezala. Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaigu, beste ezer baino lehen, gazteei buruz bi hitz esatea. Esanda dago: ezinbestekoa jotzen dugu abiatzera goazen fase berrian, erabiliko ditugun kontzeptuak eta nozioak definitzea eta zehaztea. Ikerketarako, eskuartzerako edota aplikaziorako zutabe izango diren horiek argitzea.

Beste ezer baino lehen, jo dezagun gazteengana.

1.1 BI HITZ GURE "SUBJEKTUEN" INGURUAN: ZERTAZ ARI GARA⁷ GAZTEEI BURUZ HITZ EGITEAN?

Hasteko gazteei buruz mintzean zer dugu buruan azaldu nahi dugu, eta zehazki, nondik eta nola begiratzen diogun euskal gazteriari, egitasmo honen zein aurretik (guk) bideratutako beste ikerketa batzuen subjektu nagusia.

Euskal Herrian, bestelako testuinguruetan bezala, gazteek kokapen zehatza dute gizartean. Kultura gehienetan adina gizarte antolaketaren oinarria da eta pertsona bakoitzaren kokapen soziala, jaio den unetik pasa den denboraren arabera da. Baina bizitzan zehazten diren etapak ez datoz bat testuinguru guztietan, eta adin tarte bakoitzari egozten zaizkion balore eta ezaugarriak ere ezberdinak dira (Hernández eta Altuna, 2017).

Ados gaude Penelope Eckert-ek nerabezaroaz hitz egitean nabarmentzen duenarekin: nerabezaroa -dio- eraikuntza ideologiko bat da, generoa den moduan (Eckert, 2003). Bikain azaltzen du Eckertek bere hipotesia (Eckert, 2003, 281-282):

Just as gender does not unfold naturally from biology, neither do life-stages such as childhood, adolescence, adulthood, or old age. Biology imposes some constraints, and culture takes off from there. Adolescence is an outgrowth of industrialization – of the shift to institutionalized preparation for work, and the need to keep the young out of the workforce. While there are physiological changes that coincide to some extent with the entrance into adolescence, to attribute "adolescent behavior" to "raging hormones" is to ignore the obvious: that above all, adolescence is an age- and generation-based location in the political economy.

Gazte izaerak, beraz, oinarri biologikoa eduki dezake, adinarekin lotura zuzena duena, baina horri oinarri soziala duten elementuak gehitu behar zaizkio. Oinarri

⁷ Gaztaro, nerabezaro eta haurtzaro kategorien barruan sartzen diren subjektuak zehaztea ez da dirudien bezain erraza. Ez dago adostasun orokor bat aro hauek mugatzen dituzten adinen inguruan. Osasunaren Munduko Erakundeak, adibidez, dio nerabezaroa 10 eta 19 urte arteko garaia dela, eta gaztaroa 15 eta 24 urte arteko aroa dela. Definizio horren baitan, beraz, kontraesana ageri zaigu, 15 eta 19 urteko pertsonak nerabe eta gazte gisa hartu baitaitezke. Dokumentu honetan gazte kategoria oso modu zabalean erabili dugu; nerabezaroa gaztaroaz hartzen den prozesuan txertatua dagoela iruditzen zaigulako. Izan ere, azken urteetan egin ditugun ikerketetako protagonistak 12 eta 18 urte bitartekoak izan dira eta txostenean gehien aipatzen dugun "D ereduko kirola" egitasmokoak 12 eta 15 urte zituzten.

soziokultural hori dagoelako ez da gauza bera "gazte" izatea Euskal Herrian eta, adibidez, Indian. Gainera, gaur gazte izateak ez du orain dela mende bat zuen esanahi bera. Aspalditik esaten ari garen moduan (Hernández, 2010) egungo euskal gazteriaz hitz egiteko ondo aztertu eta definitu beharko genuke unean uneko gazteria nolakoa den eta gazte izatea zer den.

Era berean, ulertu behar dugu gazte izaera hori (edo izaera horiek) gizarte osoak baldintzatzen d(it)uela. Gazteak "egiten" dira haur, heldu eta zaharren kategoriekin batera. Zentzu horretan ere, "gazteak" gizarte posizio bat bezala ulertu dezakegula diogu (García Canclini, Cruces, Urteaga, 2012). Nestor García Canclini-k eta beste egile batzuek (2012) diotenekin bat eginez, esan dezakegu, neurri handi batean egungo (euskal) gazteria globalizazioak⁸ sortutako ondorioen emaitza dela eta gizartean duen tokia ideologikoki sustraituta eta oinarrituta dagoela. Gazte izateak asko du biologiatik, baina hori bezain beste, kulturatik eta gizartetik.

Beste toki batean aipatu dugun moduan (Hernández eta Altuna, 2017) modernitateak hain gustukoa duen sailkapen dikotomikoen jokoan, haurrak, nerabeak eta gazteak ez-heldua kontsideratzen dira, helduen mundutik banandua daudenak. Haurra eta nerabea bukatu gabeko zerbaite gisa ulertzen da, pixkanaka betetzen joan behar den hutsik dagoen ontzi bat bezala. Eurak "oraindik ez" taldekoak dira eta helduak "dagoeneko bai" taldekoak dira (Casas, 2006). David MacDougall-ek dioten bezala, helduentzat haurrak bukatugabeko izakiak dira (*adult-in-waiting*), sozializazio prozesuan eraikitzen ari direnak (MacDougall, 2005).

Helduok, maiz, ahaztu egiten dugu sozializazioa etengabeko prozesua dela, bizitza osoa irauten duena eta gizakiak hasiera-hasieratik izaki sozial gisa funtzionatzen duela. Haurtzaroaren eta nerabezaroaren trantsizio izaera horrek, beraz, gizarte mailaketa eta botere harreman bat ezkutatzen du, eta mailaketa sozial horren barnean, gorputz umoez posizio eta aukera berezituak eskuratzen dituzte (Fernandez, 2016). Botere harreman hori izendatzeko Claudio Duarte "helduzentrismo" hitza erabiltzen du (Duarte, 2012 in Fernandez, 2016). Hizkuntzak garbi adierazten digu haurtzaroaren kontzeptzio hori: adin-gabeak deitzen diegu 18 urte bete ez dituztenei.

Ikuspegi hauek, gainera, badute bestelako ondorio maltzurak. Izan ere –Eckert-ek ohartarazten gaituen moduan– zenbaitetan prozesua izan beharko litzatekeena, helburu bilakatzen da. Nerabeak, esaterako, "nerabeentzako diren" tokietan zein erakundeetan isolatuak egoten direnez⁹ «people become not more adult, but more adolescent» (Eckert, 2003, 382)».

⁸ Globalizazioaz hitz egiten dugunean García Canclini antropologoak nozio horren inguruan planteatzen duenaz ari gara. García Cancliniaren ustez globalizazioa erabat definitzea zaila bada ere, egoera eta testuinguruaren arabera delako, XX. mendearen bigarren erdialdean garatu zen fenomeno bat da. Prozesu ekonomiko, finantzario, komunikazional eta migratzaileen bateratzeak ekarri zuen munduko ia gizarte guztien arteko mendekotasuna areagotzea eta nazioz gaindiko interkonexio-fluxu eta -egitura berriak sortzea (García Canclini, 2000, 24).

⁹ Eckerten iritziz, Estatu Batuetako kasuan, nerabezaroa eskolak definitzen du erabat. Bere ustez, Ipar Amerikako "High School" delakoa ez da bakarrik hezkuntza erakunde bat, gaztetxoek bizitza osoa (lagunartea, aisialdia, kirol zein kultura jarduna) antolatzen duen erakundea baizik (Eckert, 2003). Alde nabarmenak egon badaitezke ere, pentsa dezakegu gurean antzeko zerbaite gertatzen

Haurrari eta nerabeari ematen zaion etorkizuneko izakiaren funtzio horrek, bestalde, arduraz betetzen du euren motxila, «carrying on their shoulders all the hopes of the adult world (MacDougall, 2005, 67)». Hau da, agentziarik onartzen ez bazaie ere, gizarte hobeagoren etorkizuneko esperantzak¹⁰ betebeharrak bihurtzen zaie¹¹. Hala egin da, gure ustez, euskararen biziberritze prozesuan. Eurekin egoera hobetuko zela espero zen, gainontzeko adin tarteen ardura nolabait arinduz (MacDougall, 1998).

Halere, iragartzen zena eta egungo datuek islatzen dutenaren artean dagoen aldea nabarmena da eta hortik dator eremu askotan somatzen den kezka eta ardura: euskal hiztun gazteek ez dute erabiltzen euskara espero zen bezain beste. Edo espero zen neurrian eta moduan. Helduon begitan, euskara eta gazteen artean nolabaiteko tentsioa somatzen da. Erabilera egungo eta etorkizunerako auzia bilakatu da.

Gauzak horrela, gogoeta labur bat eskaini nahi izan diogu erabilerarekin lotutako kezka horri.

1.2 GAZTEAK ETA EUSKARA: ARGAZKI OROKOR BAT

Azken hamarkadetan euskarak esparru berrietara iritsi da eta horietako askok presentzia handia dute gazteen bizitzan eta egunerokotasunean. Unibertsitatea da horietako bat¹². Bertan eskaintzen den irakaskuntza euskalduntzen joan da pixkanaka pixkanaka. Adibide bat jartzeagatik, "Euskararen III. Plan Gidaria 2018-2022" dokumentuan jasotzen denaren arabera, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) nahitaezko irakasgaiaren %97a euskaraz irakasten da (Euskal Herriko Unibertsitatea, 2018:9)¹³, beraz ikasleek ia edozein gradua euskaraz ikasteko aukera dute. Praktikan, askok horren alde egiten dute. Esate baterako, EHUn, 2020-2021 ikasturtean, ikasle berrien %53,9a euskarazko taldeetan matrikulatu da eta %46,1a gaztelerazkoetan¹⁴. Egoera hau ez da EAEko edota Euskal Herriko unibertsitate guztietan ematen, ezta hezkuntza maila guztietan, baina, orohar, esan

ari dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparekin (DBH), izan ere, etapa horretarako igarobidea "nerabezaroaren" hasierarekin lotzearen ustea gero eta zabalduagoa dago sozialki.

¹⁰ Eta helduak sortutako aurreikuspen horiek betetzen ez direnean, askotan kexak datoz. COVID-19 osasun krisian ere ikusten ari gara gazteengan nola proiektatzen diren kutsatzea zabaltzearen errua, eta hainbatetan heriotzak eragitearen ardura, lagunartean egiten dituzten aisialdi jarduerengatik.

¹¹ Egun interesgarria da "etorkizuna gazteena dela" ideia barnean nerabe eta gazte batzuen artean, klima aldaketa dela eta, zabaltzen ari den diskurtsoa. Izan ere, euren kritikak zuzenean (eta askotan modu oso kritikoan eta zorrotzean) helduei zuzentzen ari zaizkie, ardura nolabait heldu horien bizkar gainean utziz. Helduak errudun gisa agertzen dira eta euren jokaera gogor kritikatzeko da.

¹² Hezkuntza ez da inolaz ere esparru berri bat euskararentzat baina goi mailako hezkuntza, neurri batean bai. Unibertsitatea euskalduntzeko eskaerak eta ahaleginak lehenagokoak badira ere, Euskal Herriko Unibertsitatearen Lehenengo Plan Gidaria 2007koa da. Gaur egun, Hirugarren Plana dago indarrean (2018-2022).

¹³ Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.eus/documents/2660428/2968265/Euskararen-III-plan-gidaria.pdf/c1e54c15-f34e-0e1c-963a-22400f52a0ba?t=1552036765000>

¹⁴ Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/-/gradu-34.000-ikasle-hasiko-dituzte-2020-2021-ikasturteko-eskolak-upv/ehun>

daiteke haur, nerabe eta gazteek euskarazko irakaskuntza jasotzeko aukera dutela bere formazio prozesuan zehar: ibilbide osoan edo parte handi batean¹⁵.

Kultur kontsumoa da gazteengandik gertu dagoen beste esparru bat. Bertan literatura sartu dezakegu, edo, musika. Bi kasuetan euskarak duen presentzia nabarmen handitu da, batez ere 1980ko hamarkadatik. Xabier Etxanizen arabera¹⁶, euskarazko haur eta gazte literaturak aro berri bati ekin zion 1980tik aurrera, aldaketak kuantitatibo zein kualitatiboak igorritik. Une horretan liburuaren ekoizpena izugarri hazten hasi zen eta, urteko, dozena bat argitalpen izatetik, 300 bat izatera iritsi zen. 2012an, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako ikerketa batek jasotzen zuenaren arabera¹⁷, 15 eta 29 urte arteko gazteen artean liburuak irakurtzea zen, musika kontzertuak eta zinema eta gero, interes gehien sortzen zuen kultur jardura. Ikerketa berak zioenez, irakurketa-ohitura duten gazte elebidunen %43,5ak euskarazko liburuak irakurtzen zituen. Joera hau bereziki zabaldua zegoen 15-19 eta 25-29 urtekoen artean. Aldiz, 20-24 urtekoek euskaraz irakurtzeko ohitura gutxiago agertzen zuten. Elkar Fundazioak eta Siadecok Ikerketa Elkarteak 2017an egindako ikerketak jaso zuenez, 16-25 urteko gazteak liburu gehien irakurtzen duen populazio multzoa da. Ikerketak nabarmentzen zuenez, ikasketekin lotutako liburuak zuzeneko eragina izango lukete datu horretan. Halere, gazteenak dira euskaraz irakurtzeko ohitura gehien dutenak: 16-25 urtekoen % 39,2ak dio "Euskaraz irakurtzeko ohitura duela"; 65 urte edo hortik gora dutenen artean, %16,3a den bitartean¹⁸.

Beste adibide bat: Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteak 2020ko urriko hemerrotekan jakinarazten zuen, aurtan 28 ikastetxek eta 2600 gazte bako gehiagok hartuko dutela parte urtero antolatzen den Liburu Gaztea Book Trailer lehiaketan¹⁹. Horretarako gazte horiek euskarazko liburu bat irakurri eta landu behar dute. Hemen dugu beraz, beste erabilera esparrua.

Musikara jotzen badugu, Elkar Fundazioak eta Siadecok Ikerketa Elkarteak egindako ikerketaren baitan, hamar euskal herritarretik seik egunero edo ia egunero entzuten dute musika; hamarretik ia bik, gutxienez asteen behin. Hamarretik bakarrak ez du musikarik entzuten. Gazteen artean handiagoa da musika kontsumoa: 16-25 urterekin, %90ek entzuten dute egunero edo ia

¹⁵ Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, D ereduak nagusitzen da hezkuntza eremuan, hezkuntza maila guztiak kontuan hartuta. Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Hezkuntza, Batxillergoa, Lanbide Heziketa eta Hezkuntza Berezia kontuan hartuta, 2018/2019 ikasturtean 254.721 ikasle zeuden matrikulatuta D ereduari, 69.562 B ereduari, 49.392 A ereduari eta 2.274 X ereduari. Datuak hemen daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_dae/eu_def/adjuntos/Estatistika_Liburuxka_2018-2019_e.pdf

¹⁶ Hemen argitaratuta: <http://www.basqueliterature.com>

¹⁷ Ikerketaren emaitzak hemen daude eskuragarri: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_gazt_kultur_kontsumo/eu_def/adjuntos/gazteen_kultura_kontsumoa_2012.pdf

¹⁸ Datuak eskuragarri daude hemen: https://postdata.elkar.eus/wp-content/uploads/2018/03/Elkar_Siadeco_agerraldia_martxoak_14-def.pdf

¹⁹ Informazioa hemen dago eskuragarri: <https://www.galtzagorri.eus/eu/dokumentazio-gunea/hemeroteka/28-ikastetxek-eta-2600-gaztek-baino-gehiagok-hartuko-dute-parte-book-trailer-lehiaketan-eta-abian-da-irakasleentzako-lantegia>

egunero. Adinean gora egin ahala, txikiagoa da kontsumoa: 65 urtetik gorakoetan, %46k dute musika egunero entzuteko ohitura.

Musika entzun bai, baina zein musika entzuten da? eta, batez ere, zein hizkuntzatan entzuten dute musika gazteek?

Orain dela urtebete Garikoitz Goikoetxeak Berria egunkarian²⁰ jaso zituen Kulturaren Euskal Behatokiak egindako inkesta baten ondorioak. Bertan, musikari dagokionez, horrela zioen Goikoetxeak:

Inkestaren arabera, musika da euskal kulturaren indargune nagusia: sei euskaldunetik bostek dute ohitura euskarazko musika entzuteko (%83). Hamar urtean igo egin da euskal musikara jotzen duten euskaldunen ehunekoa: %69 ziren 2008an. Areago, gainerako kultur adierazpideen aldean badu ezaugarri bat euskal musikak: erdaldunen artean ere badu erakarmena. Izatez, Euskal Herriko biztanleria osoa hartuta —15 urtetik gorako herritarrek izan dituzte kontuan—, gehienek esan dute euskal musika entzuteko ohitura dutela: %55ek.

Goikoetxeak ez zuen gazteekin lotutako datu zehatzik aipatzen baina kontu jakina da adin talde horretan musika dela gehien “kontsumitzen” den kultur jarduera. Gazteen kultura kontsumoaren inguruan 2012an argitaratutako ikerketaren baitan, musika entzutea da gazteak gehien eginiko jarduera: % 95,7ak aipatu du euren kultur ohituren artean (Kulturaren Euskal Behatokia, 2012: 9)²¹.

Baina musika entzuteko eta kontsumitu ahal izateko sortu egin behar da, eta hor dago gazte kultura eta euskararen erabilerak batzen dituen beste esparru interesgarri bat. Gazte asko eta asko aritzen dira musika munduan. Batzuk denbora pasa moduan, beste batzuk begirada profesionalizaziorako bidean jarrita. Txosten honen helburutik kanpo geratzen da eremu hau aztertzea baina musikaren esparruak gazteen artean duen oihartzunaz jabetuta, egokia iruditzen zaigu euskal/euskarazko musikak azkenengo hamarkadetan egindako ibilbidea aipatzea. Adibidez, Alberto Irazuren liburuak (2017), zein Lander Muñagorri Garmendiak (2019) HIZNET graduondorako egindako ikerketak ikusgai uzten dituzte ibilbide horren urratsak eta, horien baitan esan daiteke -gorabeherak gertatu badira ere- 1960ko hamarkadatik, euskarazko musikaren sormena eta ekoizpena handitu, zabaldu eta dibertsifikatu egin dela, gazte kulturen esparruan toki garrantzitsua hartuz. Entzuten duten musikari buruz galdetuta, gazteek hizkuntza hautu ezberdinak agertzen dituzte, ingelera, gaztelera eta euskara nagusiak izanik. Gainera, Muñagorri azaltzen duenez, gaur egun ez da arraroa abeslari edo musika talde berak hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea²². Egileak dioenez, XXI. mendean euskarazko musikak bizirik dirau, baina euskaraz abesteko arrazoriak dira aldatu direnak (Muñagorri, 2019: 29).

²⁰ Artikulua hemen dago eskuragarri: <https://www.berria.eus/albisteak/174459/euskarazko-kulturaren-kontsumoak-gora-egin-du-ahozko-adierazpideetan.htm>

²¹ Hemen eskuragarri: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_gazt_kultur_kontsumo/e_u_def/adjuntos/gazteen_kultura_kontsumoa_2012.pdf

²² Bere lanean Muñagorri Izaro abeslariaren kasua aipatzen du joera horren adibide gisa.

Musikan eta literaturan ez bezala, bestelakoa da bideo jokoen eta ikus-entzunezko eremuen panorama. Kulturaren Euskal Behatokiak 2019an egindako txostenaren arabera, Euskal Herriko biztanleen %20 egunero edo noizean behin aritzen dira bideo jokoren batean, baina euskarazko bideo jokorik ez dago, eta haiei lotutako "ekosisteman" ere euskararen presentzia oso txikia da²³. Antzeko egoera dugu ikus-entzunezkoen esparruan. Euskarazko ekoizpenak oso gutxi dira eta baita ere euskarara bikoizten direnak edo azpтитuluekin ikusteko aukera ematen duten filmak edo serieak. Bea Narbaiza-k Berria egunkarian²⁴ zehaztu zuen bezala horrek ondorio garbi batzuk ditu:

25 urtetik beherakoek telebistaren kontsumoa jaisten doa, eta badakigu ikus-entzunezkoen kontsumoa gora doala; beraz, kontsumoa Interneten egiten da. Ikusleak Interneten daude. Joera hori markatuta zegoen azken urteotan, baina asko areagotu da azken urtean.(...) Edorta Arana eta biok ikertu egin dugu EITBrekin batera. Applika egitasmoa dugu, eta EHUKo ikasleekin inkesta handi bat egin genuen, 588 galdeketa. EHUKo ikasleen artean, euskara idatziz, irakurriz eta hitz egiten menperatzen dutela esaten dutenak %80,7 dira. Oso handia da ehunekoa. Aldiz, gazte horiek Interneten kontsumitutako edukien hizkuntzetan, euskara %4,47 da. Gaztekeraz kontsumitutakoa %73 da, baina ingelesez kontsumitzen dutena %19,21 da. Datu hori oso esanguratsua da.

Erabileraren auzian murgiltzeko asmoz, hainbat datu jaso eta erakutsi nahi izan ditugu. Hauek erakusten dutenez, azken urteotan gazteen euskararen erabilerarako gune berriak ireki eta garatu dira musika eta literatura arloan. Ikus-entzunezko eta bideo jokoen esparruetan, ordea, euskararen erabilera oso txikia da. Hain zuzen, Narbaizak aipatu bezala gazteen ikus-entzunezko kontsumoa Interneten egiten da, eta gauza bera gertatzen da bideo jokoei. Horregatik, atal hau ixteko aipamen berezia egin nahi diogu mundu digitalari.

Ezaguna da: gazteen bizitzan eta aisialdian gero eta presentzia handiagoa du eremu hori eta gaur egun ezinezkoa da gazteen euskararen erabilera aztertzea horretan erreparatu gabe. Gazteak eta mundu digitalaz hitz egiten denean, nagusiki, sare sozialaz mintzaten da, hori baita egiten duten erabilera nabarmenena. Hezkuntzarekin lotutako zereginak alde batera utzita, internetarako konexioa entretenitzeko (jokoak, musika, ikusentzunezkoak etabar.) eta harremanak lantzeko (sare sozialak) nahi dute.

Azken erabilera horrekin lotuta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) (Gazteen Euskal Behatokia, 2019) edota Espaniako Estatuan (García Galera; Fernández Muñoz, 2016) egindako hainbat azterlanek gazteek sare sozialekin duten harremana arakatu izan dute. Horrekin batera, sare sozial erabilenak zein diren eta erabilera horren inguruan gazteek adierazitako kezkak aztertu dituzte.

²³ Euskara eta bideo jokoen arteko harremanari buruz erreportaia garatu du Lander Muñagorri Berria egunkarian. Hemen eskuragarri dago: <https://www.berria.eus/paperekoa/2663/014/001/2020-11-22/euskara-bideo-jokoz-kanpo.htm>

²⁴ Hemen eskuragarri dago Bea Narbaizari egindako elkarrizketa: <https://www.berria.eus/paperekoa/1857/023/001/2019-07-10/ez-dakit-eitbren-zain-geratu-behar-dugun.htm>

Aipatutako bi ikerketek argi uzten duten gazteak eta sare sozialez hitz egiten denean izen jakin batzuen inguruan ari garela nagusiki: Instagram, You Tube, Facebook eta Whatsapp²⁵. Aukera gehiago agertzen dira²⁶, noski, baina aipatutakoak dira gehien nabarmentzen direnak. Bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak ditu baina, oro har, gazteek horiengana jotzen dutenean, honako erabilera edo partehartzea gauzatu nahi izaten dute (García Galera; Fernández Muñoz 2016, 6): 1) politiko edota zibikoa; 2) kultural edota entretenimenduzkoa; 3) lagunartekoa edota harreman sozialena. Denen artean, Espainiar Estatuan zein EAEan entretenimenduarekin eta harreman sozialekin lotutako erabilerak nagusitzen direla dirudi. Buelbaka dabilen beste hitz bat "informazioa" da. Izan ere gazte guztiek informazioa bilatzeko garaian sare sozialek eskaintzen dituzten aukerak azpimarratzen dituzte. Baina, informazio bilaketa horretan ñabardurak egin beharko lirateke, izan ere, batzuetan ikasketekin egon daiteke lotuta, eta beste batzuetan, aisialdia edota entretenimenduekin.

Eta euskarak, zein presentzia du eremu birtual honetan? 2019an ikerketa txiki bat egin zen Euskarabentura espedizioan parte hartzen ari ziren gaztetxoaren artean. Arratsalde batean, 4 orduz, Euskararen Aholku Batzordeak, eta zehazki, Gazteen Unibertsoaren lantaldeak eskatuta, urte hartako partaideei euskara eta mundu digitalaren arteko harremanen inguruko gogoeta egitea proposatu zitzaion.

Gazte horien iritziz, euskarak mundu digitalean eta sare sozialetan bereziki duen pisua mugatua da. Eurek emandako informazioaren arabera, eremu digitalean euskarak duen presentzia, gizartearen orokorrean eta gazteen kulturen zehazki daukanaren isla litzateke. Hau da, eremu digitala eta eremu ez-digitalaren arteko lotura estua da. Ez dago kontraesanik. Horren froga dugu Jon Fernández San Martín-ek egindako ikerketaren emaitzak. Bertan Ondarruko 16-18 urteko nerabeen whatsapppeko eta Instagrameko jarduna aztertu zuen eta, egileak berak dionez, emaitzek herriko (gazteen) hizkuntza egoerarekin bat egiten zuten (2019, 41):

(...) euskararen nagusitasuna nabaria da, gazteleraren eta ingelesaren interferentziak interferentzia —euskazolaz gain, eusklish zantzuak ere ageri dira—. Euskara kaleko arau soziala izateak domino efektua eragiten du herrian, euskararen erabilera indartuz etxean zein sare sozialetan.

Testuinguruaren arabera, egoera aldatzen dela kontuan hartu behar bada ere, gazteek beraiek diotenez, gazteen kultura digitalean gazteleraren erabilera nagusia da. Batez ere, ikus-entzunezkoan (serieak, pelikulak), denbora pasan (jolasak, bideoak, argazkiak) eta sare sozialetan. Aldiz euskararen presentzia eremu hauetan ematen da nagusiki: ikasketetan, informazioaren bilaketan (batez ere ikasketekin lotutakoa), musikaren kontsumoan eta harremanen kudeaketan (familiakideekin eta zenbait lagunekin izaten dituzten elkarriketetan).

²⁵ 2018ko azaroan Eusko Jaurlaritzako Gazteen Unibertsoa Aholku-Batzordeak antolatutako jardunaldietan joera honen berri eman zen behin eta berriro. Horrelako ideiak entzun ahal izan ziren: «Interneten existitzen ez den hizkuntzak ez du etorkizunik. Guri gustatu ala ez, bezeroak YouTube, Instagramen eta Interneten daude». Edo: «Sare sozialek esparru sozial berri bat sortu dute. Gazteak Instagram-en daude».

²⁶ EAEko kasuan, Twitter, LinkedIn, Tinder eta Snapchat ere maiz dira aipatuak eta, dinamismo handia duen esparrua denez, urte batetik bestera joerak eta plataforma berriak indarrez agertzen dira.

1.3 GAZTEAK ETA EUSKARA: ERABILERAREN AUZIA

Aurreko orriotan saiatu gara gazteen erabileraren gaineko azterketa egiteko hainbat eremutan egon den bilakera eta egungo panorama zein den laburbiltzen. Izan ere, beharrezkoa iruditzen zaigu erabilerari buruz azterketa egiterakoan zertaz ari garen zehazten saiatzea. Jakina denez, eskola da gazte hiztunentzat, orohar, erabilerarako gune nagusia. Baina, agerian geratu denez, denborarekin eta euskararen biziberritzearekin batera gazteengandik gertu dauden eremu “berriak” joan dira sortzen eta zabaltzen, edo, besterik gabe euskalduntzen: izan kultur eremukoak (literatura edo musika kasu) izan, mundu digitalaren bitartez konsumitzen dituzten edukiak eta garatzen dituzten harremanak. Kasu hauetan, aurretik aztertu den moduan, euskararentzako argi-ilunak, aukerak eta mehatxuak antzematen dira: lan asko eginda, euskararen presentzia handitzen ari da, baina (gazteentzat) garrantzia duten eremuetan, oraingoz, gaztelera nagusi da, mundu digitala, lagunartekoa edota harreman informalen esparruen kasu.

Besteak beste, Kale Neurketek erakutsi dutenez, euskararen erabilera publikoa eta kalekoa, lagun eta ezagunen artekoa, mantsotzen ari da. Joera bera antzeman da adinkideen harremanetarako dauden beste esparru batzuetan, adibidez, eskolako jolas-tokietan. Gune hauetan, orohar, gazteek gazteekin gaztelera jotzeko ohitura dute eta asko kostatzen zaie euskarari tokia egitea. Euskararen erabilera arau nagusitzat hartzen den tokietan -eskolan, adibidez- gero eta jauzi handiagoa dago gelako eta irakasleekin egiten den erabileratik ikaskideekin egiten den erabilerara (bai gela barruan, zein kanpoan). Arrue egitasmoak ematen digu horren berri (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, 2018), eta, momentuz, zaila ikusten da joerari buelta ematea.

Euskarak, pixkanaka pixkanaka, esparruak bereganatzen baditu ere, muga asko dauzka lagunaren artekoa eta eremu informaletara iristeko. Argi dago egoera asko aldatzen dela testuinguruaren arabera, baina, orohar, datuek erakusten dute zaila dagoela gazte kultura (k) eta euskara bat egitea. Erabileraren auziak eztabaida piztu du eta, une honetan, euskararen eremuan aritzen diren eragile ezberdinen artean gogoeta gai nagusienetarikoa bat da.

Txosten honen egileok hainbat aukera izan ditugu azken urteotan gazteekin hitz egiteko, egoteko eta euren hizkuntza praktikak behatzeko (Hernández eta Altuna, 2016; Hernández, Altuna eta Beitia, 2018). Gazteekin izandako hartu eman horien bidez jabetu gara gazteek beraiek “ez erabiltzearen” kezka edo diskurtsoa barneratu dutela. Gazteen gaitza dela diote: euren kideek erabiltzen ez dutela jabetzen dira batzuk; erabili beharko luketeena baino gutxiago erabiltzen dutela aitortzen dute beste batzuek; edo, zuzenean, eskolan edo gelan baino ez dutela erabiltzen diote zenbaitek.

Euskara ez erabiltzeko arrazoiengatik inguruan galdetuta, gazteek, helduon antzera, ez dute diagnostiko argi bat, euren gertuko errealitateaz ari badira ere. Aipatzen diren argudioen artean, esan daiteke bi nagusitzen direla.

Batetik, zenbaitetan gazte batzuen euskara mailari erreparatzen zaio. Deigarria iruditu zaigu, Euskal Autonomi Erkidegoko gazteak izanda, horrelakoak entzutea: «nire kuadrillan batzuk ez dakite euskara» edo «gazte batzuekin ezin dugu euskaraz egin, ez dakitelako». Antzeman izan dugunez, ez jakite horretan egoera ezberdinak ematen dira. Gazte batzuk euskara edozein esparruan erabiltzeko

gaitasun murrizta daukate; beste batzuen kasuan, erregistro informalean somatzen da hutsunea, eta lagunen artean euskaraz aritzeko zailtasunei egingo liekete erreferentzia ikerketetan jaso ditugun goiko hitz horiek eta antzekoak.

Bestetik, gazteek joera dute euskaren erabilera eta familia lotzeko. Euren iritziz, euskaraz egiteko ohitura dutenak familia “euskaldunetakoak” edota euskara hitz egiten den familietakoak dira²⁷. Puntu honetan ñabardura garrantzitsu bat egin behar da: familia euskaldunetako gazte guztiek ez omen dute euskaraz (beti) egiten²⁸, baina euskaraz egiten duten gazte gehienak tipologia horretako etxeetan hazitakoak dira.

Ondorioz, gazteek beraiek, fokoa, ezagutzan (edo ezagutza mailan) eta familia gunean jartzen dutela esan daiteke. Jakitun izan ala ez, gazte hauek gurean hizkuntzaren transmisiorako funtsezkotzat jo izan diren zutabeak ari dira seinalatzen: eskola eta familia. Eta, modu ez zuzenean bada ere, erakunde hauek ordezkatzan eta gobernatzen dituzten helduak. Ideia hau kontuan hartu beharrekoa iruditzen zaigu, besteak beste, areagotu egiten duelako bestela ere, aspalditik zalantzan jartzen ari den transmisioaren eredu tradizionalari buruz gogoetatu beharra (Kasares, 2014).

Dena dela, “ez erabiltzearen” kezka ez da gaur egungoa. Ikastoletan euskaldundu ziren lehenengo belaunaldien artean ohikoa zen gaztelania asko erabiltzea, batez ere, eskolako patioetan edota eskolaren bidez antolatzen ziren eskola orduz kanpoko jardueretan. Ikastolak egonkortzen hasi, euskararen legea ezarri (1982) eta handik gutxira baziren martxan gazteak eta euskararen inguruko lehenengo ikerlanak. *BAT Soziolinguistika Aldizkariak* orain arte argitaratutako zenbakiei erreparatzen badiegu, konturatuko gara ia hiru hamarkada direla gazte euskaldunen inguruan²⁹ hausnartzen ari garela. Denbora honetan euskararen

²⁷ Batzuetan familia aipatu ordez “ama hizkuntza” nozioa erabiltzen da etxetik euskara dakartenak izendatzeko. Horrekin lotuta, zenbait kasutan gazteen diskurtsoetan ama-hizkuntzaren ideologien (Skutnabb-Kangas eta Phillipson, 1989) zantzuak topatu ditugu.

²⁸ Ideia hau sostengatzeko hainbat datu daude. Adibidez, VI. Inkesta Soziolinguistikoari (2016) edota V. Mapa soziolinguistikoari (2014) erreparatzen badiegu, euskararen familia bidezko transmisioa % 25 ingurukoa dela esan dezakegu (beti ere, euskara soilik eta euskara eta gaztelania batera transmititzen diren kasuak batuta). Baina 2016ko Kale Neurketaren datuen arabera, gazteen (15-24 urte bitartekoak) erabilera % 12,3 da. Antzeko desoreka ikusten da beste ikerketa batzuen bidetik jasotako emaitzetan. Esate baterako, Arrue proiektuak jasotako datuen arabera, EAEko LH4ko ikasleen % 33,5ek jaso dute euskara edo euskara eta gaztelania etxean. Baina horietatik soilik % 17k erabiltzen du bakarrik edo nagusiki hizkuntza hori familia giroan. DBH2koen kasuan, % 35,4k zuen euskara edota euskara eta gaztelania lehen hizkuntza bezala eta hortik, % 19k erabiltzen zuen nagusiki euskara etxeko eremuan. Datu hauek ikusita familiaren esparruan euskararen sozializatua izateak erabileran laguntzen duela esan dezakegu, baina ezin da ondorioztatu horrek erabilera bermatzen duenik.

²⁹ Jada aldizkari horretako 7-8 zenbakian (1992ko irailean argitaratua) honelako izenburua duen artikulua topatu dugu: “Gazteak euskalduntzeko egitasmoa”. Artikulu horretako egileek honelako kezka adierazten zuten: “Azterketa soziolinguistikoek diotenez gazteak dira, oro har, euskararen ezagutza mailaren eta erabilpenaren arteko desfaserik handiena agertzen dutenak, euskararekiko motibaziorik altuena adieraztearekin batera. Hitz bitan: hizkuntz leialtasun tasa ez dator bat ageriko kontzientzia mailarekin”. Eskuragarri helbide honetan: <http://www.soziolinguistika.org/node/597>. Urte bete beranduago (1993), gazteak protagonista

egoera eta euskal gizartearen egoera nabarmen aldatu da. Bidean, eta jada esanda geratu den moduan, euskararen ezagutzaren garapen eta zabalpen handia gertatu da. Momentu batean horren premia ikusi zen eta horretarako baliabideak zein baldintzak jarri ziren, gutxi edo asko. Erronka hor zegoen eta heldu zitzaion. Ezagupenetik erabilerara jauzia (ia) "automatikoa" izango zela pentsatu zen eta orain argi dago uste hori ez zela zuzena. Baina ezagupenaren zabalkundean baliabideak jartzen ari ziren bitartean, erabilerarako baldintzak sortzen eta garatzen ari ote ziren?

Gaude ezagupena zabaltzeko estrategiek, ez dutela parekorik izan erabileraren esparruan, ez bederen haur, nerabe eta gazteei dagokionez: gazteen erabilera sostengatuko duen hezurdurarik (ia) ez dago. Nerabeak eta gazteak mugitzen diren eremuetako euskararen egitura mehe-mehea da, arin-arina. Eta egitura esaten dugunean: 1) ideiez eta ideologiez ari gara; 2) euskaraz blaitutako praktikez (esate baterako, euskaraz burutzeko aukera emango duen aisialdia); 3) gazteen garaira eta errealitatera egokitutako proposamenak eta proiektuak.

Goian aipatu dugunez, gazte izateak gizarte posizio bat dakar; posizio jakin bat gizarte egiturari eta botere harremanen matazan. Hortik euskararen erabilerara jauzi egiteko, baldintzak behar dira. Euskara hizkuntz gutxitua izanik, ez dago beti edo uneoro presente; ezta leku guztietan eskuragarri. Euskara, batez ere hezkuntzaren bidez izugarri zabaldu bada ere, gazte askorentzat ez da eskolatik kanpo presentziarik duen hizkuntza. Euskararen erabilera sostengatuko duten tresna, estrategia eta, batez ere, esparru eta egoera gehiago behar dira. Gazteei buruz ari garela eta, jarraian azalduko dugun moduan, funtsezkotzat jotzen dugun gunen horietako bat aisialdiarena da. Eta horren barruan, bereziki kirola. Gazteen unibertsoan, kirola ezaugarri positiboetarik agertzen da eta horrek gunen pribilegiatua bihurtzen du gazteen eta euskararen arteko harremana lantzeko. Zeregin horri begira garatu zen "D ereduko kirola" eta orain, "Euskara Kirolkide" aurreko fasean egindakoari jarraipena egiteko asmoz eratu da.

Aisialdia eta kirola izango dugu berriro ere, beraz, fase berri honetan aztergai eta mintzagai. Hori dela eta, beste ezertan murgiltzen hasi aurretik, azter ditzagun bi eremu hauen ezaugarriak eta euren lotura hiztun gazteekin.

izan ziren Euskara, atzo eta gaur izeneko ikerketan. Eusko Jaurlaritzak bultzatu zuen ikerketa mardul eta sakon hori, eta gazteen inguruan argazki ezin osatuagoa eskaintzen du.

2 GAZTEAK, AISIALDIA ETA KIROLA

Atal honetan aisialdiaz eta kirolaz mintzatuko gara. Batetik, bi kontzeptu horiek definitzeko eta ezaugarritzeko asmoz; bestetik, aisialdiak eta kirolak nerabe eta gazteen bizitzan eta bizimoduan duten presentziaz hausnartzeko. Azkenik, euskarak gazteen aisialdian eta kirol praktikan duen pisua aipatuko dugu, euskararen biziberritze prozesuan bi eremu hauek eskaintzen dituzten aukerak nabarmenduz.

“D ereduko kirola” egitasmoen ondorietan, kirola, eskola eta kalearen arteko zubi gisa irudikatu genuen. Idei hori “Euskara Kirolkide” proiekturako abiapuntua izan daitekelakoan gaude, eta bide horretan aurreikusten ditugun aukerak zirriboratu nahi ditugu.

2.1 AISIAREN KONTZEPTUA: ZEHAZTAPEN OROKOR BATZUK

Aldarria ez da berria, urteetan errepikatu izan den leloa dugu honako hau: haur, nerabe eta gazteen eremu ez-formalaren euskalduntze orokorra behar da. Hala jaso zuen Kike Amonarrizek 2020ko martxoan Topalabe taldeak argitaratutako gogoetan:

Askotan errepikatu izan dugu hezkuntzak bakarrik ezin duela: ezin du ikasle guztien ezagutza maila egokia bermatu, askotan ezin du erabilerarako inertziarik sortu, eta hainbatetan, sortu arren, ezin du mantendu. Eskolak bakarrik ezin die aurre egin hizkuntza hegemonikoen presioari eta berauen eskaintzaren uholdeari... Asko egin dugu hezkuntzan eta asko lortu, eta badago hobekuntzarako tarterik oraindik ere, baina, haur eta gazteen hizkuntza alderdi guztietan hobetuko bada, batez ere, eskolatik kanpoko faktoreei esker hobetuko da.

(Amonarriz, 2020:24)

Eskolatik kanpoko eremu hori aisiaren eremua da, aisialdia. Hor kokatu behar dugu kirola, nahiz eta jakin badakigu batzuetan eremuen arteko mugak zehaztea zaila egiten den: haur eta nerabeek eskolan ere egiten dute kirola, eskola-kirola deitzen dena erdibideko esparrua da eta, zer esanik ez, kirol-profesionalaz aritzen garenean, ikusleen aisiaren eremuan sartzen bada ere, milaka lagunentzat negozio iturria da (kazetariak, kirolariak, apustu etxeak...).

Izan ere, aisia zer den definitzea ez da ematen duen bezain langintza erraza. Hiztegiatara jotzen badugu antzeko definizioak topatuko ditugu hizkuntza desberdinetako hitz-bildumetan. Euskaltzaindiaren Hiztegiak hala dio:

- **Aisia:** Atsedenezko edo erosotasunezko egoera, lana edo ohiko zereginak uztean hartzen dena.
- **Aisialdia edo astia:** Lanik edo zereginik gabeko tarte, nahi den eran bete daitekeena.

Aisia, beraz, ‘lana ez dena’ litzateke. Edo, aurkako norantzan ikusiz gero, lana ‘aisia ez dena’ litzateke. Horra eramaten gaitu dikotomiak are nabarmenago erakusten digun gaztelaniazko izendapenak: *negocio* (negozio), *neg-ocio*, aisia ez dena. Modu

horretan, “serioa ez dena” edo “seriotasun nahikorik” ez duena aisia litzateke, garrantzitsua den horretatik (lana eta eskola) kanpo geratzen den hori. Baina hala definitzea arazotsua gertatzen zaigu. Batetik, izendapen horren barruan oso izaera desberdina duten egitateak barne hartzera eramaten gaituelako: erlijio errituak eta haur-jolasak, parte-hartze politikoa eta kirola, turismoa eta jaiak. Bestetik, halako zehaztapenetan lana nozioak enpleguarekin eta produkzioarekin lotuta agertzen zaigulako, negozioarekin, eta ahaztu egiten dira, esaterako, feminizatutako zaintza lan ez ordainduak.

Aisia hainbat alderdietatik aztertu daiteke. Zenbait ikuspegitan norbanakoan jarri dute fokua. Joffre Dumazedier, adibidez, azpimarratzen du aisiak hiru funtzio dituela pertsonarentzat: atsedena, dibertsioa eta garapena.

*El ‘descanso’ libra de la fatiga. En este sentido, el ocio es reparador de los deterioros físicos o nerviosos provocados por las tensiones consecutivas al ejercicio de las obligaciones y particularmente del trabajo. (...) La otra función es la de ‘diversión’: Al igual que la anterior función libraba más que nada de la fatiga, ésta libera sobre todo del tedio (...) De ahí esta búsqueda de una vida de complemento, de compensación o de huida por el entretenimiento, la diversión, la evasión hacia un mundo contrario, al mundo de todos los días (...) Viene, en fin, la función de ‘desarrollo’ de la personalidad. Amplía los límites del conocimiento práctico del medio cotidiano y de la especialización del trabajo. Permite una participación social más amplia, más libre, y una cultura general del cuerpo, de la sensibilidad, de la razón, más allá de la formación práctica y técnica.
(1971:20-21)*

Horrelako ikuspegietan aisiak hiru dimentsio dituela aipatu izan ohi da: «leisure is initially examined as time, activity and experience (Wearing eta Wearing, 1988:111)».

1. **Denbora:** aipatu dugun moduan, aisialdia lanak edo bestelako beharrak betetzen ez duen denbora da; laneko betebeharretatik libre eta norberaren esku dagoena alegia. Kontzeptualizazio horren arabera, beraz, aisia eta denbora librea ez lirateke gauza bera. Aisiarako beharrezkoa da denbora librea, baina horrekin ez da nahikoa, laneko denboratik kanpo daukagun denbora guztia ez baita aisia.
2. **Bizipen subjektiboa:** aisia edozer gauza eginda ere aukeraketa autonomia, burutzapen librea eta gozamenarekin, atsedenearekin eta norberaren garapenearekin lotuta dauden behar pertsonalak asetzeko baliagarria izan behar du.
3. **Jarduerak:** aisiaren bigarren mailako elementu definitzaileak dira jarduera motak, baina oso kontuan hartzeko elementuak dira, ekintza zehatz batzuen bidez gauzatzen baita aisiaren bizipena. Edozer jarduera aisialdiko jarduera izan daiteke, betetzen duen denbora sozialaren arabera eta nagusitzen den jarrera subjektiboaren arabera. Hortaz, jardueraren edukia bera baino garrantzitsuagoa da ekintza bakoitzak pertsonarentzat duen esanahia eta denbora.

Hiru dimentsio horiek kontuan hartzen duen ikuspegian, beraz, aukera ematen digu aisiaz ari garenean zertaz ari garen nolabait zehaztea. Izan ere, aisiarekin lotuta dauden jarduerak eta aisiarekin lotuta ez dauden jarduerak (nahiz eta denbora librean burutu) bereizi ahal izango ditugu. Adibidez: zure lan jardunerako beharrezkoa den liburu bat irakurtzen pasa dezakegu asteburua baina, ziur aski, ez jarduerak, ez helburuak, ez bizipen subjektiboak ez dute gozamenarekin, dibertsioarekin edo atsedenarekin loturarik izango. Kasu horretan liburuaren irakurketa ez luke aisiaren jarrera subjektiboekin loturarik izango. Alderdi hau garrantzitsua zaigu haur, nerabe eta gazteen aisia lantzerakoan; eskolako zereginetatik kanpo geratzen zaien denbora guztia denbora libretzat hartu dezakegu, baina denbora tarte horretan gertatzen den guztia ez da aisia izango. Ingelesa ikasteko eskolaz kanpoko saioak, adibidez, nekez hartuko dituzte atsedenarekin eta gozamenarekin lotutako aisiatzat.

Baina subjektibitatean oso zentratutako ikuspegi horrek norbanakoaren arabera irakurketa egitera mugatzen da. Gure ustez, horrekin batera, interesgarria da azpimarratzea aisia (eta pertsonen bertan egiten dutena) oso lotuta dagoela testuinguru sozioekonomiko eta kulturalarekin. Jendarteetan gertatzen diren eraldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalak aldaketak eragiten baitituzte pertsonen denboraren erabilgarritasunean eta denbora horretan egiten diren jardueren esanahietan. Argi dago, egungo gizartearen egiturari aisialdiak oso paper garrantzitsua jokatzen duela. Egitate hori ulertzeko oso baliagarria zaigu soziologiatik aztertutako aisia sortzen diren botere harremanak. Pierre Bourdieu-k (1979), adibidez, aisia praktika sozial eta politikoko eremu gisa hartzen du. Bere ustez, aisia botere- eta erresistentzia-estrategiak hedatzen dira eta bereizitako gizarte-espazioak sortzen dira. Ideia horri jarraituz, esan dezakegu egungo jendarteetan, lanarekin batera, aisialdiko jarduerak gizartearen dugun kokapen sozialaz mintzo direla eta askotan estatus erakusle gisa erabiltzen direla. Ez da gauza bera, adibidez, neguko igande guztietan auzoko frontoian lagunartean aritzen diren nerabeen kokapena, edo, hiri berean bizi baina astebururo eskiatzera joaten diren nerabeena.

Ikuspegi soziokulturaletik ere, aisiak jendartea ulertzeko garrantzitsuak diren alderdiak ditu (Nogués-Pedregal, 2009). Emozioak publikoki eta kolektiboan adierazteko gunea da (kirol lehiaketa handietan, jai herrikoietan, musika jaialdietan...), baita eguneroko errutinaren presioaren ihesbidea (ikus-entzunezkoak, bideo jokoak, literatura...), eta, askotan, jendartearen ezarritako ordenari aurre egiteko gunea ere. Hau da, aisiak egungo jendartea eta kulturaren produkzioan, erreproduktzioan eta berrikuntzan protagonismo handia duen gertakaria da.

2.1.1 Egungo aisiaren gako gutxi batzuk

Nabarmena da, beraz, egungo jendarteetan aisiak duen protagonismoa. Aisiaren pedagogian lan handia egin duen Manuel Cuenca-k hala dio:

Con el desarrollo de las actuales sociedades tecnológicas, en cualquier parte de la tierra y en todas las culturas, el fenómeno del ocio ha experimentado un crecimiento y una incidencia social sin precedentes en la historia. El ocio de las generaciones pasadas no

fue un fenómeno tan significativo como lo es ahora.
(Cuenca, 2000:32)

Gertatutako hainbat aldaketa sozialek eragina izan dute aisiaren garrantzi horretan. Zenbait herrialdetan eman diren lan jardunen murrizketak ahalbideratu du enplegu orduetatik kanpoko denbora areagotzea. Horrekin batera, bizitza esperantza handitu izanak ekarri du erretreta hartu ondoren herritar asko denbora luzez eta osasunez bizi ahal izatea. Mugikortasun aukerak ere areagotu dira munduko zenbait hiritarrentzat, eta horrek turismoaren hazkundera ekarri du azken urteotan. Bestalde, kultur eta kirol praktiken instituzionalizazio prozesuak eta teknologien garapenak ere eragina izan dute aisia ulertzeko garaian eman den aldaketa sozialean.

Aldaketa horien ondorioz, gurean bezalako jendarteetan eraiki da aisia deskribatzeko eta bizitzeko forma zehatz bat. Deskribapen hori egiteko gako gutxi batzuk azpimarratu ditzakegu:

1. **Denboraren banaketa ez da hain argia:** esan dugun bezala, aisia lana egiten ez den denborarekin lotzea baino fenomeno konplexuagoa da. Gaur egun, gainera, zaildu da bi denbora horien artean bereizketa egitea, eta itxuraz datozen urteetan telelana areagotuko denez askoz konplexuagoa izango da denbora banaketa hauek egitea.
2. **Aisia guztiontzat?:** aisiaren inguruko ikasketetan askotan errepikatzen den ezaugarria da azken hamarkadetan aisiaz gozatzeko aukera demokratizatu izana. XIX. mendean aisia eliteen esku zegoen eta XX. mendean zehar langileek ere eskuratu dute denbora librean atseden hartzeko eta disfrutatzeko aukera. Kultur eta kirol jardueren instituzionalizazioak ere lagundu du prozesu horretan. Dena den, horrek ez digu ezkutatu behar aisiaren arloan ere desberdinkeria dela nagusi. Gorago aipatu dugun bezala, aisialdiko jarduerak jendartearen dugun kokapen soziala erakusten dute, eta kategoria sozialen arabera da denbora eta jardueretara dugun heltze maila: klase soziala, generoa, adina edo jatorriaren arabera. Bestalde, instituzionalizazioak ere hainbat traba sortu ditu herritarren parte hartze prozesuetan: zenbaitetan aisialdiko jardueren antolaketa herritarra murriztu ditu eta espontaneo edo kritikoak diren praktikei trabak jarri dizkie.
3. **Kontsumoari lotutako aisia:** bizitzaren beste eremuak bezala, aisia oso lotuta agertzen zaigu kontsumoari. Aisialdiko jarduerak geroz eta baldintzatuagoak daude erosketa prozesuarekin: erosketak egitea, adibidez, aisialdi jarduera ohikoa bihurtu da. Aspalditik mintzo gara kultura eta aisiaren industriari buruz eta salerosketa prozesurik gabeko aisialdi jarduerak gutxi garatzen dira.
4. **Esperientziei lotutako aisia:** denbora-pasa hutsetik aldendutako aisia garatu da azken urteetan. Ohikoa bihurtu da aisia deskribatzea eta baloratzea esperientzia anitzak bizitzeko gune eta une gisa. Horrek betetzen omen du zentzuz aisialdia: monotoniaren errutina eta asperduratik aldentzen duen esperientzia ezberdin bat bizi ahal izatea.

5. **Teknologien bidezko aisia:** XX. mendean zehar telebista bihurtu zen aisiaren elementu garrantzitsua eta XXI. mendeak bestelako pantailak gehitu ditu. Eredu digitalak erabateko presentzia dauka eguneroko esparru guztietan, eta aisialdian bereganatu duen protagonismoak aldaketa ugari ekarri ditu.

2.1.2 Haur, nerabe eta gazteen aisiaren esparruak

Egungo aisia ulertzeko zerrendatu ditugun gako horiek baliagarriak zaizkigu haur, nerabe eta gazteen aisiaz hitz egiteko. Zaila da, adibidez, zehaztea eskolatik aparteko zereginak deskribatzerakoan aisialdiaz edo ikasketa betebeharre lotutako denboraz ari garen. Haur eta gazteek, eskola orduak amaitutakoan, eskolatik aparteko zereginak egin behar dituzte: hizkuntzak direla, musika eta informatika direla, edo kirola eta aparteko eskolak direla. Horrek guztiak eskola denbora ez den eta aipatutako zereginetan aritzeko denbora ez den bestelako denbora murriztea ekarri du; antolatu gabeko denbora murriztea, alegia. Horrekin lotuta dago, haur eta nerabeen aisialdian azken hamarkadetan egon den aldaketa nagusienetako bat: kalean helduen laguntzarik gabe adinkideekin jolasteko edo egoteko gune eta uneen murrizketa.

Gauzak horrela, denbora banaketan ematen den indefinizio horrekin batera, gorago aipatu dugun aisiaren inguruan dugun zehaztapen faltak zaildu egiten du edozein motatako lanketa soziokulturala planifikatzea. Hizkuntza kontuetan ere aisiaz, aisialdiaz, eremu informalaz edo esparru ez-formalaz mintzo garenean oso esparru zabala eta indefinituaz ari gara. Ez baita gauza bera haur-parketako giroa, igande arratsaldeko herriko goxoki-denda inguruarena edo larunbat goizeko futbol zelaiko txapelketena. Hiruetan antzeko protagonistak topatuko ditugun arren, egiturak eta ezaugarriak arraz ezberdinak dira.

Zailtasun hauen aurrean, oso lagungarriak zaizkigu hain zabala den eremua antolatzeke proposatu izan diren sailkapenak. Gure ikerketetan *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan* argitalpenean (Berri-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000) jasotako eskema erabili izan dugu, tresna erabilgarria iruditzen baitzaigu esparru honen analisia egiteko. Lan horretan hiru esparru bereizten dituzte:

1. **Gune monitorizatuak:** haur eta nerabeen aisialdirako helduek propio sortutako jarduerak eta azpiegiturak dira. Normalean begiraleen edo entrenatzaileen ardurapean egoten dira. Halakoak dira kirola, kultura eta aisialdi taldeekin lotutako guneak: ludotekak, gaztetxokoak, udalekuak, kirol taldeak, dantza taldeak edo arte adierazpenekin lotutakoak (musika, margoketa...).
2. **Gune birziklatuak:** Haur, nerabe eta gazteen erabilera pribatua ahalbidetzen duten leku publikoetan egin ditzakete jarduerak dira. Nagusiki, herri eta hiriko kaleak, plazak, parkeak edo zenbait eraikinetako espazioak (merkataritza-guneak, atariak...) sartzen dira esparru honetan, baita, zenbaitetan erabiltzen diren hirigunetatik kanpoko espazioak: hondartzak, mendiko merenderoak...
3. **Berezko guneak:** Nerabe ta gazteek aisialdirako sortutako edo beraganatutako espazioak eta denborak dira. Batzuk eurek kudeatutakoak dira, gaztetxeak edo lokalak adibidez, beste batzuk

helduek kudeatzen dituzte: tabernak, kontzertu aretoak, dantzalekuak...

Esparru hauek guztiak oso garrantzitsuak dira haur, nerabe eta gazteen talde-identitatearen osaketarako eta ohikoa da hiru esparru horien arteko loturak estuak izatea. Askotan, adibidez, herriko futbol taldean dabilzan nerabeak entrenamenduetatik kanpo ere herriko kaleetan edo kirol gune irekietan baloiarekin aritzen dira, lokaletan elkartzeko direnean futboleko bideo-jokoetan aritzen dira eta herriko taberna batean ikusten dituzte futbol profesionaleko partidak.

Bestalde, berriro ere aipatu behar dugu azken hamarkadan guztion bizitzetan, baina gazteen artean bereziki, indarrez txertatu den laugarren esparru bat: **gune digitala**. Aurreko esparru horiek zeharkatzen ditu eta, askotan, on-line eta off-line munduak bereizten zaila egiten da. Egungo haur, nerabe eta gazteak Internetekin hazi dira, eta (aspaldi berriak izateari utzi zioten) teknologiak euren biografien muinetan txertatuta daude: gazteen ohituretan, pentsatzeko eta egiteko moduetan txertatuta daude (Hernández, 2020). Besteekiko loturetan sare sozial digital horiek garrantzi handia dute, batez ere aisialdian: katean, kirol eta kultura taldeetan, lokaletan eta bestelako guneetan ehuntzen diren sareak, sare birtualekin osatzen eta elikatzen dira. Carles Feixa-k proposatutako *Blade Runner* sindromearen gazteak (gaztaroaren XXI. mendean sortutako eredu berria) gizarteratzeko eredu birtual baten beharra dute (2011:108). Interneteko komunitate birtualaren agerpenarekin, gazteek ia derrigorrezkoa dute IKTen sarean murgiltzea, eta telefono mugikorra da horretarako tresna nagusia.

2.1.3 Egungo nerabeen aisia eta gazteen kontakizunak

Esparru horiek kontuan hartuta, beraz, egungo euskal nerabeen unibertsoan aisiak duen lekua eta forma errepasatuko ditugu. Gai hauekiko kezka aurretik landuta bagenuen ere, "Gu Gazteok" izeneko ikerketan³⁰ garai hartako nerabeekin sakontzeko aukera izan genuen. Orduan ateratako ondorio nagusiak labur-labur azaldu nahi ditugu aipatutako gune eta une horiei erreparatuz³¹. Hau egin eta gero, "D eredu kirola" egitasmoan zehar jasotako iritziekin osatuko dugu azalpena.

"Gu Gazteok" ikerketan ondorioztatu genuen gune monitorizatueta kirolak garrantzi handia duen praktika dela. Zalantzarik gabe, eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena da, bai praktikan, bai gazteen zaletasun aldetik ere. Adin honetako gazte gehienek kirol praktikaren bat egiten dute eta futbola da presentzia handiena duen kirola. Kirol praktikan mutil eta nesken artean joera ezberdinak

³⁰ Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea (2016) ikerketa 2015eko irail eta 2016ko otsail artean 12 eta 14 urte bitarteko ehun nerabeekin burutu zen euren egunerokotasuneko praktikak, identitateak eta bizipenak jasotzeko eta hizkuntzarekin harremanetan jartzeko. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailaren Euskara Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-atal Bereziaren eskariz egindako lan bat izan zen eta emaitzen txostena eskuragarri dago hemen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/liburua/gu-gazteok-laburpen-txostena-eta-lan-ildoen-proposamena-aurrera-begira-gu-gazteok-informe-resumen-y-propuesta-de-lineas-de-trabajo-de-cara-al-futuro/>

³¹ Aisialdi praktiken inguruko ondorio horiek berretsi ditugu nerabeekin egin ditugun beste hainbat ikerketetan Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan (2015), Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean (2016) eta D eredu kirola (2016-2018).

daude. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez da hain orokorra eta aniztasun handiago dago. Mutilei dagokionez, ia guztiek futbola praktikatzan dute eta batzuk, horretaz gain, beste kirolen bat ere egiten dute. Mutilek garrantzi handia ematen diote futbolari eta euren bizitzaren erdigunea da: entrenatzeaz eta partidak jokatzeaz gain, futbol profesionala jarraitzen dute, mugikorretan partiden emaitzak jasotzen dituzte, aisialdi tarteetan baloiarekin aritzen dira eta mutil arteko hizketaldien gai nagusia futbola da. Kultura jardueren presentzia apalagoa da. Jakin badakigu, musika, dantza edo bestelako adierazpen artistikoekin lotutako ekintzak egiten dituztela, baina euren aipamenetan gutxi agertzen dira. Aisialdi taldeen eta gazteleku moduko jardura antolatuen presentzia ere nahiko apala da.

Gune birziklatuei dagokionez ondorioztatu genuen 12 eta 16 urte arteko nerabeen artean kalea dela aisialdi ez formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa. Adin bereko gazteekin soilik konpartitzen dituzte espazio hauek, baina lagun-talde edo kuadrilla ezberdinek toki berean elkartzeko joera dute. Gazteen deskribapenetan espazio hauen deserosotasuna eta, zenbaitetan, asperdura ageri dira. “Egon” aditza asko errepikatzen dute eta egote horretan honelakoak aipatzen dituzte: hitz egin, argazkiak atera, mugikorrarekin aritu, gozokiak jan. Hala ere, mugimenduzko jardura batzuk ere ageri dira: baloi jolasak, musika entzunez dantza...

Berezko guneetan egoteko aukera txikia dute 16 urte arteko nerabeek. Taberna eta dantzalekuetan ezin dute sartu, eta lokalak edukitzeko gogoia adierazten badute ere, askoz ohikoagoa da gazte-lokalak edukitzea adin horretatik aurrera.

Azkenik, aipatu behar da gazteen aisialdian telefono mugikorren erabateko presentzia berretsi genuela. Bakarrik daudenean mugikorren bidezko interakzioa elkar komunikatzeko eta “egoteko” aukera ematen die. Taldean elkarrekin daudenean ere tresna hauen erabilera handia da eta hainbat funtzio betetzen dituzte: jolasteko, argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko, musika entzuteko, elkar-komunikatzeko, informatzeko...

Antzeko ondorioak ageri zitzaizkigun “D ereduko kirola” egitasmoan. Ikerketa horretan parte hartu zutenak kirolariak zirenez, esperokoa zen gazte hauentzat ere kirola jardura oso garrantzitsua izatea. Padurako saskibaloia taldeko neskek, adibidez, saskibaloia inguruan ematen zuten beraien denbora librearen gehiengo baina beste kirol praktikekiko zaletasuna ere aipatu ziguten:

Nik bueno, nahi dudanean, batzutan joaten naiz e...hori e... a nadar, joe! igeri egitera! Beste batzuetan ba pixkat korrika, joaten naiz bizikletaz... Igual Pagasarrira-eta, eta bai kirol asko egiten dut, generalen. Ez dut bakarrik saskibaloia... bueno! saskibaloira joaten naiz, baina joaten naiz astearte eta asteazkenetan, baina beste kirol batzuetara ez noa a unos días exactos, cuando pueda.
(Gazte kirolaria. Padura)

Real Sociadadeko gazteei futbola zen gehien interesatzen zitzaien jardura eta, aipatzen zutenaren arabera, aisialdi tarteetan futbolekin aritzen ziren (lagunekin jolasten eta partidak telebistan edo zuzenean ikusten). Zaramagako gazteek frontoian elkartzeko ohitura zuten baina tarteka futbolekin ere aritzen zirela jaso genuen. Asteburuetan lagunekin ateratzen zirela kontatu ziguten eta orduan mutilen artean bideo jokoei aritzea nahiko zabalduta zegoela zioten.

Kirol talde hauetan ia ez genuen topatu eskolaz kanpoko arlo kultural edo artistikoarekin zerikusia duen jarduerarik egiten zuenik³². Era berean, gazteen aisialdiaz ari garela esan behar da eskola, familia, aisialdi taldeak edota bestelako aisialdi antolatuari (adibidez "gazteleku" bezalako azpiegiturak) ez zietela kasik erreferentziarik egiten. Arreta eman zigun kontu bat eskolaz kanpoko ingeles ikasketen zabalkundearena izan zen. "D ereduko kirola" egitasmoan zehar elkarriketatutako ia gazte guztiek aipatu ziguten, kirolarekin batera eskolaz kanpo egiten zuten jarduera ingeles eskoletara joatea zela.

Aurreko ataletan, beraz, aisialdia esparrua zehazteko eta ezaugarritzeko saiakera egin dugu. Egungo aisiaren gako batzuk ere aipatu ditugu, eta haur, nerabe eta gazteen aisiaren esparruak zein diren sailkatu ondoren, azken bost urteetan gure ikerketetan gazteen kontakizunetan oinarritutako ondorio batzuk laburbildu ditugu egungo euskal gazteen unibertsoan aisiak duen lekua eta forma azaltzeko. Urrats berri bat egitea dagokigu orain: gure gizartean eta kulturen aisialdiaren esparru barruan garrantzi berezia duen kirola ezaugarritzea eta bertan kokatzea.

2.2 KIROLAZ ZEHAZTAPEN OROKOR BATZUK

Goiko lerroetan aisia zer den definitzea ez dela erraza esan dugu, ondoren, kontzeptua bera eta haren azpian dauden esparruak zehazten saiatu gara. Aipatu dugu, bestalde, haur, nerabe eta gazteen aisialdian kirolak hartzen duen protagonismoa. Kirola da, hain zuzen, "Euskara Kirolkide" ikerketa honen eremua, eta, hortaz, horri buruz ere zehaztapen batzuk egitea komeni dela uste dugu.

XXI. mendean kirolak duen gizarte izaera eta garrantzia nabarmena da eta, horregatik, gizarte zientzietan maiz 'gizarte egitate oso' gisa deskribatu izan da, gizarte baten erakunde guztiak mugimenduan jartzen dituelako. Baina kirola, aisia bezala, ez da erraz deskribatu dezakegun zerbait eta konplexutasun horrek arazoak sortzen dizkigu. Ramon Llopis soziologoak elkarriketa batean³³ zioen bezala "kirola entitate konplexu eta plurala da. Baina, hala ere, hitz bakar batekin definitzen dugu mundu oso bat; hori da arazoa".

Kirola ikuspegi ezberdinen arabera aztertu daiteke eta hala egin izan da: alderdi ekonomikoa edo politikoa, izaera pedagogikoa eta psikologikoa, garapen historikoa, alderdi mediatikoa, gizarte eta kultura dimentsioak... Kirola egungo gizartearen eta kulturaren osagai garrantzitsua da eta norbanakoen eta gizarte-talde biziaren eragina nabarmena du. Baieztapen horren inguruan adostasun zabala dagoen arren, ez da erraza izaten kirola definitzeko eta ezaugarritzeko iritzirik partekatutak topatzea. Hauek lirateke kirola definitzeko emandako proposamen gehienetan ageri diren lau osagarriak: egoera motorea (giza mugimenduen agerpenak), lehiaketa (marka bat edo aurkari bat/batzuk gaingitzea), instituzionalizazioa (erakunde ofizialak, federazio, elkarten artean antolatua) eta ludikotasuna (dibertitzea).

³² Gutxi agertzearen arrazoiak jarduera indibidualak izatea edo "nesken gauza" bezala identifikatutako jarduerak izatea egon daitezke. Azkenengo kasuan mutilek –kultur eremuan aritzen direnak– ez aitortzeko joera izango dute eta, neskei gehiago kostatuko zaie horretaz hitz egitea, besteak beste, kirolak bereganatzen duelako protagonismoa taldekako elkarriketetan.

³³ Berria egunkarian egindako elkarriketa honetan, hain zuzen:
<https://www.berria.eus/paperekoa/1845/032/001/2018-05-02/hitz-bakar-batekin-definitzen-dugu-mundu-oso-bat-hori-da-arazoa.htm>

Joxan Unsain-ek egindako azterketari jarraituz (2011) honela definitutako kirol-jarduera fisikoaz mintzatu gaitezke: «kirol parte-hartze antolatu eta askearen bidez ematen den eta helburu gisa gorputzaren eta buruaren sasoia hobetzea, aisialdian dibertitzea, harreman berriak sortzea edo emaitza lehiakorak eskuratzea duen jarduera fisiko oro (2011:222)».

Definizio horretatik abiatuta, egungo kirolak duen izaera bikoitzaz konturatzen gara: alderdi ludikoa (aisialdian dibertitzea) eta alderdi agonistikoa (lehia). Batzuetan bi alderdi horiek oso ezberdinak agertzen zaizkigu ia bi kirol-esparru bereiztuz: «Alde batetik ikuskizuneko kirola legoke, bikaintasuna eta kirol arrakasta bilatzen duena (Unsain, 2011:237)» eta bestetik olgetakoa genuke. Horiekin batera, eta askotan osagarri, hirugarren esparru bat genuke, definizioan agertzen diren beste bi helburuak sartu daitezkeenak: gorputz-sasoia hobetzea eta harremanak sortzea. Nolabait, pertsonaren garapen fisikoa eta sozialarekin lotuta agertzen zaigu esparru hori haur eta nerabeen kasuan heziketa alderdia litzateke.

Baina lehia eta ludikotasuna ez dira alderdi antagonikoak. Esan daiteke ia kirol-jarduera fisiko guztietan, modu batean edo bestean, biak batera ematen direla. Hori bai, kirol antolatzaile eta kudeatzaileen arabera kirol-praktika alderdi batean ala bestean kokatu daiteke, errendimendua eta lehia erabat lehenetsiz eta ondo pasatzeari inolako garrantzirik eman gabe, adibidez. Hori da, azken finean, haur eta nerabeen kirolaren inguruan azken urteetan sortu den eztabaida nagusia, eta adin horietan kirol-praktikak arautzeko eta sailkatzeko erabili izan diren ezaugarriak.

Bada kirolaren inguruan aipatu izan dugun beste alderdi korapilatsu bat: gehiegitan gizarte gatazka eta eztabaidetatik at dagoen egitate gisa erakutsi nahi izaten da. Ikuspegi horren arabera, kirolak gizarte-balio “ideal” batzuk ordezkatzeko lituzke edo ordezkatu beharko lituzke. Xabier Medina eta Ricardo Sanchez antropologoen ustez (2003), ordea, kirola gizartean dominanteak diren balioetan murgilduta dago eta haien arabera eraikitzen da, baina, era berean, balio sozial horiek berformulatzen ditu, berriak sortuz eta gizarteari emanez.

Carmen Diez-ek Euskal Herrian egin izan dituen ikerketa etnografikoetan argi erakutsi izan digu gure gizartean kirola gizarte arrakasta eta protagonismoarekin lotuta dagoela: kirolak, eta batez ere futbolak, ordezkatzeko duen mundu horrek erreferentzia eta legitimazio gisa jarduten du gizarte-egituran oso garrantzitsua den sozializazio espazio zehatz bat mantentzeko (2003).

Kirolak, beraz, gizarte-izaera bikoitza du. Batetik gizartean dominanteak diren balioen arabera eraikitzen da, bestetik, balio sozial horiek berformulatzen ditu, berriak sortzen ditu eta gizarteari transmititzen dizkie. Identitatearen esparruan ere antzeko zerbait gertatzen da: kirolak identitateak islatzen ditu eta identitateak sortzen ditu. Egungo gizarte posmodernoa kirola identitate gune funtsezkoa da. Kirola ispilu moduan uler daiteke, gizartean dauden identitateak islatzen dituen, baina era berean identitate berrien katalizatzaile boteretsua da (Feixa, 2003). Xabier Medina eta Ricardo Sanchez-en ustez konpetizio-kirolak beti ordezkaria dakar berekin (2003). Horren arabera kirol-ekintzaren ezaugarri funtsezkoena identifikatzeko gaitasuna litzateke: jokalarien, jarraitzaileen eta ikusleen berehalako inplikazio afektiboa. Hala, kirolaren bidez lurralde edo kultura batekin lotura identitarioa eraikitzen da.

Laburbilduz, beraz, kirola ‘gizarte egitate osoa’ gisa deskribatu daiteke. Jendarte arrakasta eta protagonismoaren balioekin lotuta dagoenez, sozializazio-erreferentzia nagusia denez, identitateak sortu eta bersortzen dituen eta jendarte baten instituzio guztiak mugimenduan jartzen dituen, argi dago kirola erakunde publikoen eta gizarte mugimenduen ekimen arloa dela. Planifikatu eta arautu egiten den arloa da eta gizarte bakoitzaren behar, diskurtso, balio eta ezaugarriak egokitu behar da. Hizkuntzaren ikuspegitik ere antolatu beharreko arloa dela uste dugu, hala ez egiteak bestelako hizkuntza planifikazioak ekartzen baititu.

2.2.1 Nerabe eta gazteen kirol praktikak: datu gutxi batzuk

Haur eta nerabeen arloan kirol-jarduera fisikoak garapen handia izan du XIX. mendean gorputz hezkuntza Mendebaldeko herrialdeen eskolako irakasgai gisa txertatu zenetik. Azken hamarkadetan, gainera, aurrerapen eta proposamen berri ugari nabarmendu daitezke, bai eskola barruan garatzen den gorputz hezkuntzan, baita eskolaz kanpoko jarduera fisikoaren eremuan ere. Eskaintza eta kirol aniztasuna handitu dira, kirol-praktikekin lotutako materiala eta instalazioak hobetu dira eta gizarte-diskurtsuetan eta iruditegian kirol-jarduera fisikoaren praktika ezaugarri positiboekin lotuta ageri da. Hori dela eta, nerabeen artean kirola egitea aisialdiko aukera oso garrantzitsua bihurtu dela esan daiteke.

Hala adierazten dizkigute lehenago aipatu ditugun nerabeekin egindako ikerketa etnografikoen datuek, eta hala baieztatzen da ikerketa kuantitatiboetan ere. Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera, adibidez, Euskal Erkidego Autonomoan 15-29 urte bitarteko lau gaztetik batek (% 24) egunero egiten du kirola, eta beste laurden batek (% 25) astean hiru edo lau egunetan egiten du kirola. Esan dezakegu, beraz, gazteen erdiak maiztasun handiz kirola egiten dutela. 15-19 urteko nerabeen artean kopuru handitu egiten da, %55k astean hirutan gutxienez kirola egiten dutela aitortzen baitu (Eusko Jaurlaritzak, 2017).

Ikerketa horretan emandako datuetan joera orokor batzuk nabari dira:

- 1) Kirol-jarduera fisikoa egiteko joera handitzen ari da. 2012an Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean %25k zioen kirola egiten zuela astean behin edo birritan eta %40k astean hirutan baino gehiago egiten zuela. Lau urte geroago, 2016an, %22k zioen kirola egiten zuela astean behin edo birritan eta %49k astean hirutan baino gehiago egiten zuela.
- 2) Generoaren arabera diferentziak nabarmenak dira. Maiztasun handiz (astean hirutan baino gehiago) kirola egiten dutela adierazten duten mutilek %60 dira, neskak ordea %37 dira. 2012tik eman den gorakada nesken eta mutilen artean gertatu denez desberdintasuna bere horretan mantendu da: neskak %30etik %37ra, mutilak %50etik %60ra. Era berean, diferentzia nabarmenak topatu ditzakegu batzuk eta besteak egiten dituzten kirol espezialitateetan. Esanguratsuak dira, batez ere, futbola eta musikarekin edo koreografiarekin erlazionatutako jardueren datuak. Mutilen %34k adierazi dute sarrien egiten duten kirola futbola dela, baina nesken %4k baino ez dute futbola aipatu jardueraren nagusitzat. Bestalde, emakume gazteek gizonek baino hein handiagoan aukeratu

dituzte aerobika, zumba edo gimnastika erritmikoa bezalako jarduerak: nesken %12 eta mutilen %1.

- 3) Jarduera fisikoa gutxitu egiten da adinarekin batera: %55 dira 15-19 urte dituztenen artean maiztasun handiz kirola egiten dutenak, %49 dira 20-24 urte bitartekoak eta %44 25-29 urte artekoak.

Kirola, beraz, egungo gazteen bizitzan garrantzi handia hartzen duen esparrua da. Biztanleria orokorrarekin alderatuz gazteek kirol gehiago praktikatzen dutelako, gazteen %71k kirola egiten du gutxienez astean behin. Ehuneko hori EAEko 15 urteko eta gehiagoko biztanleria orokorrerako batez bestez erregistratutakoa (%46,9) baino handiagoa da, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako datuen arabera³⁴. Eta ez dugu ahaztu behar kirolaren garrantzi soziokulturala ez dela soilik praktika aktiboaren bidez neurtu behar. Gorago aipatu dugun moduan, egungo kirolaren ikuskizun izaerak indar handia du eta, kirolik praktikatuta gabe ere, gazte (eta helduen) askoren aisialdian kirola da jarraitzen duen jarduera nagusia.

2.3 EUSKARA GAZTEEN AISIALDI ETA KIROL PRAKTIKETAN

Ikerketa soziolinguistikoen datuek argi adierazten digute azken hamarkadetan euskararen indarberritze prozesua eman dela. Lurralde eta eremu guztietan ez da modu berean gertatu, eta zenbait esparruetan aurrerakada izan dena beste zenbaitetan atzerakada izan da, baina oro har esan dezakegu euskara 'zaharren hizkuntza' izatetik 'haur eta gazteen hizkuntza' izatera pasa dela. Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dago. Horrela, gaur egun 16 eta 24 urte bitartekoek erdia baino gehiago euskaldunak dira(%55,4); 1991n, aldiz, ez ziren laudenera iristen (%22,5).

Adinaren datuak oso lotuta daude hezkuntza sisteman azken hamarkadetan euskararen ikasketaren alde egin den lanarekin. Lehenago aipatu dugun moduan, esan daiteke hezkuntza dela euskarak duen arlo indartsuena: ikasle gehienentzat eskola da eremurik euskaldunena, eta haietako hainbatentzat euskaraz aritzeko aukera eskaintzen dien bakarra. Baina eskolak berak hain baikor ez diren hainbat zantzu ematen dizkigu. Eusko Jaurlaritzak maiztasun handiz egiten duen Arrue Ikerketaren txostenean ikus daitekeen moduan (2018), 10 eta 14 urteren artean jatsiera nabarmena ematen da euskararen erabileran, eta aldaketa hau, batez ere, ikasgelatik kanpoko adinkideen arteko harremanetan gertatzen da. 2011, 2013 eta 2015ean egindako neurketetan patroia bera topatu dute LMH4ko eta DBH2ko ikasleen artean:

Ikaskideekin gelan egiten den euskarazko erabileran erabateko aldea dago bi ikasmailen artean: LMH4koek nagusiki euskaraz egiten duten artean, DBH2koak gehienbat gaztelaniaz aritzen dira. Ikaskideekin jolaslekuan, aldiz, bi ikasmailetan joera nagusia gaztelaniaz aritzea da, baina ez neurri berean: gazteen euskarazko erabilera %40,9koa da eta DBH2koena aldiz %23,6koa. (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, 2018:10)

³⁴ Espainiako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2015): Encuesta de Hábitos Deportivos 2015.

Batetik, beraz, 12-14 urteko nerabeen artean hizkuntza mudantza ematen da, euskara gutxiago erabiltzen dute. Prozesua aurretik abiatzen bada ere adin honetarako finkatutako egitatea da. Eta, bestetik, nerabeekin egin ditugun ikerketa kualitatiboetan ondorioztatu dugunez, gazteen arteko egoera komunikatiboetan nahasketa ageri da. Nahasketa horretan, batez ere, gaztelania eta euskara nahasten dute. Euskararen eta gaztelaniaren arteko alternantzia, beraz, ohiko praktika da; gazte-hizkera horrelakoa dela esan daiteke eta gazteentzat «normal» hitz egitea euskara eta gaztelania nahasten hitz egitea da. Nerabeen artean ohikoagoa da eta onartuago dago alternantzia erabiltzea euskara hutsean aritzea baino: informaltasun handiagoa ematen die. Horregatik, lagunarteko hizkeran, ia beti, modu elebidunean hitz egiten da, eta interferentziak gehienetan gaztelaniatik euskarara gertatzen dira.

Horrekin lotuta dago Arrue ikerketaren beste ondorio interesgarri bat: ikasgelatik jolastokira euskararen erabilera jaisten dela. LHM4ean ikasleen arteko gela barruko harremanetan %68,2 euskaraz da, jolaslekuan, aldiz, %40,9. DBH2ko ikasleen artean %38,3koa da euskaraz gela barruan eta %23,6koa jolaslekuan. Maiz errepikatu izan den bezala, harreman informaletan euskararen presentzia gutxitzen da.

Eskola eremutik kanpo, beraz, euskararen presentzia nabarmen egiten du behera. Aisialdi eremuaren zabaltasuna eta aniztasuna dela eta, zaila suertatzen zaigu eskola eta familia esparrutik kanpoko eremu horren hizkuntza praktiken ‘argazki finko’ bat ematea, baina, euskararen biziberritze lanean aritzen diren pertsonen pertzepzioez gain, badugu interesgarria iruditzen zaigun datu bat: eskolaz kanpoko jarduera antolatuetako hizkuntza erabilerak haur eta nerabeen euskara erabileran eragin handia du. Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak zeren arabera eta nolatan aldatzen diren ezagutzeko Arrue Proiektuak ikasleen hizkuntza-erabilerak beste hainbat aldagairekin dituzten loturak aztertu izan ditu eta gure ustez oso adierazgarria den honako ondorio hau ateratu du:

Aztertutako aldagai guztien artean LMH4ko ikasleen eskolako erabilera orokorrarekin loturarik sendoena duen aldagaia irakasteredua da, eta jarraian datoz erabilera eskolaz kanpoko jardueretan, irakasleen erabilera haien artean, hizkuntzekiko begikotasunak (Eus/Gaz) eta eremu soziolinguistikoa (edo ikastetxea kokatuta dagoen udalerriko euskaldunen proportzioa). DBH2n erabilera eskolaz kanpoko jardueretan aldagaia da eskolako erabilera orokorrarekin lotuen agertzen dena eta irakasteredua bigarren; ondoren datoz etxeko erabilera, irakasleen erabilera haien artean eta eremu soziolinguistikoa.
(Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila, 2018:11)

Argi ikusten da eskolaz kanpoko hizkuntza-giroak haur eta nerabeen euskararen erabileran duen eragina handia dela. Oso adierazgarria da DBH2ko nerabeen artean eskolaz kanpoko jarduerak garrantzia handiena duen aldagaia izatea. Eskolaz kanpoko jarduera antolatuen artean kirola denez garrantzi handia duen ekintza multzoa, zentzuzkoa dirudi pentsatzea kirol arloko hizkuntza-praktikek zeresan handia dutela nerabeen hizkuntza erabilera orokorrean. Ildo beretik, logikoa dirudi jarduna euskaraz izango duen kirol-aisialdi antolatu bat eratzeke lanketa egitea. Horretan ari gara “Euskara Kirolkide” egitasmo honetan, eta horretan aritu ginen

aurreko urteetan "D ereduko kirola" proiektuan. Ikus ditzagun, hortaz, egindako lanketa horretatik ondorioztatutako bi ideia nagusiak.

2.4 AISIALDIA ETA KIROLA, AUKERA GISA: ESKOLA/FAMILIA ETA KALEAREN ARTEKO ZUBIA

"D ereduko kirola" egitasmoaren amaieran kirola eskola eta kalearen arteko zubia edota bitartekaria izan zitekeela planteatu genuen. Ideia bera mantetzen dugu egun eta, "Euskara Kirolkide" proiektuan aukera hori lantzeko eta garatzeko asmoa dugu. Hizkuntza kontuetan, aisialdiak orokorrean, eta kirolak bereziki, eskolaren ereduaren errepikapena izan beharrean berezko eredu landu dezakeela pentsatzen dugu eta proiektu honek bide horretan aurrerapausuak ematen lagundu nahi du. Gainera, uste dugu, kirol eremuetatik kanpo, euskararen biziberritze prozesurako ere pizgarri izan daitekeela.

Kirola hirugarren espazio gisa irudikatzen dugu: *Third Space*. Hainbat egilek - Cristina Aliagas (2017) eta Kris Gutierrez (2008), besteak beste - hirugarren espazioa kalea eta eskolaren artean dagoen edo sortu daitezkeen eremuak izendatzeko erabili dute. Hirugarren espazioa bi espazio berezitu hauen arteko egoera liminalean dago eta bateko eta besteko ezaugarriak ditu: kalea eta helduek gidatutako gune baten artean; formaltasuna eta informaltasunaren artean; jerarkia eta horizontaltasunaren artean... Hizkuntzari dagokionez ere hirugarren espazioa gune liminal batean kokatzen da bateko eta besteko hizkuntza ezaugarriak (formala eta informala) elkarlotuz eta aukera berriak sortuz: guneak hizkuntzen erregimen ezberdinak negoziatuak eta berpentsatuak izateko.

"Euskara Kirolkide" proiektuak kirola hirugarren espazio gisa dituen ezaugarriak eta baldintzak ikertu nahi ditu, gure ustez izaera berezi horrek babesgune izateko aukerak ematen dizkiolako edota babesgune izateko aukerak indartzen dituelako.

Oraingoz eta, "D ereduko kirola" egitasmotik ateratako ondorioetatik tiraka, hauek dira kirol esparrua hirugarren espazio gisa bete ditzakeen zenbait funtzio:

- Eskolako lanari eutsi (hizkuntz) aukera berriak sortuz.
- (Kaleko) informaltasuna, bizitasuna..., talde arauetara bideratu.
- Taldea indartu hiztunak ahalduntzeko.
- Talde izaera eta talde hizkuntza: adostua eta landua.
- Heldu (entrenatzaile) eta gazteen arteko (hizkuntz) elkartrukea.
- Ardurak eta protagonismoak banatu, taldea eraiki, hizkuntz ikuspuntutik ere.

Kirolak eta jokoak misio bikoitza jokatu dezakete hizkuntzan eta soziolinguistikaren berrikuntzan. Batetik, jokabide berrien esperimentaziorako arloa izan daitezke eta, bestetik, formatu berri baten bidez hizkuntz-kultura berri baterako egitura eskaini dezakete: gazteen arteko (hizkuntz) ohitura, jokaera, praktika, etabar., berritzeko edota egokitze hizkuntz-kultura bat. Behin eta berriro errepikatu dugu kirol esparruari atxikitzen zaizkion ezaugarriak egungo gizartean oso garrantzitsuak direla: ludikotasuna, lehia, gorputz-sasoia hobetzea eta harremanak sortzea.

Hortaz, pentsa dezakegu kirolean garatzen dena gizarte eta kulturaren eragin handia izango duela. Horrek esan nahi du kirol esparrua aukera edo mehatxua izan daitekeela euskararentzat. Gakoa hizkuntza helburuak kirol eremura moldatzean eta egokitzean datza.

Hain zuzen ere, moldaketa lan horren traza batzuk eskainiko ditugu datozen ataletan. Izan ere, hizkuntza kirol eremuan lantzeko orduan oinarria eta zutabeak diren ideiak eta nozioak azalduko ditugu. Hauek hiru ardatzetan antolatu ditugu eta ardatz bakoitzak kontzeptu bat edo batzuk kokatzen ditu erdigunean. Lehenengoan praktika-komunitatearen nozioa litzateke funtsezkoa. Jarraian ikusiko dugunez, praktika komunitatea, kirol taldeari egiten dio erreferentzia, hau da kirolari gazteen taldea denari. Bertan entrenatzaile eta kirolkideak biltzen dira eta hor gauzatzen da kirol zein hizkuntz praktika gehienak edo denak. Gure iritziz, kirol taldea, praktika komunitate gisa hartuta, ikerketarako eta, batez ere eskuhartzerako lur oso emankorra litzateke.

Hurrengo ardatza hizkuntza sozializazioarekin dago lotuta. Behin praktika komunitatea definituta eta ezaugarrituta, barruan gertatzen diren dinamiketan sakondu beharko litzateke. Kasu honetan, hizkuntza sozializazioarekin lotutako prozesuak eta mudaren nozia garrantzitsutzat jotzen ditugu baina baita ere, euskal testuinguruan une honetan gogoetagai diren beste elementu batzuk ere. Esate baterako, hiztun berriaren nozioa eta hizkuntza-ideologia. Azken kontzeptu hauek lantzea eta kontuan hartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu euskal hiztun gazteekin lana egiteko orduan. Hiztun horien profilaz kontzientea izan behar gara egun, gizartean, hizkuntzen inguruan zirkulatzen diren diskurtso ezberdinekin izan behar dugun moduan. Diskurtso horiek haintzat hartu beharko ditugu, gazteen mudak bultzatu nahi baditugu, egun hizkuntz ohiturak aldatzeko orduan, gako bat egon daitekeelako diskurtso, erreferente, irudi eta eredu berriak sortzeko.

Azkenerako utziko dugu "Euskara Kirolkide" proiektuan abiapuntu gisa izandako nozioa edo kontzeptua: babesgunea. Kasu honetan babesgunea kirol taldea eta finenean, kirolari gazteak barnebiltzen dituen giroa eta egitura litzateke. Batez ere, klubaz ari gara hitz egiten. Eta horrela dokumentu honi amaiera emango diogu hurrengo fasean izango diren protagonistekin: kirol taldeak, entrenatzaileak eta kirolari gazteak antolatzen eta zaintzen duen egiturarekin hain zuzen ere. Zehazki, kirol esparruak eta, bereziki, kirol klubak (euskararen) babesgune izateko eskaintzen dituzten aukeraz mintzatuko da. Eta azken atal horretako ideak izango dira, hain zuzen ere, proiektuaren hurrengo faseari hasiera emango diotenak. Modu horretan ate bat ixteak beste bat irekitzea ekarriko du.

Jarraian beraz, goian aipatutako hiru lan ildoei eskainiko zitzaien tarte bat, hurrunez urrun: praktika-komunitatea (3. puntua); hizkuntza sozializazioa, mudantza eta hiztun berriak (4. puntua), hizkuntza-ideologiak (5. puntua) eta amaiera edo ondorio gisa, babesgunearen nozia (6. puntua).

3 HITZ EGITEA TALDE LANA DA: PRAKTIKA KOMUNITATEAK ETA HIZTUN GAZTEAK

Praktika-komunitatearen kontzeptua lantzen hasteko, “D ereduko kirola” egitasmoan parte hartu zuten hiru gazteen kasuak hartuko ditugu abiapuntu gisa.

Elkarriketatu genitunean Leok, Josebak eta Amaiak³⁵ 13 urte zituzten. Hirurek “D ereduko kirola” proiektuan parte hartu zuten, euren taldekideekin batera. Joseba pilotan aritzen zen Gasteizko Zaramaga taldean. Leo ezagutu genuenean lehenengo urtea zuen Real Sociedad futbol taldean. Amaiak saskibaloian jokatzen zuen Arrigorriagako (Bizkaia) Padura kirol taldean.

Hirurak hiztun berriak dira. Gaztelera da ohiko hizkuntza euren familia giroan eta euskara eskolan ikasi dute. Euskal Herrian gazteen artean zabaldua dagoen hizkuntz profila dute. Izan ere, EAEn bederen, haur, nerabe eta gazte gehienak hiztun berriak dira gaur egun. Hezkuntza ereduak, edota murgiltze sistema eratu zenetik (1983), gero eta gehiago dira D ereduan ikasten dutenak eta, nagusiki, horren eraginez handitu da hiztun berrien kopurua:

*1991an euskaldun gehienak adin-tarte guztietan natiboak ziren euskaldun zaharrak. Hamarkada bi geroago, 2011n, berriz, hiztun berriek osatutako taldea oso garrantzitsu bihurtu da, batez ere gazteen artean. 16-24 adin tartearen biztanleriaren %60 euskalduna da, eta haietatik erdia baino gehiago hiztun berriak, gehienek murgiltze-erdutetan ikasitakoak.
(Ortega et al. 2016: 16)*

Edozein kasuan, euskara ikasteak ez du esan nahi erabiltzea, ez behintzat eskolatik kanpo. Jada behin baino gehiagotan ekarri dugu ideia hori txosten honetara: egun ikasle gehienek euskara ikasten badute ere eta euskaraz ikasten badute ere, bere erabilpen soziala (kalekoa, lagunartekoa) apala dela esan daiteke. Behintzat ez da espero bezain handia edo nabarmena. Orain dela lau hamarkada zeuden aurreikuspenak ez direla bete somatzen da. Eta neurri batean edo bestean hutsegite horren ardura gazteei egozten zaie, kasu batzuetan hiztun legitimoak direnik zalantzan jarritz (Ortega et al. 2015, 2016; Urla et al., 2017, Amorrortu et al., 2017, Goirigolzarri et al. 2019; Artetxe, 2020). Egoera hau ez da soilik Euskal Herrian ematen. Are gehiago, esan daiteke hizkuntz gutxituen testuinguru ezberdinetan nahiko ohikoa dela (Ramallo, 2018; Costa, 2015; Hornsby, 2015; Jaffe, 2015; Pujolar & Puigdevall, 2015; Mosquera, 2019; Moralejo & Ramallo, 2019; O'Rourke et al., 2019; Padín, 2019; Puigdevall et al., 2019).

Dokumentu honetako beste atal batean legitimazioaren nozioa eta horren ondorioak landuko direnez, ez dugu orain horretan sakonduko. Aldiz, marko horretan kokatuta, gazteen artean (hiztun berrientzat bereziki, baina ez haientzat soilik) euskararen erabilera areagotzeko eta zalbatzeko moduak eta estrategiak bilatzeko saiakera egin nahi dugu. Behintzat, bide horretan ekarpen xume bat egin nahiko genuke. Horretarako gure proposamena praktika-komunitatearen noziak eskeintzen dituen aukeretan murgiltzea litzateke. Praktika-komunitatearen kontzeptua, eta, zehazki kirolarekin lotutako praktika-komunitateak izango dira protagonistak,

³⁵ Konfidentzialtasuna babeste aldera, testuan erabiltzen diren izenak ez dira errealak.

hauek hizkuntz mudantza eragiteko/egiteko gune eta testuingurua aproposak direlakoan gaudelako.

Jarraian nozio horren esanahia eta ezaugarriak azalduko ditugu, eta, ondoren, "D ereduko kirola" proiektuak horren inguruan utzitako hainbat gako aurkeztuko ditugu, "Euskara Kirolkide" egitasmo berrirako baliagarriak izango zaizkigunak.

3.1 PRAKTIKA-KOMUNITATEA: HIZKUNTZA ESPERIENTZIEN "LURRA"

Goian, Leo, Joseba eta Amaia, hiztun berri bezala aurkeztu ditugu. Beti ere, Bernadette O'Rourkek, Joan Pujolarrek eta Fernando Ramallok kontzeptuaren inguruan ematen duten definizioa oinarritzat hartuta:

The "new speaker" label is used here to describe individuals with little or no home or community exposure to a minority language but who instead acquire it through immersion or bilingual educational programs, revitalization projects or as adult language learners. (O'Rourke, Pujolar eta Ramallo, 2015:1)

Hau gure abiapuntua litzateke baina, hiztun berriak aipatzearekin batera, nozioak biltzen duen konplexutasuna azpimarratu nahiko genuke. Adibidez: Leok baditu gertuko ezagunak euskara familian ikasi dutenak eta egunerokotasunean erabiltzen dutenak. Joseba eta Amaia kasuan aldiz, zailagoa da euren ezagunean artean horrelako profila duten hiztunak topatzea, esate baterako, eskolatik kanpo euskaraz bizi direnak.

Hizkuntza gakoa da hiztuna definitzeko: zein da hiztun natiboa eta zein ez, zein da hiztun berria... Hizkuntzaren ezagutza, erabilpena, edota hizkuntzarekiko motibazioa hiztunak definitzeko gakoak dira. Baina norbanakoaren gainean ezarritako "etiketa" hauek traba izan daitezke egoera soziolinguistikoa ulertzeko. Leok duen (hizkuntz) testuingurua ez da Amaiak edo Josebak dutena; eta testuinguru horrek aukera gehiago ematen dizkio Leori euskaraz aritzeko eta, besteak beste, bere gaitasunak praktikan jartzeko eta hobetzeko. Azken finean, pertsonok hiztun bilakatzen gara elkareginez, harremanen eta taldearen bidez. Egunerokotasunean partekatzen ditugu jarduerak norbanakoaren hizkuntz praktikak baldintzaten dituzte, era bateko edo besteko hiztuna bilakatuz. Eta beti, taldean, partekatzen ditugun praktika horietan eta horien bitartez. Hori dela eta, uste dugu praktika-komunitatearen nozioa hiztunak, bere egunerokotasunean, taldean, sortzen, eratzen edo moldatzen dituzten subjektibitateak ulertzeko tresna eraginkorrenetarikoa dela.

Guretzako praktika-komunitatea harremantzeko espazio bat da, zehazki; gizarte-lurra, ikerketa-gunea, hain zuzen ere.

Metodologikoki, praktika-komunitateak hiztun berrien azterketa ahalbidetzen du, izan ere praktiken azterketaren bidez, pertsona eta gizarte egituraren artean ematen diren hizkuntz dinamikak antzemateko aukera izango genuke (Hernandez, 2008). Zentzu horretan, Penelope Eckerten proposamena dugu abiapuntu gisa, bere ustez praktika komunitatea "habitus"erako lurra edota oinarria delako ("the grounded locus of the habitus"): «communities of practice are fundamental loci for the experience of membership in broader social categories (Eckert, 2006:684)».

Modu honetan, Leo, Joseba eta Amaiaren sozializazio prozesua(k) egunerokotasunari eta parte hartzen duten praktika-komunitate ezberdinei lotuta agertzen d(ir)a. Leo, Joseba, Amaia eta bere taldekideentzat (hiztun berri izan ala ez) euren praktika-komunitatea "grounded locus" bat da: hizkuntza ikasteko, praktikatzeko eta, horrela badagokio, mudantza egiteko lekua.

Praktika-komunitatearen nozioa Jean Lave eta Etinne Wengerrek sortutakoa da. Ikaskuntza sistema eta ezagupenaren transferentzia aztertzen ari ziren, bai enpresa munduan (1991) bai hezkuntza eremuan (Wenger, 1998). Gero Penelope Eckert eta Sally McConnell-Ginetek (1992) egokitu zuten, euren etnografia eta hausnarketa antropologikoetan erabili ahal izateko. Egile hauek horrela definitzen dute praktika komunitatea:

(...) a CofP is an aggregate of people who, united by a common enterprise, develop and share ways of doing things, ways of talking, beliefs, and values –in short, practices. A CofP can develop out of a formally or informally constituted enterprise (...). Once launched, it has its own life and develops its own trajectory. The development of shared practices emerges as the participants make meaning of their joint enterprise, and of themselves in relation to this Enterprise.
(Eckert & McConnell-Ginet, 1992:464)

Kontzeptu honen erdigunean praktika dago, pertsonok egiten dugun hori. Jardun horretan taldekide izateko gogoia eta grina adierazten dugu, taldearekiko inplikazioa agerian utziz. Janet Holmes eta Miriam Meyerhoffek dioten moduan, praktika komunitateak bereziki erakargarriak dira ikerketarako, pertsonak komunitate zehatzen parte izateko prozesuan hizkuntzek duten garrantziaren erakusle hio direlako. «(...) becoming a member of a CofP interacts with the process of gaining control of the discourse appropriate to it (Holmes eta Meyerhoff 1999,175)». Modu honetan, hizkuntza hiztunaren bitartez ikertu dezakegu, hizkuntzaren hipertrofiara iritsi gabe, hau da hizkuntza egunerokotasunean duen garrantzia gainbaloratu gabe.

Bestalde, praktika komunitate kontzeptuak testuingurua kontuan hartzeko deia egiten digu. Joan Pujolarrek dioten moduan: «la focalización en el contexto ha llevado a construir el concepto de CofP que permite la reconceptualización de la noción "comunidad de habla" de manera que enfatiza su situacionalidad, la contingencia de sus límites y su carácter construido (Pujolar, 2007:08)». Azken finean, hizkuntza eta hizkuntza praktikak denbora eta espazio jakin batean gertatzen dira eta hori bereganatzen dute, bereziki, zentzua. Denbora-espazio ardatz honetan gertatuko dira aldaketak, maila indibidualean, talde mailan edota maila globalean. Praktika-komunitatearen nozioak hizkuntza eta eguneroko testuinguruak jartzen ditu harremanetan, azkenengo honetan gertatzen diren aldaketek hizkuntzarengan eta hiztunengan duten eragina azalaraziz.

Praktika-komunitatea gainera, horrela ulertu daiteke: «the level of social organization at which people experience the social order on a personal and day-to-day basis, and at which they jointly make sense of that social order (Eckert & McConnell-Ginet, 2013: 46)». Bere bitartez gizarte ordena (eta hizkuntzarekin lotutakoa) eta norbanakoarena (hiztunarena) harremanetan jartzen dira. Gizarte eremua da (*the social locus*) eta bertan hizkuntz praktikak eta ideologiak bereganatzen, mantentzen edota eraldatzen dira. Era berean, aldagai ezberdinak

direla eta (klase soziala, adina, jatorria, sexu-generoa, etabar.) hiztunen arteko tentsioak eta negoziazioak gertatzen dira.

Azkenik, "D ereduko kirola" proiektuan egindako ikerketaren ondorioz ikusi dugu praktika komunitateek "babesgune gisa" jokatu dezaketeela. Espazio hauetan hiztunek konfidantzazko eta lasaitasunezko giro bat topatzen dute eta horrek aukera ematen die "ber-sozializatzeko", probatzeko, esperimendatzeko, eta euren hizkuntz identitatearekin jokatzeko, beti ere -eta hau oso garrantzitsua da- epaituak izan gabe. Kontu horiek garrantzitsuak iruditzen zaizkigu une honetan Euskal Herrian euskararekin lotuta garatzen ari diren egitasmo askok ("Euskaraldia"ren kasu) hiztunak "mudantza" egitera eta euren hizkuntz ohiturak aldatzera gonbidatzen dituztelako.

Laburbilduz. Azkenengo pasarteetan hizkuntz antropologiaren testuinguruan praktika-komunitatearen nozioak mahai gainean jarritako lau elementu azpimarratu ditugu: (1) praktiken garrantzia; (2) testuinguruaren beharra; (3) hiztuna, hizkuntza zein gizarte ordenaren arteko lotura eta, (4) praktika-komunitateak babesgunea bilakatzeko ematen duen aukera.

Txosten honetarako lehenengoan eta azkenengoan sakontzea erabaki dugu. Hori dela eta, jarraian, bildutako material enpirikoetan oinarrituta, kirol taldeek babesgune gisa eskeintzen dituzten aukeren inguruan gogoetatuko dugu labur. Dokumentu honen azkenengo atalean babesgunearen ideia bueltatuko bagara ere, une honetan horrekin lotutako zenbait ideia mahaigaineratu nahi ditugu jada. Ilde beretik gazteen hizkuntza praktiken azterketatik jasotako hainbat ondorio azalduko ditugu.

Baina beste ezer baino lehen, taldeak edo praktika-komunitateak duen garrantziaz mintzatuko gara, kirol esparruan garatu behar den edozein egitasmoak taldea oinarrian jarri behar duela iruditzen zaigulako, eta orain arte esparru honetan egin dugun lana erakutsi digulako hizkuntza kontuetan ere taldea oinarrian jartzea komeni dela.

3.2 TALDEA OINARRIAN: KIROLAK BATZEN GAITU

Euskal hiztun berria bihurtzeko haurtzaro eta nerabezaro guztia izan daiteke beharrezkoa. Euskarak presentzia du eskola giroan eta aisialdian, baina behin eta berriro esan den moduan, hura bereganatzeak ez du esan nahi, eremu informaletan erabiltzea. Horregatik, kirola, musika, dantza edota bestelako aisialdi jardueretan eratzen diren praktika-komunitateak oso garrantzitsuak dira hiztun berrien hizkuntz identitatearen garapenerako:

The importance of the community of practice lies in the recognition that identity is not fixed, that convention does not pre-exist use, and that language use is a continual process of learning. The community of practice is a prime locus of this process of identity and linguistic construction.

(Eckert, 2006:685)

Ikertutako kasuetan ikusi dugu talde-identifikazioa kirol disziplina baten praktika partekatua emateagatik gertatzen dela: saskibaloia, futbola edo pilota. Interes amankomun bat dago eta hortik eratortzen dira egiteko moduak, rolak, balioak,

usteak eta, baita ere, komunikazio era zehatzak. Kasu honetan, talde identitatea ez da sortzen ezaugarri abstraktuen eraginez (klase soziala, generoa, etabar.), ezta taldea kokatuta dagoen tokia dela eta (auzo bat, herri bat, etabar.). Adibidez, Zaramagako pilota taldean bederatzi nerabez osatutako praktika komunitatearen kasuan, pilota-jokuak gazteen arteko elementu bateratzailea da. Gazteak pilota-jokuarekin identifikatzen dira eta, horren inguruan batu egiten dira:

Ba entrenatzen gauden guztiok batzen gaitu, elkartzen gaitu, ideia berak. Gu etortzen gara hona jolastera pilotara gustatzen zaigulako.

(Jon. Kirolari gaztea. Zaramaga)

Klubak, auzoak, generoak, klase sozialak eta beste aspektu sozio-kulturalek izaera berezia ematen diote taldeari baina talde-identitatea, bereziki, pilota-jokuaren bidez eraikitzen da. Gainontzeko elementuek ez dute oztopatzen praktika-komunitatearekin bat egitea: ezberdintatsunak egon daitezke, maila sozioekonomikoa, genero edota jatorriarekin lotuta, baina, taldearen ikurra pilotan, futboleko edo saskibaloian aritzea da.

Interes berdina partekatzeak sortzen du talde identitatea, eta honek izaera berezia ematen die egunerokoan gertatzen diren hizkuntz praktikeei. Praktika-komunitate hauen helburua gazteak kirolari bilakatzea da. Horretarako entrenamenduak, formazioa eta taldekideen arteko harremanak funtzeskoak dira: talde bakoitzean ematen diren praktika ezberdinen bidez futbolariak, pilotariak edota saskibaloiko jokalariek sortzen dira. Baina, kontuan hartu behar da kirolari bilakatzea hitzuna (ere) bilakatzea dela. Bi prozesuak paraleluki gertatzen dira, besteak beste, komunikazioa ezinbesteko elementua delako kirol eremuan.

“D ereduko kirola” proiektua dela eta 2016-2017 ikasturtean zehar egin genuen lekuan lekuko lanean jabetu ginen hizkuntza eta, bereziki komunikazioa, oso elementu garrantzitsua dela, kirol praktikan ere.

Entrenamenduetan zein partidetan komunikazioak duen garrantzia agerian geratzen da adierazpen askotan. Adibidez, ohikoa da horrelakoak entzutea: “Hitz egin behar dugu konstantemente” edo “Hitz ein!, hitz ein! Atzen gaudenak hitz ein behar deu, bestela ezin da ezer ein!”. Talde-kiroletan jokalarien arteko komunikazio zuzena eta etengabekoak kirol emaitzak hobetzen laguntzen dute. Are gehiago, ikusi dugu praktikatu egiten dela eta, elkarriketatutako entrenatzaileen arabera, espreski lantzen bada emaitzak hobeagoak dira.

Hori jakinda, 2017-2018 ikasturtean egitasmo experimental bat diseinatu genuen, zeinetan, bi ikasketa prozesu hauek harremanetan jartzen genituen (kirolaria bilakatzea eta hitzuna bilakatzea). Hori dela eta, praktika ezberdinak garatu genituen eta prozesu horren gaineko informazio bildu zen Paduran, Zaramagan zein Real Sociadadeko klubetan. Jaso genuenaren arabera, klub hauek gazteak kirolari bihurtzeko egiten duten lana bi kapital mota ezberdinen pilaketan datza. Batetik gorputz kapitala dago; bestetik, kapital kulturala (zehazki kirol kapitala). Honetarako entrenamenduak funtsezkoak dira. Hauek gorputz teknikak lantzeko eta hobetzeko denbora eta espazioak dira. Kirol bakoitzak bere disziplinari dagozkion gorputz teknika zehatzak lantzen ditu. Euskal pilotaren kasuan, adibidez, pilota eskuarekin kolpekatzeko gorputza ondo erabiltzen jakitea gakoa da. Kirol

honetan indarra oso garrantzitsua dela badirudi ere, Zaramagako entrenatzaileak azaldu zigunaren arabera gorputz atal guztien koordinazioa lantzea ezinbestekoa da. Kirolari gazteak teknikak hobekuntzan duen balioaz ere kontzienteak dira:

Elkarrizketatzailea: Eta egun, pilotari bati, zein ezaugarri eskatzen zaizkio ona izateko?

Aritz: Indarra izatea.

Joseba: Indarra izatea.

Aritz: Bizkorra izatea.

Joseba: Teknika.

(Kirolari gazteak. Zaramaga.)

Baina gorputz kapitalaren pilaketarekin batera, kapital kulturala ere jasotzen dute, batez ere, kirol arloarekin lotutakoa. Paduran, esaterako, kirol balioei buruz hitz egin zuten: talde lana, ahalegina, esfortzua, disziplina, eta lehia gainditzeko beharraz. Padurako gazte batek kirolari izateko behar denari buruz, galdetuta, horrela erantzun zuen: «Gogoak, gogoak eta entrenatzera joaterakoan kaso egitea (Irati. Kirolari gaztea. Padura)».

Gorputz kapitala eta kapital kulturala pilatzeko prozesu horretan, bi eragile dira, gure ustez, bereziki garrantzitsuak. Batetik, gizarte mailan erreferente diren pertsonak, kasu honetan kirolari profesionalak. Bestetik, gertuko erreferenteak, batez ere, entrenatzaileak. Pentsatzen dugu, gazteen sozializazioari begira, entrenatzaileak direla kirol klubetan dauden eragile gakoak. Eurak erakusten diete kirolari gazteei gauzak egiteko moduak, "jokatzeko" moduak. Dena prozesu planifikatu baten baitan eta erritmo jakin batean.

Entrenatzaileek hiltuna bilakatzearen prozesuan duten papera ere oso nabarmena da. Ikertutako hiru kasuetan, entrenatzaileek, nagusiki, euskara erabiltzen zuten. Era horretan, klubetan euskara bultzateko hartutako konpromesua euren egiten zuten. Euskaren aldeko jokaera hauek asko laguntzen duten praktika komunitate hauetan euskararen aldeko dinamika bat eta giro bat bultzatzen. Entrenatzaileek eragin handia dute honetan. Halere, euskaren aldeko jarrera izateak ez du esan nahi hizkuntz honen erabilera erabatekoa denik. Ikerketan zehar egindako behaketetan gaztelaren erabilerarako tarteak ere antzeman ditugu. Egoera hauek aukera ematen die entrenatzaileei nerabeek duten hizkera edota hitzegiteko modura gerturatzeko eta, bide batez, giro informala eta gertukoa sortzeko. Bestelako giro bat, zeinetan gazteak ez dira "eskolako ikasleak" sentitzen eta euskara derrigortasuna eta disziplinatik aldentzen den.

3.3 HIZKUNTZ PRAKTIKAK, TALDE LANA

Entrenatzaileen papera azpimarratu dugu aurreko lerrotan. Hau horrela bada ere, ezin dugu ahaztu praktika komunitateetan kirolari eta hiltun bilakatze prozesuak taldean gertatzen dira. Kirolari zein hiltun garatzeko bidean kideen partehartzea funtsezkoa da eta, neurri batean, gazteen garapena horien baitan gertatuko da. Charles Goodwin-ek ohartarazten gaituen moduan: «Language is constituted not only as a public sign system but also through the mutual use of public practices for building action and meaning in concert with others (Goodwin, 2004:166)». Hizkuntza jardura partehartzailea da. Gainera, ezin dugu ahaztu gure ikerketako gazte gehienak hiltun berriak zirela. Euren autoperzepzioan sakontzen badugu ikusiko dugu, %60ak euskaraz zein gaztelaraz berdin moldatzen zirela zioen. %

13,3ak gazteleraz hobeto moldatzen zela esan zuen eta %26ak bere burua euskaraz errezago adierazten zuela zioen. Azken datu honek bat egiten du euskara lehen hizkuntza dutenen kopuruarekin.

Lekuan lekuko lana egiten ari ginenean ikusi ahal izan genuen gazteak, orohar, ondo moldatzen zirela euskaraz zein gazteleraz aritzeko; hala eta guztiz ere, kirolean aritzen ziren bitartean gaztelera erabiltzeko joera handia somatu genuen. Antza, hau gainontzeko eguneroko errutinetan gertatzen da.

Ba normalean nabaritzen da zeinek hitz egiten duen nabariago euskeraz, baina normalean, beti aritzen gara gazteleraz.

(Joseba. Kirolari gaztea. Zaramaga)

Bueno, ni batzutan gelditzen naiz lagun batekin aparte, ze kuadrila osoa ez da geratu edo edozer gauza, eta berarekin gehienetan izaten da... gehienetan egiten dut euskeraz. Baina lagun talde handiagoa bada gaztelaniaz.

(Irati. Kirolari gaztea. Padura)

Zergatik gazteleraren nagusitasuna? Nerabe batek horrela erantzuten zuen: «Da hazi garena, es con lo que hemos crecido».

(Andoni. Kirolari gaztea. Zaramaga)

Dena dela, adinkideen artean gaztelerarako joera gertatzen bada ere, klubak euskararekiko adierazitako konpromisoa eta entrenatzaileen eskuhartzea direla eta, gazteak euskara eta kirolaren arteko lotura egitera bultzatzen dute. Padurako gazteen iritziz, saskibaloiko taldea da, eskolarekin batera, euskara erabiltzeko gune nagusia:

Orain arte lotzen nuen [saskibaloj] erdararekin, ze zen aktibitate bat erderaz. Baina aurten ba ya euskaraz. Euskaraz hitz egiten dute entrenatzaileak batez ere, orduan euskaraz bai baina gure artean gehiago erderaz.

(Irati. Kirolari gaztea. Padura)

Zaramagako pilotariak antzeko komentarioak egin zituzten. Euren ustetan frontoian kalean baino gehiago erabiltzen da euskara, nahiz eta aitortu eskola dela euskararen erabileraren ikuspegitik gune nagusia. Real Sociedad-eko erabilera zerbait ezberdina da, izan ere, ikertu genuen taldean gazte askok euskara lehenengo hizkuntza zuten eta, eurek komentatutakoaren arabera, euskarak presentzia handia du egunerokotasunean eta bizi diren herrietan. Honek eragina du gainontzeko taldikideengan (hiztun berriak direnak), euren kasuan kirolean euskara praktikatzeko aukerak handitzen direlako.

3.4 HIZKUNTZ IDENTITATE BERRIAK GARATZEKO BABESGUNEAK

O'Rourke eta Walshek hizkuntz gutxituen testuinguruan lagungarria izan daitekeen kontzeptu bat dakarkigute: "babesgunea". Euren hitzetan babesgune bat da: «a dedicated social spaces where those wishing to use Irish may do so in an environment where speaking Irish is normal and encouraged (O'Rourke & Walsh, 2020:168)». Kontzeptu hau Joshua Fishmanek, eta gurean Mikel Zalbidek (2019), erabilitako "arnasgunea" nozioaren (*breathing spaces*) antzekotasunak ditu, baina, gure iritziz "babesgunea" eta "arnasgunearen" arteko aldeak kontuan hartu beharrekoak lirateke. "Arnasgunean" edo "*breathing spaces*" deitutakoetan hizkuntz gutxituaren erabilera nahiko sendotuta dagoela esango genuke, bertan hiztun denek edo ia denek ezagutzen eta erabiltzen dutelako. Babesguneetan aldiz, ikasketarako, esperimentaziorako edota "jolaserako" tarte handia egongo litzateke, beraz, gune hauek hizkuntz gutxituaren erabilera bultzatzen eta ahalbidetzen badute ere, elebakarrak ez diren praktiketarako tarteak utziko lituzkete.

Babesgune hauetako bat deskribatzen dute Maite Puigdevall, Alba Colombo eta Joan Pujolarrek (2019) Bartzelonako *Colles de Diables*en inguruan egindako ikerketan. Bertan, hiztun berriek hizkuntza erabiltzeko dituzten harremanetarako espazioei buruz mintzatzen da, bereziki euren garrantzia azpimarratzeko: ez hainbeste ikasketarako eremu gisa, trebatzeko eta harremanak garatzeko espazio gisa baizik: «un espacio seguro que ofrece la posibilidad de entrenarse como nuevo hablante de la lengua en condiciones bastante ideales, sin estar demasiado expuesto al habitual escrutinio lingüístico por parte de la sociedad en general (Puigdevall et al., 2019:128)». Babesgune hauek zubia eta bitartekari izan daitezke kapital ezberdinak eskuratzeko. Zutabe bat edo, hainbat kasuetan, tranpolin modukoak izan daitezke (*stepping stones* or *bridging places*) beste fase batera igarotzeko edota hizkuntza mudantza ahalbidetuko duten beste esparru batzuetara iristeko (ibid.: 119).

"D ereduko kirola" ikerketan praktika-komunitateetan egindako hausnarketen ondorioz iritsi ginen babesgunearen kontzeptura. Bertan jaso genituen harremanak eta bertan somatu genuen sozialitate babestuaren (Wacquant, 2006) ondorioz, irudikatu genuen babesgunearen nozioa. Klubak eta kirol taldeak babesgune gisa agertu zitzaizkigun: Leo, Joseba eta Amaiak eta bere kirolkideak euren hizkuntz praktikak garatzeko espazio zainduak, lasaiak edota malguak.

Ikerketan ikusitakoaren baitan, uste dugu Gasteiz, Arrigorriaga edota, neurri batean, Donostia bezalako tokietan, non, euskarak ez du kalean edo eremu informaletan presentzia handia, klubak edo, bederen, guk ikertutako klubak euskara bezalako hizkuntz gutxitu bat erabiltzeko babesguneak sortzen saiatzen direla. Kirol praktiken bidez komunitate baten parte izateko sentimenduak (partaide izatea, solidaritatea, etabar.) aktibatzen dira. Eta gainera, klubaren konpromesuek eta entrenatzaileen partehartzeak harremanak euskaraz izateko aukerak sortzen dituzte. Derrigorrezkoa izan gabe, baldintza batzuk sortu eta garatzen dira esparru horretan euskarak lehentasuna izateko.

Ikerketaren zehar ikusi genuen: Zaramagako frontoia, Padurako kantxa edo Real Sociedadeko futbol zelaia ez dira oasiak. Denetan entzuten da gaztelera. Baina hiztun berriek euskararen erabilerako lagungarriak gerta daitezkeen baldintzak

topatzen dituzte bertan: giro gertukoa, elkarlana, lankidetzak, adiskidetasuna, errespetua, etabar. Uste dugu testuinguru hauetan, eta hiztun bakoitzaren gaitasunak abiapuntua hartuta, aukera berriak frogatu daitezkeela, ohitura berriak sortuz eta hizkuntza mudantzak gertatzeko baldintzak bultzatuz, bai norbanakoen mailan, bai talde mailan.

3.5 TALDEA, PARTE-HARTZEA ETA (HIZKUNTZA) ERRONKA PARTEKATUAK

Gazteak dira. Kirola atsegin dute, baita lagunen artean egotea. Hiztunak dira eta hizkuntza da, gazte gisa euren bizitza eta egunerokotasuna kudeatzeko duten tresna nagusienetarikoa bat. "D eredu kirola" ikerketan zehar nerabeengandik gertu egon ginen eta, beste ikerketa batzuetan nabaritu izan dugun moduan, ikusi genuen oso garrantzitsua dela bi elementu kontuan hartzea. Batetik, subjektuek bizi duten une biografikoa eta horren ezaugarriak (kasu honetan nerabezaroa edota gaztaroa). Bestetik, zein esparru edo praktika komunitateetan mugitzen eta murgiltzen diren: euren praktika-komunitateak (kasu honetan, kirolarekin lotutakoak). Elementu hauek ikerketa prozesuaren diseinutik hartu ditugu kontuan, besteak beste egoera aztertzeaz gain, beste helburu bat genuelako: gazte hauekin batera joatea, laguntzea eta hizkuntza mudantza gertatzeko baldintzak sortzea edota sortzen laguntzea.

Ikerketaren momentu batean, praktika komunitate bakoitzak euren eguneroko praktiketan euskararen erabilera bultzateko ekimenak adostu zituen. Kirol talde hauetako gazte guztiekin egondako elkarriketetan horrek izandako eragina aipatu zen. Horren inguruan egindako hausnarketa batzuk, prozesuaren amaieran egindako bideoan ikus eta entzun daitezke:

Liga hau hasi ginenean piska bat esfortzu egin behar genuen euskeraz mintzatzeko. Egia da gure entrenatzaileak saiatzen ziren guri esaten 'venga, mesedez piska bat euskeraz', guri hitz egiten ziguten euskeraz eta...Erronka hau egin eta gero esfortzua ez dugu egin behar eta ondo egiten dugu, moldatu egiten gara!

(Leire. Kirolari gaztea. Padura)

Hori dela eta, uste dugu 40 gazte hauekin zein klubeko beste pertsonekin partekatutako lana adibide gisa erabili daitekeela. Horrek erakutsi digu kirol eremuak aukerak eskaintzen dituela hiztun berrien muda prozesuan laguntzeko eta talde agentzia landu eta garatzeko. Baina, aurrerapausu hauek emateko praktika komunitateak babesgune gisa eratu behar direla uste dugu. Bertan, taldekide guztien partehartea bilatu behar da, hiztun bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta eta bakoitzarentzat egokia diren hizkuntz dinamikak egokituta³⁶. Txosten honetan bertan, aurrerago, babesgunearen noziora bueltatuko gara, horren inguruan gutxieneko irizpide batzuk ezartzeko asmoz.

³⁶ Gure ikerketan ez genuen bereziki aspektu hauetan sakondu, ezta (euren) hizkuntz ondorioetan. Halere, uste dugu praktika-komunitateetan parte hartzeko dauden modu ezberdinen inguruko ikerketa eta gogoeta bultzatu beharko zela. Hau etorkizunari begirako lan ildo bat izan daitekeela pentsatzen dugu.

Praktika komunitate baten ezaugarri nagusia, helburu partekatu baten inguruan sortutako taldea iraunkorra izatea da (Eckert, 2006). Aipatzen ari garen egitasmoaren kasuan euskararen erabilera somatutako aldaketa, prozesu baten zehar eta modu kolektiboan emandakoa izan zela azpimarratu nahi dugu. Hauek dira emandako urrats batzuk: 1) komunikazioa eta hizkuntzaren inguruan hausnartu genuen taldeka, 2) kirol munduarekin lotutako hizkuntz baliabideak landu genituen eta 3) batez ere esparru eta aukera bat eskaini zitzaizen nerabeei euskara erabiltzeko eremu ez-ohiko batean, izan ere, askok ez zuten lotura berezirik egiten kirola eta euskaren artean. Ondorio gisa, beste behin, hizkuntzarekin lotutako dinamiken izaera kolektiboa nabarmendu nahi dugu: hitz egitea (mudantza egitea bezala) talde lana da, eta horretan garrantzitsua da hiztun bakoitzak babesgune bat topatzea, hizkuntz errutina berriak esperimentatzeko, frogatzeko, indartzeko edo garatzeko.

Hizkuntza mudantzarako praktika-komunitateek duten papera azpimarratu dugu orain arte, baina kontrako norabidean eman daitekeen prozesua ere nabarmendu nahi dugu, izan ere, hizkuntza ere taldea indartzeko eragilea izan daiteke. Hau da, hizkuntzak ere taldea egiten lagundu dezake.

Adinkideen arteko harremanek nerabe edo gazte izateari ematen diote zentzua. Hau horrela izanik, zergatik ez jarri arreta hizkuntzak (edo hizkuntzek) Amaia, Joseba edo Leo bezalako gazte hiztun berriak komunitate kide bihurtzeko du(t)en paperean? Zeregin horretan murgilduko gara datozen bi puntuetan, izan ere, bertan hizkuntzek duten izaera dinamiko eta malguaz arituko gara. Hizkuntza sozializazioaren nozioa erdigunean jarrita, hizkuntzak duen izaera aldakorra aztertuko dugu, arreta bi arlo zehatzetan pausatuta. Batetik, hizkuntza sozializazioaren kontzeptua azpimarratuko dugu eta hiztunon eta hizkuntzaren arteko harremana bizitza osoan diraun lotura dela aldarrikatuko dugu. Bizitza eta biografiekin batera hizkuntzak ikasi, barneratu, ahaztu, desikasi..., ditzakegu, etengabeko eta gorabeherak izan ditzakeen harreman baten bitartez.

Izaera aldakor hori muda kontzeptuarekin lotzen dugu eta horren azterketari tarte bat eskainiko diogu ere datozen orriotan. Globalizazioak eta aldakortasunak bat egiten duten honetan, hizkuntza mudantzak ohiko gertakari bilakatu dira hiztun askorentzat. Arrazoi ezberdinak direla medio, hiztunak, euren bizitzan, aukera edo beharra ikusten dute hizkuntz berriak ikasteko, bereganatzeko eta erabiltzeko, baita ordurarte erabiltzen zituztenak alboratzeko. Hizkuntza merkatuan (Bourdieu, 1985) aukerak eta mehatxuak ageri dira hizkuntza askorentzat, euskara tartean.

Hizkuntza merkatuan euskarak egun duen tokia azken hamarkadetan irabazitako hiztun berriei esker lortu du. Hori izan da, beste hizkuntza gutxitu askoren kasuan bezala, euskararen berreskurapen prozesuak hiztun kopurua handitzea izan duelako jomuga. Eta prozesu luze eta konplexu baten ondorioz, hiztun kopurua handitu da. Egun, gazteen artean gehiengoa dira hiztun berri horiek. Eta hiztun horien euskararen erabilera da, hain zuzen ere, kezka eragiten duena, espero zena baino apalagoa baita. Jakina da horren zergatiek izaera ezberdina dutela, eta datozen puntuetan izaera ideologikoa duten arrazoi edota elementuetan jarri nahi dugu azpimarra. Egun, gure ustez, agerian geratzen ari da belaunaldi berriak euskalduntzearekin batera, korpua, gramatika transmititu edota erakustearekin batera, hizkuntzaren gaineko ideiak, usteak, errepresentazioak, diskurtsoak, ikuspegiak, etabar, ere garatu eta zabaldu direla. Idei eta ideologiaren zirkulazioak

hitz egin dugu aurretik uneren batean, eta bostgarren puntuan horretan sakontzeko asmoa dugu. Izan ere, egun eta etorkizunean dimentsio honetan ere eragiteko beharra ikusten dugu, edozein sozializazio prozesuetan bezala, hizkuntza sozializazioan ere, proiektatzen diren irudiak, ideiak eta balio ezinbesteko sostengua baitira.

Ikus dezagun beraz, "Euskara Kirolkide" proiektuan hiltun gazteei begira jartzeko garaian kontuan hartu beharreko zenbait kontzeptu.

4 GAZTEAK, HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA ETA MUDANTZAK

Praktika-komunitatea ikerketarako zein eskuhartzerako lurra gisa irudikatu dugu aurreko atalean. Nozioa mamitzen saiatu gara eta orain beste urrats bat eman nahiko genuke. Izan ere praktika-komunitatea oinarrizko egitura baldin bada, bertan parte hartzen duten bestelako osagai eta elementuetan jarri nahi dugu arreta. Zehazki, hizkuntza sozializazioaz eta mudantzaz arituko gara jarraian, praktika komunitateen barruan gertatzen diren edota gertatu daitezkeen hainbat hizkuntz dinamikak ezagutzeko asmoz.

“D ereduko kirola” egistamoak erakutsi zigun moduan, kirola hizkuntz sozializazioarako gunea ere bada, eta, landuz gero, bertan hizkuntza mudantzak gertatzeko aukerak sortu eta garatu daitezke. Baina azter ditzagun jarraian, hizkuntz sozializazioa eta mudantza kontzeptuek eskaintzen dizkiguten bideak, teorikoak zein aplikatuak.

4.1 HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA ETA HIZTUNA BILAKATZEKO BIDEAK

Azken urteotan egindako ikerketek arrazoi ugari eman dizkigute hizkuntza sozializazioaren kontzeptuak duen garrantzia azpimarratzeko.

Hizkuntzarekin loturiko sozializazioak garrantzia handia badu ere, euskal soziolinguistikan arreta eskasa bereganatu du orain dela gutxi arte. Paula Kasaresek egindako lana (2014) ia erreferentzia bakarra da eta, zalantzarik gabe, lan horrek irekitzen dituen bideak arakatu eta garatu beharrekoak direlakoan gaude. Gizarte antropologiaren ikuspegitik, iker lerro horrek hausnartzeko eta aztertze eremu zabala irekitzen du. Gure kasura ekarrita, planteamendu horretatik honelako galderak agertzen zaizkigu: euskararen ezagupen maila, gaitasuna eta “kalitatea” alde batera utzita, erabilerari dagokionez nola izan dira sozializatuak hiztun gazteak? Izan duten eta duten testuinguruak zer esaten die euskararen erabilpenari dagokionez? Erabilerari lotutako zein arau, konbentzio, eredu edo jarraibide jaso eta barneratzen dituzte? Azkenean, zein ideologia dute eskuragarri euren jokabidea moldatu, osatu edo egokitzeko?

Gure hipotesia zera da: garaiak eta egoerak aginduta, euskararen zabalpenean hizkuntza bera (bere korpusa, gramatika etabar) erakustea izan da lehentasuna. Horretan inbertitu da arreta eta energia gehiena. Bide horretan hizkuntza eta euskararen inguruan –eta bereziki euskararen erabileraren inguruan- sortzen ari zen kultura (materiala, harremanezkoa zein sinbolikoa edo ideiei lotutakoa) (Hernández, 2016) ikusezin mantendu da, prozesua behatzen eta aztertzen ari zirenentzat. Egun, pentsatzekoa da ezagutza eta erabileraren artean ematen den jauzia, besteak beste, horren ondorioa ere izan daitekeela.

Ildo horretatik doaz Timothy Currie Armstrong-ek egindako gogoetak, hizkuntz gutxituen ikaskuntza kode baten irakaskuntzaz haratago joan behar duela aldarrikatzen duenean: hizkuntz sozializazioaren ikuspegitik, hizkuntza bera ikastea bezain garrantzitsua litzateke hizkuntz egoerak kudeatzeko tresnak eskuratzea eta barneratzea.

(...) parents' and children's language learning should be understood, not simply as acquiring an abstract code, but also as learning a situated social practice, including learning the skills required to negotiate minority language use (...) I would argue that teaching a threatened language as a social practice, rather than simply an abstracted code, is a key to successful language learning for language revitalization, both for children and for adults.
(Armstrong, 2014:581)

Euskara bezalako hizkuntza baten kasuan, erabilerak sostengu sozial eta kultural oso bat behar duela uste dugu eta egun hori ez da edonon topatzen. Gazteen kasuan, testuinguru hori eskolan eta (batzuk) familian aurkituko dute gehienbat, eurentzat –gazte gisa- erreferente desiragarriak ez diren eremuetan, alegia. Gazteak, gazte gisa, (euren) gazte kultura garatu, osatu eta bizitzea baitute helburua.³⁷

Planteamendu hau bat dator aurretik aipatutako datuekin: familian baina, batez ere, eskolan egiten dute euskaraz gazte hauek. Hau logikoa dirudi, orain arte hizkuntza politikak eta hizkuntza plangintzak bultzatutako (hizkuntza) sozializazioa horretara bideratu dituelako umeak zein gazteak. Gazteek barneratu dute testuinguru, esparru, eremu eta egoera jakin batzuetan euskara erabiltzen dela eta erabili behar dela. Hori konbentzio bilakatzen den neurrian, horretara egokitzen saiatzen dira. Baina, zer gertatzen da sozialki onartuta dagoen horretatik aparte, hau da arau soziala den horretatik aparte?

Jakina denez, hizkuntza-sozializazioaren bidez pertsona batek komunitate jakin baten bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzen ditu (Kasares, 2014:47). Prozesu hau haurraren harreman sozialak hasten diren unean abiatzen da eta pertsonen bizitza osoan jarrai dezake. Ikerketek argi erakusten digu haur, gazte zein helduak hizkuntza-sozializazio batean murgiltzen garela, jaio bezain pronto eta bizitzak irauten duen bitartean. Prozesu horretan zehar hizkuntza(k) (euskara, gaztelera edo beste bat) tresna komunikatibo gisa jasotzeaz gain, hizkuntzekin lotutako joerak, jokaerak, ohiturak, usteak, balioak..., alegia, hizkuntza-kultura bat ere jasotzen dugu.

Ildo horretatik, bereziki azpimarragarria iruditzen zaigu azken hamarkadetan haurren inguruan garatutako “euskal unibertsoa”; bertan kultura materiala (literatura, antzerkia, musika...), erreferente sinbolikoak (kultur “izarrak”: pailazoak, marrazki bizidunak), zein harreman mundu oso bat (festak, ekitaldiak...) barnebiltzen direlarik. Zalantzarik gabe 0-12 urte bitartean umeek aukera “eskuragarri” ugari dituzte euskaraz murgiltzeko eta sozializatzeko. Gainera, tarte horretan, sozializazioan funtsezkoak diren eragileen arteko lotura estuagoa dela ematen du. Alegia, familian, eskolan, komunikabideetan, zein aisialdian umeek

³⁷ Gazteek gazte kultura sortzeko eta elikatzeko garatzen dituzten praktiken inguruan “Gu gazteok” izeneko ikerketa-txostena aipatu nahi dugu, hau, euskal gazteek euskararekiko duten harremana, gazte izate horretatik aztertzeko saiakera bat baita. Txosten hau eskuragarri dago interneten: http://www.ogasun.eigv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051908&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=pdf (2017/02/18)

dituzten euskarazko erreferenteak antzekoak dira eta, orohar, euskara eta euskal kulturaren inguruan transmititzen diren mezuak elkar harremanetan daude.

Urteetan aurrera egin ahala, nerabezarora heltzean, euskal unibertso horren zantzuak nabarmen gutxitzen dira. Paraleloki, familia, eskola, komunikabide edota aisialdi eremuen arteko harremanak ahultzen joaten dira eta gazteengan eragile hauek duten eragina jaisten da. Pádraig Ó Duibhir eta Laoise Thuairisgek Irlandako kasurako aipatzen duten moduan (Duibhir eta Thuairisg, 2019:128), euskal testuinguruan ere, nerabezaroan eta gaztaroan, hizkuntza gutxituen erabilera nagusiki mantentzen da autoritatezko erreferente bat aurrean dagoenean. Apurka-apurka, familiarekiko loturak bigarren maila batean geratzen dira eta, ordurarte, eskolak zuen kutsu ludikoa eta afektiboa murrizten da. Azkenengo hau aspektu garrantzitsua dirudi, batez ere Euskal Herrian eskolak ezinbesteko papera izan duelako euskararen biziberritze prozesuan.

Arlo horretan egindako inbertsioak (baliabideetan zein arduran) ekarri du euskara eta eskolaren arteko identifikazioa erabatekoa izatea. Euskara-eskola ezinbesteko bikotea bilakatu da eta gazteek, orohar, eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute. Askoren kasuan gainera, familia giroa zein hurbileko testuinguru soziolinguistikoa dela-eta, eskola da euskara ezagutzeko, entzuteko edota hitz egiteko ia esparru bakarra. Euskara-eskola bikote sendo horrek duen garrantzia dela eta, aurrera jarraitu baino lehen, urtetan izandako prozesu horretatik hainbat elementu nabarmendu nahi ditugu, gazteen inguruan egiten diren ikerketetan, egitasmoetan edota gogoetan kontuan hartzekoak direla uste dugulako.

Batetik, euskara-eskola harreman horrek (hiztun gazteek garatutako) hizkuntza-ideologian izandako eragina azpimarratu nahi dugu. Gazteen kasuan, eskola da hizkuntza-ideologiari dagokionez eragile nagusienetarikoa, edo nagusia (ziuraski familiarekin batera). Ez hainbeste eskolaren mezua onartu eta barneratu egiten dutelako, eskolaren mezua modu argi batean identifikatuta dutelako. Kontuan hartu behar da ume eta gazte askoren kasuan, eskola eremu euskal elebakar bakarra dela, eta bertan egin den euskararen aldarria eta ekarpena horri lotuta dagoela. Horrela, diskurtso, mezu eta irudi jakin batzuk zabaldu dira, beti ere eskolak dituen hizkuntza helburuekin bat eginik. Eskolak ahaleginak egiten ditu elikatu dituen irudiak eta diskurtsoak bere hezkuntza-praktikekin koherente izateko. Eta, neurri handi batean, horrela jaso dute gazteek.

Bestetik, eskolaren bidezko hizkuntza sozializazioak dituen mugak aipatu nahi ditugu. Izan ere, beste testuinguru batzuetan nabarmendu den moduan, hizkuntza eskolatik kalera edo plazara igarotzeko bidea hizkuntz gutxituen biziberritzerako oztipoa bilakatu daiteke (Duibhir eta Thuairisg, 2019:117). Irlandan, Euskal Herrian bezala, eskolak hizkuntz sozializazioarekin lotutako lana egin du eta egiten ari da, baina haur eta gazteentzat garrantzitsuak diren beste esparru batzuetan urratsak ez dira abiadura zein zuhertasun berarekin eman, eta horrek eskola eta eskolaz kanpokoen arteko amildegia sortu du.

Duibhir eta Thuairisgek Irlandarako esaten dutena aplikatu daiteke, gutxi gora behera, Euskal Herriko egoera deskribatzeko (Duibhir eta Thuairisg, 2019:129):

It could be argued that the issue of language use outside the education context is the X factor that has been missing from Irish revitalisation efforts. (...) If Irish-medium school students are to convert their ability in Irish to become new speakers of Irish, they will need greater opportunities than those currently available to use Irish in out-of-school and post-school contexts.

Eta egileek azpimarratzen duten moduan, egoera bera topatu daiteke, hizkuntz gutxitu bat duten beste komunitate askotan, Galesen, esate baterako, (O' Rourke eta Nandi, 2019). Horrek sortutako arduraren berri ematen dute hiztun gazteez orokorrean eta hiztun berri gazteez bereziki mintzatzen diren nazioarteko txostenak, zeinetan eskola eta eskolaz kanpoko eremuak hizketagai garrantzitsua diren (O' Rourke; Pujolar, 2019; Ó Riagain, Williams eta Vila I Moreno, 2007).

Hutsuneak edota zailtasunak alde batera utzita, azkenik, euskara-eskola bikoteak emandako fruitu esanguratsuena nabarmendu nahi dugu, hain zuzen ere "hiztun berrien agerpena". Eta gai horren garrantzia dela eta, hurrengo atala eskainiko diogu.

4.2 HIZTUN BERRIAK: EZAGUTZAREN SOZIALIZAZIOA ETA ERABILERAREN HUTSUNEAK

Hiztun berriaren kontzeptua berritzat jotzen badugu ere, aspalditik presente dagoen errealitate bati egiten diola erreferentzia azpimarratzen dute Noel P. Ó Murchadha, Michael Hornsby, Cassie Smith-Chistmas eta Máiread Moriartyk (2018).

New speakers have existed for as long as speakers of different languages have been in contact with each other—in other words, their presence has spanned the millennia (Ó Murchadha et al., 2018:1).

Hiztun berrien presentzia munduan zehar errealitate arrunta izan da eta da, baina azken urteotan nabarmenagoa geratzen ari da, besteak beste, migrazio prozesuak direla eta. Egun, arrazoi oso ezberdinak tarteko, pertsonak sarri aldatzen dira herrialdez eta bizitokiz, eta horren eraginez hizkuntza ezberdinen arteko "ukipena" maiz esperimentatzen da. Beste kasu askotan, herri, hiri edo herrialdetik mugitu gabe, hizkuntz berri bat ikasteko edota ezagutzeko grina pizten da, izan aisialdirako jardura gisa, izan helburu profesionalekin lotuta.

Guzti horren ondorioz, hiztun berrien (eguneroko) bizipen arrunta izatetik, esfera publikora ere egin du jauzi horien gaineko gogoeta, eta Murchadhak eta bere kideek aipatzen dutenez egun herrialde ezberdinetako agintarien agendetan ere ageri da. Ezaguna denez, hainbat kasutan mahai gainean jarri da migranteek herrialde bateko kideak izateko bete beharreko gutxieneko hizkuntz baldintzak (Ó Murchadha et al., 2018:2):

As becoming a new speaker of a particular language may make the difference between the right to remain and being deported, new speakerhood can literally be a matter of life and death.

Eremu akademikoak zein ikerketa munduak aspalditik izan dute hiztun berrien profila ikergai, beste izendapen batzuekin izan bada ere. Hizkuntzaren eremuan aritu diren disziplina ezberdinek (hizkuntzalaritza aplikatua, soziolinguistika,

hizkuntz psikologia, hizkuntz etnografia edo hizkuntz antropologia, besteak beste) hiztun berriaren figurak ordezkatzeko duen errealitateaz mintzatzeko horrelako terminoak erabili izan dituzte (ibid.):

Second language”, “L2, learner”, “non-native”, or “non-mother tongue” as oppositional constructs to terms such as “native”, “mother tongue”, “first language”, “L1”, and “primary language.

Ikus daitekeenez, izendapen guzti hauek (eta hemen aipatu ez ditugun beste batzuk) dikotomia zehatz batera ekar daitezke: (hiztun) natiboa eta ez natiboa. Hizkuntzaren eremuan hau hamarkada luzeetan nagusitu den bereizketa izan da, hizkuntz egoera zein testuingurua edozein izanda ere.

Dikotomia berez, ez du zertan kaltegarria izan behar, baina, praktikan (eta gizarteko beste esparru batzuetan gertatzen den moduan) sailkapena dena banaketa, bereizketa eta mailaketa bilakatzen da, Ó Murchadha eta bere kideek azaltzen duten moduan (ibid.):

These terms imply a hierarchy and a deficit model, suggesting an evaluative paradigm that privileges native speakers and native speech, and marginalizes non- native speakers and their practices.

Aurrerago, hizkuntza-ideologiaren atalean, dikotomia horrek dakartzan ondorioak azalduko ditugu, beraz orain ez ditugu aipatuko. Puntu honetan bakarrik azpimarratuko dugu guretzako funtsezkoa den ideia bat: ez dago modurik, ezta argudiorik ere mailaketa eta ierarkizazio hori sostengatzeko, beraz, ez dugu ontzat hartzen hizkuntza ezberdinen zein hizkera edota hitz egiteko modu ezberdinen artean egiten den inongo ierarkizaziorik. Hau esanda ere, jakin badakigu sailkapena horiek egiten direla eta garrantzitsuak direla gizartean, hiztunentzat zentzu bat dutelako. Horregatik, jarraitu behar dugu errealitate horiek aztertzen, ulertzen eta, ahal den neurrian, deseraikitzen. Horregatik, iruditzen zaigu funtsezkoa dela erabiltzen ditugun kontzeptuak eta gure ikerketekin sustatu nahi ditugun planteamenduak gizartean eta kulturen dauden diskurtso, ideei eta usteetatik ahalik eta gertuen egotea. Bide horretatik doa, hain zuzen ere, hiztun berriaren nozioa erabiltzearen alde agertzen diren ikerlarien asmoa. Ó Murchadhak eta bere taldekideek horrela adierazten dute (ibid.:3-4):

The term ‘new speaker’ has thus been proposed (and accepted by many) as an alternative to the deficit model implicit in more established terms like second language, L2, non-native, and learner.

Baina zeintzuk dira hiztun berriak?

Gaur egun ez dago definizio bat, bakarra eta bateratua. Halere, egun hiztun berrien gaineko ikerlerro bat finkatzen ari dela esan daiteke eta horren inguruan ari direnen artean nolabaiteko adostasuna dago hiztun mota hori irudikatzeko. Oro har, hiztun berritzaletzat jotzen da hizkuntza etxean edo familian ez den toki batean ikasi eta bereganatzen duena. Bernadette O’ Rourke, Joan Pujolar eta Fernando Ramallok honako definizioa ematen dute:

"[An] individual with little or no home or community exposure to a (minority)³⁸ language but who instead acquire it through immersion or bilingual programmes, revitalization projects or as adult language learners".

(O'Rourke, Pujolar eta Ramallo, 2015: 1)

Hau oinarritzko definizioa izan badaiteke ere, badago beste bat interesgarria iruditua zaiguna eta hemen azaldu nahi duguna. Aurrekoarekin konparatuta, honek, arreta hiztunengan jartzen duela iruditzen zaigu, eta horrek ñabardura garrantzitsua ematen diolakoan gaude:

"At its most basic level, the designation new speaker refers to social actors who use and claim ownership of a language that is not, for whatever reason, typically perceived as belonging to them, or to people like them".

(Ó Murchadha et al. 2018, 4)

Ñabardura edo ukitu subjektibo horrek, definizioari malgutasuna ematen diola uste dugu eta, neurri batean, praktikan, gizartean topatu daitezkeen hiztun berrien aniztasuna islatzen laguntzen digula pentsatzen dugu.

Aniztasun hori ikusgai geratzen da hiztun berriak beste hiztun mota batzuetatik bereizteko erabili ohi diren hiru elementuak aztertzerakoan: hizkuntza gaitasuna, hizkuntza bereganatzeko modua(k) edo baldintzak eta hizkuntza ikasteko motibazioak (ibid.:4-5).

Hiztun berriek konpetentzia maila oso ezberdinak eskuratu ditzakete. Gauza bera gertatzen da norbait hiztun berritzat jotzeko erabiltzen den "neurgailuarekin". Kasu batzuetan hiztun berritzat jotzeko konpetentzia altua "eskatu" izan bada ere (aditu baten maila, adibidez); beste kasu batzuetan nahikoa izan da hiztun berria izateko potentzialtasuna erakustearekin (Jaffe, 2015). Hau da, egile batzuen arabera, continuum batean kokatutako hiztunaz ariko ginateke (Ó Murchadha et al., 2018:4):

The new speaker label has been used to describe language users with a wide range of language competences. These competences range along a continuum from emergent speakers (see García and Kleifgen 2010) or what Carty (Chap. 13, this volume) terms "potentials"—that is, speakers with limited linguistic repertoires—through to expert language users (see Piller 2001; Rampton 1990) often with "native-like" language proficiency.

Era berean, eta aurretik aipatu den moduan, pertsona bat bilakatu daiteke hiztun berria egoera eta baldintza oso ezberdinetan. Migrazio egoera bat izan daiteke; edota -hizkuntz gutxitu askoren kasuan- hezkuntza formalak bideratuta (eskolan). Bestalde, mundu osoan zehar topa daitezke pertsonak hizkuntza ezberdinak ikasi dituztenak (edo ikasten ari direnak) egitasmo eta ekimen ezberdinen bidez (izan formalak edo informalak, izan trinkoak zein aldizkakoak).

³⁸ Parentesiak gureak dira, izan ere, hiztun berrien profilak ez du zertan egon behar lotuta hizkuntz gutxitu batekin. Norbait hiztun berri izan daiteke ingelera bezalako hizkuntz hegemoniko batean.

Azkenik, hiztun berrien profil anitza borobiltzeko, hizkuntza bereganatzeko egon daitezkeen motibazioak aipatu beharko genituzke. Kasu honetan, Ó Murchadhak eta taldekideek esaten dutenaren arabera (ibid.:5) motibazio instrumentalak pisu handia badu ere, simbolikoak edota integratzaileak diren arrazoiak ere kontuan hartu beharko lirateke. Kasu honetan, hizkuntzek identifikazioa bultzatzeko duten ahalmena agerian geratuko litzateke.

Ikusi denez, hiru elementu hauetan arreta jarrita (gaitasuna, hizkuntza bereganatzeko baldintzak eta motibazioak), hiztun berrien kontzeptuak zabaltzen dituen aukerak erraz antzeman daitezke. Halere, guzti horretaz gain, beste aspektu bat kontuan hartzeraz gonbidatzen gaituzte Ó Murchadhak eta taldekideek: hain zuzen ere, hiztun berrien agerpenak eragiten dituen gizarte "igurtziak" (talka, tentsio, egonezin edo zalantza gisa ulertu daitezkeenak). Izan ere, hiztun berri batek bereganatutako hizkuntza praktikan jartzera animatzen denean ordurarteko "ordena" (hizkuntz ohiturak, harremanak, elkarriketak...) gutxiago edo gehiago aldatu edo eraldatu egiten da. Eta horrekin batera, gizarte egiturarekin zein subjektibitateekin lotutako hainbat gertakari suertatzen dira, edo suerta daitezke.

(...) one common feature of "new speakerhood" is the ability to communicate in a new language and the access it provides to new social, cultural, and economic spheres and markets. Conversely, one of the net results of the presence of new speakers in any language is often the association of "otherness" with new speaker profiles and practices.
(ibid.:5)

Hiztun berrien praktikek eragina dute ordurarte hizkuntzan, hizkeran, zein hizkuntza praktiketan indarrean zeuden ideiei eta eruedetan, eta, kasu gehienetan, hor hasten dira tira-birak. Hori dela eta, Ó Murchadhak eta taldekideek aipatzen duten moduan, arrunta izan ohi da hiztun berriaren figura "anormala" edo queer bezala agertzea.

As a result of such transgressions, the practices and profiles of what we now call new speakers have frequently been ideologically evaluated as sociolinguistically deviant, since they do not conform to an implicitly agreed model.
(ibid.: 5)

Kontuan hartzen badugu urteetan hizkuntzalarientzat hiztun legitimo eta eredugarriaren profila NORM akronimoarekin (nonmobile, older, rural males) ezagutu izan ohi dela (ibid.: 6) queer kontzeptua ongi ekarria dela uste dugu.

Argi dagoena da hiztun berriak hizkuntzaren eremuan "benetakoa" eta "zuzena" dena zalantzan jartzera etorri direla, eta gustatu ala ez, errealitate hori geratzeko iritsi dela.

4.3 HIZTUN BERRIAK EUSKAL HERRIAN

Noiztik daude hiztun berriak Euskal Herrian?

Pentsatzekoa da beste gizarte askotan bezala, aspalditik. Eta batez ere Euskal Herrirako migrazio handiak hasi zirenetik, adibidez 1950 hamarkadatik aurrera.

Orduan hiztun mota ezberdinek topo egin zuten eta, batez ere, euskal hiztunak eta erdal hiztunak nahastearen eraginez bi-hiru hizkuntz horietan hiztun berriak sortu ziren. Topaketa hauek nonahi agertzen dira, askotan aipatzen baitira euskara baino ez zekitenek zituzten lanak gaztelera edo frantsesa ikasteko (batez ere Frankismoarekin batera bortzaz ikasi behar izan zutenean). Baina arrunta izan dira ere Espainiatik eta Frantziatik etorri, euskararekin topo egin eta ikasi edota ikasten saiatu ziren pertsonen testigantzak. Hiztun mota hori izendatzeko kontzeptu bat asmatu zen: "euskaldun berria". Horren sorrera zehatza noiz izan zen jakitea zaila bada, pentsatzekoa da, terminoaren zabalpena 1970. hamarkadan gertatu zela, izan ere garai hartan martxan jarri ziren "Gau eskolak" izeneko guneak. Bertara gazte eta helduak joaten ziren euskara "formalki" (edo "egoera formal batean") ikasteko asmoz.

Euskaldun berriaren kategoria ofizialki ere jasota dago. Ortega eta kideek azaltzen dutenez, Eusko Jaurlaritzak egindako estatistiketan hiru hiztun mota agertzen dira eta horien artean bat "euskaldunberriarena" da (Ortega et al., 2016:16):

Hiru hiztun-mota daude (Eusko Jaurlaritza 2008): euskaldun zaharrak, familia-transmisioaren bidez H1 bezala euskara jasotakoak; jatorrizko elebidunak, familian hizkuntza bi jaso dituztenak; eta euskaldunberriak, Euskal Herriko Hizkuntza-adierazleen sisteman horrela definitutakoak: «ama-hizkuntza euskara ez beste hizkuntza izanik, euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten dutenak»

Baina definizio motz eta deskriptibo honetaz gain, euskaldun berriaren kontzeptuak bere bizitza propioa izan du eta, jendartearen izandako erabilerak ez du beti konnotazio positiboa eduki. Hori behintzat uste dute Ortegak eta kideek (ibid.:17), eta horregatik, horren ordezkapena proposatzen dute, bere ordezkari "hiztun berria" hautatuz³⁹:

Guk hiztun berria terminoa hobetsi dugu, nazioartean erabiltzen den new speaker aukerari jarraituz eta, termino berria denez, hiztun batzuentzat euskaldunberri terminoak daukan zama negatiborik ez daukalako.

Garrantzitsua iruditzen zaigu Ortegak eta ikerketa taldekideek egindako hautua, izan ere, beraiek dira Euskal Herrian "hiztun berriaren" (new speaker) nozioa proposatu, garatu eta zabaltzen zuten lehenengoak. 2016an argitaratutako ikerketa aitzindari horretan, nazioarteko mailan erabiltzen ari zen definizioa hartu eta euskal testuinguruari egokitzea izan zen euren zeregin nagusienetarikoa bat (Ortega et al., 2016:18):

Ikerketa hau euskararen hiztun berrien inguruko abiapuntuko lehen ikerketa sakona izanik, ikergai-subjektuaren definizioa beren beregi egin da ahalik eta modu zabalenean. Horrela ziurtatu gura

³⁹ Euskaldunberria bakarrik ez, euskaldunzaharraren nozioa ere ordezkatzeko erabaki zuten Ortegak eta kideek euren ikerketa egiteko. Horrela, euskaldunzaharraren kontzeptua alboratu eta "etxeko euskalduna" edo "euskara familian ikasi duena" erabiltzearen alde egin zuten. (Ortega et al. 2016, 17)

izan da ez dela hiztun berri profilik baztertuko hizkuntzaren, kulturaren edota jarrera politikoaren inguruko aurreiritziengatik. Beraz, ikerketa honetan, ikergai-subjetuak euskara familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak dira, haiek euren burua zein beste hiztunek edo komunitate zientifikoak hala hartu zein ez.

Ikusten denez, era kontzientean definizio zabal bat eratu nahi izan zuten, batez ere, Soziolinguistika tradizionalan (baita euskal soziolinguistikan) zabaldutako joera eta ideologietatik at egongo zena. Hauek hiztun natibo edo, jatorrizko eta ez-natiboen arteko dikotomia, ezarri ohi dute, lehenengoa nabarmen lehenetsiz eta ez-natiboa (natiboak daukan zerbait falta zaiolako) bigarren mailako hiztuntzat joz. Ortegak eta kideek diotenaren arabera, soziolinguistika klasiko edo tradizionalaren ikuspegitik:

Hizkuntza «ona», «jatorra», «gramatikala» natiboak egiten du eta berak du autoritatea hizkuntza «zuzena» zein den erabakitzeko. Horren ondorioz, ez-natiboa «ikaslea», «LH2 hiztuna», «kuasihiztuna», «semihiztuna» kontzeptuekin lotzen da sarri. (ibid.:17)

Ortega eta kideek emandako azalpenak eta egindako hautuak gureak egiten ditugu eta hiztun berria nozioari lehentasuna ematen diogu egun, euskal hiztun haur, gazte edota helduen inguruan egiten ditugun ikerketetan. Edonola ere, eta egileek beraiek aitortzen dutenez, iruditzen zaigu euskaldun berri/euskaldun zahar kategoriak oraindik indarrean daudela jendartean eta horren baitan jokatzeko dutela hiztunek. Gizartean zirkulatzen diren diskurtsoak (ideologiak) ez dira denboran zehar gehiegi aldatu eta, beste zeregin garrantzitsu batzuekin batera, diskurtso horien berritze lanari ekin behar zaiola pentsatzen dugu. Horri lotutako bi ohar egin nahiko genituzke.

Alde batetik, azpimarratu nahi dugu orain arte euskaldun berria edo hiztun berria definitzeko "ikaste" prozesuan jarri dela bereziki arreta. Horrek ardura eta presioa hiztunarengan jartzen du, eta bere emaitzen arabera prozesua burututzat emango da ala ez. Hiztunak garaipena izango du ala ez. Eta noiz iristen da garaipena? Eta noiz porrota? Noiz kontsideratu dezakegu pertsona bat hiztun berria? Zein da izendapen hori lortzeko gaitasuna beharrezko langa?

Irlandako hiztun berrien inguruan egindako ikerketa ezberdinetan antzeko gauza galdetzen diete euren buruari ordurarteko azterlan askotan hiztun(berri)en multzo handi bat ikerketari arretatik kanpo geratzen ari zela jabetu zirelako (O'Rourke eta Walsh, 2020: 149):

While new speaker research has tended to focus on more proficient speakers of (minority) languages, in outlining the four key criteria for defining new speakers as a category, Jaffe (2015) points to the wider range of speaker profiles that might be encompassed by the term. These include (a) different levels and kinds of competence and knowledge in the 'new' language(s), (b) different social milieus in which acquisition has taken place, (c) different patterns of linguistic practice and (d) different life stages at which the new speaker learned the language or began using it socially.

Guk ere Alexandra Jaffe-ren ideia ekarri nahi izan dugu honera, gogoetatzeko eta eztabaidatzeko interesgarria iruditzen zaigulako. Planteamendu horretatik bereziki baliagarria iruditzen zaigu "hiztun potentzialaren" ideia. Jafferren proposamenetik abiatuta (2015) potentzialtasun horrek bi zentzu eduki ditzakeela uste dugu. Batetik⁴⁰, hiztun berriaren nozioari prozesuaren kutsua gehitzen zaio. Bidean ari den subjeto gisa irudikatu daiteke, "in progress" moduko bat sortuz. Horrek irekiera eta dinamismoa emango lioke kontzeptuari. Ideia hauek bat datoz hizkuntz sozializazioaren paradigmarekin eta, ez-egonkortasun bat baldin badario ere, hiztunari tentsioa eta presioa arintzen zaiola iruditzen zaigu.

Bestetik, Jaffek potentzialtasunaren nozioari ematen dion zentzu kolektiboa nabarmendu nahiko genuke. Bere hitzetan (Jaffe, 2015: 22):

(...) potentiality relates to the point made above: that creating new speakers is a social project for Corsican society that is yet to be realized on a large scale.

Funtsezko gakoa iruditzen zaigu hau, hiztun berrien agerpena eta garapena, talde proiektu gisa irudikatzen delako. Era horretan, hiztun berria bilakatzeko ardura elkarbanatzen da, zereginak prozesu horretan zuzenean murgilduta dagoen hiztunari zein jendarteei egokituz.

Proiektu hau bi alde dituela dio Jaffek: batek atzera begiratzen du; beste batek aurrera. Azken horretan jartzen du bereziki arreta, hori delako Korsikan azken hamarkadetan garatutako berreskurapen prozesuak jarraitutako ildoak (ibid.: 23):

At the same time, the language revitalization processes that have taken place over the last three decades have created new forms of sociolinguistic authority and legitimacy (Jae 2011) connected with formal knowledge, written competence and mastery of "high" registers (artistic and academic). Corsican language planning is prospective in that it involves the imagination of new communities of practice of the minority language that will be created out of an amalgam of "new" and "old" speakers and ways of speaking that Corsicans today can only imagine.

Jaffek garrantzia berezia ematen dio "prospekzio" ariketa horri, hiztun berriaren profilarekin guztiz lotuta ikusten duelako: irekia, malgua, aldakorra. Ezin du beste modu batean izan, horrek irudikatzen duelako, beste ezerk baino hobeto, zer suposatzen duen hizkuntz gutxitu bateko hiztun bilakatzea hizkuntz eta kultur aldaketak jasan dituen jendarte batean. Hori somatu zuen Jaffek bere lekuan lekuko lana burutzen ari zela (ibid.: 42):

⁴⁰ Interpretazio hau gurea da, Jafferren lanak inspiratuta. Halere, esan nahi dugu, bere artikuluan "hiztun potentzialaz" hitz egiten duenean, hizkuntza ikasten ari diren helduez ari dela, eta argi bereizten du talde hori, haur eta gazteen taldeetatik. Bigarren hiztun multzo hau aparte uzten du, hezkuntza sistemaren bidez ari direlako ikasten eta murgiltze ereduetan edo daudelako euren gurasoen nahiak bultzatuta. Hau jakinda ere, guri hiztun potentzialaren ideia interesgarria iruditzen zaigu ere haur, nerabe eta gazteen kasuan aplikatzeko, eurak ere "prozesuan" ari diren hiztunak direlako.

The adult language classes I have described are not simply creating new speakers but are part of an ongoing process of individual and collective exploration of what it means to speak a minority language in a society that has undergone and is undergoing linguistic and cultural change.

Ildo horretatik, interesgarria iruditzen zaigu Jaffek hiztun berriaren kategoriari antropologo eta ikerlari gisa gehitzen dion interesa. Izan ere, gizarte posizio eta jarrera moduan (ere) irudikatzen du (ibid.: 43), testuinguru historiko eta soziopolitiko jakin bati lotuta: horren eragina jasoz baina baita ere aldaketak eragiteko gaitasunarekin (ibid.: 42).

Hiztun berria posizio gisa ulertzen badugu, interesgarria iruditzen zaigu arakatzea euskal hiztun berriek "zer dioten" jendartean duten posiziotik, zeintzuk diren euskararekiko dituzten jarrerak eta jokaerak eta zein elementu daude horien atzean. Ikuspegi horretatik, euskararen erabilerak eta "ez erabilerak" interes bera dute ikerlariarentzat, bata zein bestea hizkuntzaz, hiltunez eta gizarteaz mintzatuko direlako. Jarrera hauek erakutsiko digute zenbaterainokoa du hiztun berrien agerpenak eta garapenak proiektu kolektiboaz; noraino da hiztun ororen (zaharrak eta berriak) proiektu partekatua. Izan ere, paradoxikoa badirudi ere, testuinguru ezberdinetan Michael Hornsbyek deskribatutako egoera bitxiak topatu daitezke hiztun berrien inguruan (Hornsby, 2015: 118):

(...) "new" speakers of Breton rarely seek out native speakers when learning Breton and that, consequently, the Breton language is developing on the margins of native speaker practices.
(Pentecouteau 2002b: 53)

Era berean, - gehitzen du Hornsbyek- hiztun natibo asko urrutitik eta hoztasunez begiratzen diote hizkuntzaren biziberritze prozesuari, kasu askotan eurak izan direlako prozesu hauetatik alboratuta (ibid.).

Antzeman daitekeenez, hiztun berriaren noziak ez du arazoak konpontzeko giltza, baina maila teorikoan zein aplikatuan ezinbesteko tresna izan daiteke arazo horiei ikuspegi berri eta berritzaile batetik begiratzeko. Eta ikuspegi horren erdigunean hizkuntza baino, hiltuna egon beharko litzatekeela gehitu nahi dugu guk, hizkuntzak aurrera egingo badu, hiltunen ahaleginez egingo du. Edo ez du egingo.

4.4 HIZTUN BERRIAK ETA MUDANTZA PROZESUAK

Aurreko atalean hiztun berrien fenomenoaz mintzatu gara. Komunitate askotan zabalduetako profila dugu hau eta, aipatu den moduan, Euskal Herrian ere garrantzi handiko hiztun mota da. Esanda dago: une honetan haur eta gazteen artean gehiengo da hiztun berriaren soslai.

Jakina denez, hiztun mota berri hau hizkuntz berreskurapenarekin lotutako ahaleginetatik sortua da, nagusiki hezkuntza formalak, eskolak, egindako lanaren ondorioz. Baina argi geratu denez, hizkuntza bat ikasteak ez du esan nahi hura hitz egiteak (Pujolar eta Puigdevall, 2015). Ez Euskal Herrian, ez beste inon, bereziki gutxiutuak diren hizkuntzez ari bagara. Bereganatsetik, barneratsetik edota ikastetik erabiltzera dagoen jauzi hori izendatzeko "muda" kontzeptua mahaigaineratu da duela urte batzuetatik hona.

Horren jatorriaz hitz egin dute bere sortzaileek zenbait artikuluetan (Pujolar, Gonzalez eta Martinez, 2010; Pujolar, 2019). Joan Pujolarrek, horrela definitzen du muda: «The specific biographical junctures where individuals enact significant changes in their linguistic repertoire» (Pujolar, 2019:155)». Hau da, mudak erreferentzia egiten die bizitzan zehar hizkuntza praktikeekin lotutako aldaketeei. Aldaketa hauek izaera zein intentsitate ezberdina izan dezakete. Era berean, aldaketa horien abiapuntuan arrazoi edo motibazio diferenteak egon daitezke. Bapatekoa izan daiteke aldaketa, edota mantxoa eta progresiboa (Puigdevall et al., 2018).

Azken finean, mudak hiztunaren izaera malgua erakusten digu; izan ere, hizkuntz erregistroa espazioan zehar aldatzeaz gain (eremu batetik bestera) denboran ere eraldatu egin daitekeela ikusten dugu. Joan Pujolar eta Maite Puigdevallak diotenez, bizitza eta gizartea etengabe ari dira aldatzen eta hiztunok hizkuntza ere erabiltzen dugu baliabide gisa aldaketa horiei aurre egiteko (Pujolar eta Puigdevall, 2015:185). Muda, horren isla litzateke, hiztuna -hiztun berria gehienbat- errealitate horren parte izan nahi/behar duelaren seinale (ibid.:168)

(...) by focusing on how individuals become new speakers, we turn these phenomena into processes characterised by change, movement and maturation rather than staticity and placeness.

Muda litzateke, hortaz, ikasitako eta barneratutako hizkuntza praktikan jartzeko ahalegina eta saiakera. Hiztuna hizkuntza hori erabiltzen hasten da eta bere hizkuntz baliabideen artean txertatzen du modu konsziente batean.

Erabilpen horren izaeraz eta zabaleraz luze hitz egin daiteke eta horren gainean interpretazio ezberdinak daude. Galderak, adibidez, hauek izango lirateke: Zeintzuk dira muda baten ezaugarriak? Noiz egiaztatu daiteke (egiaztatu behar bada) muda bat gertatu dela?

Galizian, Ruben Moralejok eta Fernando Ramallok muda eta "konbertsio" prozesuak bereizten dituzte. Muda aldaketa performatiboa litzateke, egoera jakin batzuetan eman daitekeena. Jokaera puntuala litzateke, hiztuna, testuinguru jakinetan gauzatzen eta "performatzen" duena. Konbertsioak erabateko aldaketa dakar. Kasu honetan ordurarte bigarren hizkuntza zena (hiztun berria izanda edo ez) lehenengoa izatera pasatzen da. Egoera hauen aurrean egileek "hiztun berriarena" baino, "neofalantea"ren nozioa erabiltzea lehenesten dute dute (Moralejo eta Ramallo, 2019:166).

"No nos referimos a nuevos hablantes de gallego, sino a neofalantes (...). Además en este capítulo, entendemos que el proceso que caracteriza el neofalantismo en Galicia es el de conversión lingüística y no el de muda lingüística. La diferencia fundamental es que la conversión supone no sólo activar una segunda lengua, sino convertir esa segunda lengua en la primera, abandonando, en la mayor parte de los casos, la primera que se aprendió. La muda supone un cambio performativo (Pujolar y Puigdevall 2015: 169), pero no, necesariamente, una conversión. Dicho con otras palabras, toda conversión conlleva una muda, pero no toda muda implica una conversión".

Gainera, Moralejok eta Ramallok azpimarratzen dute konbertsioak hizkuntzaz gaindiko aldaketak dakartzala, batez ere, aldaketa subjektiboak (pertsonaren identitatean). Egileek horrela adierazten dute (Ibid.:167):

Entendemos el neofalantismo como un proceso de emancipación que, además de fundamentarse en una praxis que supone una reacción contra la substitución lingüística que ha determinado la sociedad gallega desde siglos atrás, implica, sobre todo, un cambio en el orden simbólico que estructura la realidad de los y las hablantes y que, además de manifestarse en el uso concreto de las lenguas, supone una transformación de calado político e ideológico en la medida en que con la conversión se transforman tradiciones, formas de vida, identidades, fidelidades personales y relaciones sociales.
(Ramallo 2018)

Ikusten denez, egile hauen proposamenean erabateko hizkuntz eraldaketa planteatzen da. Beste batzuen iritziz, aldiz, mudak izaera malguagoa eta konplexuagoa izango luke, hizkuntz ezberdinen nahasketa (*language mixing* edo *translanguaging*) barnebilduz. Adriana Patiño-Santosek gazteen arteko post-muda ikertu zuen Kataluniako eskola batean⁴¹. Bertan, katalana txiki-txikitatik ikasitako zenbait gazteek egindako muda aztertzea zuen helburu. Horretarako, ordurarte ohikoa zen teknika biografikoa alde batera utzi eta, jatorriz etorkinak ziren lau gazteen arteko hartuemanak⁴² behaketaren bidez analizatu zituen, eskolan bertan, eskolako lan bat egiten ari zirela.

Egileak ikusi zuenaren arabera, gazteen arteko elkarriketetan oso ohikoa zen hizkuntza ezberdinak erabiltzea eta nahastea. Horrela ariketa katalanez burutzen ari ziren bitartean, horren prestaketari begira zuzendutako elkarriketetan hizkuntz ezberdinak agertzen ziren, nagusiki gaztelera. Praktika hau gatazkatsua gertatzen da eskola eremuan, bertan, katalana delako hizkuntza nagusia eta bakarra. Hau da eskolaren ideologia eta bultzatzen duen diskurtsoa. Baina ikasleen arteko praktika bestelakoa da: hizkuntza ezberdinen nahasketa nagusitzen da gelan zein gelatik kanpo (pasillotan, patioan, etabar.). Hori dela eta Patiño-Santosen ustez, ikasleen arteko hizkuntza joera (*translanguaging*) eskolan emandako sozializazioaren isla litzateke. Horretaz gain, eta iritzi askoren kontra, egileak dio joera hori mudaren agerpena ere izango litzatekeela, ikasleen arteko hartu-emanak ikertuta argi antzematen delako katalana (hizkuntz) baliabide dutela eta eginbeharrekoak burutzeko era egokian erabiltzen dutela.

(...) language mixing might be seen as a threat to the chances of a “genuine” muda in Catalan ever taking place, but from the data analyzed in this article I would suggest that language mixing is a symptom of the fact that the muda has already happened. Now, speakers will make their decisions according to the particular communicative circumstances. In other words – now the speaker takes the floor.
(Patiño-Santos, 2019:131)

⁴¹ Bartzelona inguruko herri batean kokatutako eskola zen.

⁴² 15 eta 16 urteko gazteak ziren hauek, mutil bat eta hiru neska.

Patiño-Santosek azaltzen duenez, hizkuntz nahasketa horrekin lotuta, gazteek "hirugarren espazio" bat sortzen dute zeinak ahalbidetzen du katalanaren erabilera (eskolako ariketa bat egiteko bada ere). Hirugarren espazio hau gelako jardun formaletik (adibidez, irakaslearen azalpena, edota ikasleen aurkezpen bat) eta lagunarteko harreman informaleetatik bereizten da, eskola barruko "backstage" moduko bat sortuz.

Adinaz aparte (honen inguruan aurrerago hitzegingo dugu), Patiño-Santosek testuinguruaren garrantziaz ohartarazten gaitu. Izan ere, ezin dugu ahaztu gazte askoren kasuan, euren ezaugarri biografikoak (hiztun berri asko eta asko etorkinak dira edota etorkinen seme-alabak) eta duten testuingurua (familia, auzoa eta orohar, bizibaldintzak) dela eta, oso zaila -edo ia ezinezkoa- dute "erabateko" muda bat egitea. Hau horrela izanda ere, egileak erakutsi duen moduan, ikasle asko gai dira dituzten hizkuntz baliabideak erabiltzeko, nahasteko eta elkarbanatzeko "emaitza elebakar" bat ekoizteko (kasu honetan eskolako lan bat). Hori mudaren adiera litzateke egilearentzat, nahiz eta horrek ez ziurtatu, inolaz ere, hizkuntza erabiltzea egunerokotasunean, eskolatik edota gelatik kanpo (Ibid.: 129).

Patiño-Santosek ekarritako adibidea, baliagarria egiten zaigu hiztun berria zein mudaren nozioen inguruan egun oraindik dauden eztabaidak eta zalantzak mahai gainean jartzeko. Izan ere, ezin dugu ahaztu, bata zein bestea nozio berriak direla eta hamarkada eskasa daramatela horien inguruan ikerketzen eta gogoetatzen. Behin behineko egoera horren beste adibidea litzateke Bernardette O' Rourke eta John Walshen lana. Biek 2020an argitaratutako liburuan aitortzen dutenez, bost urte lehenago hiztun berrien gainean osatutako definizioa moldatzera sentitu dira behartuta. Izan ere, ikerketa ezberdinek erakutsi dute hiztun berrien definizioa zabaltzeko beharra. Horrela azaltzen dute aldaketa egileek (O'Rourke eta Walsh, 2020: 149):

More recent sociolinguistic and linguistic research on new speakers has highlighted the importance of studying this broader spectrum ranging from 'potential' to 'fluent' speakers (Ramallo & O'Rourke, 2014; Carty, 2018; O'Rourke, 2018; Smith-Christmas & Ó Murchadha, 2018). This could also include people who are less proficient in the language but who nonetheless commit to using it to some degree, including in the Irish context, those whose use is restricted to the cúpla focal (literally 'few words'). (Brennan & O'Rourke, 2019)

Hiztun berriak bihurtzeko "mugan" dauden horien garrantziaz jabetu dira egileak eta hauek erabilerara bultzatzeko beharra azpimarratzen dute. Ahalegin honetan ezinbestekoak jotzen dituzte geroago mintzagai izango ditugun babesguneak (ibid.:152).

O' Rourke eta Walshek planteatutakoan "Euskaraldiaren" filosofiaren oiartzunak antzeman daitezkeela uste dugu. Ikusten denez, hau da herrialde eta komunitate ezberdinetan berreskurapenari begira hartutako bidea. Azken finean, kasu gehienetan edo askotan hiztun berria bilakatzearen prozesuak apurka-apurka garatutako muda dakar, progresiboa eta akumulatiboa dena. Horrela ikusten dute ere Maite Puigdevall, John Walsh, Estibaliz Amorrortu eta Ane Ortegak (2018:9):

(...) in many cases mudes are cumulative processes made up of a chain of smaller mudes, rather than once-off life-changing mudes.

Esandakoaren ondorioz, ulertu behar da muda ariketa zaila eta konplexua dela. Azken finean ez da hizkuntza aldaketa soil bat. Egunerokoan ditugun hizkuntza aukerak kudeatu eta antolatzeke modu bat da eta horrek, finean, eragina du hiztun pertsona ekoizteko eta agertzeke moduan (Puigdevall et al., 2018: 2). Hau dela eta, esan daiteke muda tresna interesgarria dela hizkuntzak jendartean duen paperaz jabetzeko eta hausnartzeko. Izan ere, mudak hizkuntz-ordena edo erregimena eraldatzera, moldatzera edota ber-egitera behartu dezake eta, prozesu horretan nabarmen geratzen da hizkuntzaren garrantzia, ez bakarrik mezuak komunikatzeko garaian, baita ere jendearteko harremanak kudeatzeko, kokapen soziala ezartzeko eta subjektibitateak eratzeke orduan. Hau da, mudaren bitartez, 1) azaleratuko dira hiztunak hizkuntz ezberdinekiko dituen ezagupenak, gaitasunak eta hauen erabilera kudeatzeko habilezia, 2) agerraraziko du hiztunak gizarte egituraren duen posizioa (bere baliabideak, bere kokapena botere harremanetan, etabar), 3) agerian utziko ditu une horretan nagusi diren hizkuntz ideologiak eta subjektibitateak (hizkuntzen gaineko diskurtsoak, estereotipoak, etiketak, emozioak, etabar.).

Antzema daitekeenez, muda, (hizkuntz) aldaketa baino gehiago da. Horregatik suertatzen da hain zaila muda gertatzea, hau da, ezagupenetik erabiltzera dagoen jauzia ematea. Eta horregatik hain zuzen ere, merezi du eta komeni da muda ikertzea eta, bereziki bere izaeran sakontzea. Zertaz dago eginda muda? Zer elementu biltzen ditu mudak? Nolakoak dira muda prozesuak? Zertan datza muda bat? Zer da muda bat? Zer jardun mota inplikutzen du muda batek?

Hamarkada bat pasa da Joan Pujolarrek eta bere ikerketa kideek muda kontzeptua ezarri zutenetik. Jada gauza asko ikertu eta ikasi ditugu mudaren inguruan baina beste asko lantzeke daude oraindik. Gure ustez lehentasunezko arreta gunea izan beharko litzateke muda, besteak beste, hizkuntz gutxituen biziraupenerako funtsezkoa delako. Euskararen eta beste hizkuntz gutxituen berpiztea, neurri handi batean, hiztun berrien eskutik etorri da. Hauak ezagutzaren gorakada ekarri dute, baina, jakina da, askok arazoak dituzte erabilerarekin. Horregatik, pentsa daiteke kopuru handi bat ez dela iritsiko muda egonkor bat egitera. Egoera berdina topa dezakegu munduko beste herrialde eta komunitatea askotan. Horregatik mudaren azterketa lehentasunezko ikerlerro bilakatzen ari da soziolinguistika eremuan.

Begirada Euskal Herrian jarri aurretik, mudaren inguruan aipatutakoaz laburbildu nahiko genuke arin arin. Horretarako, Bernadette O' Rourke eta Joan Pujolar (2019) Europako hainbat lurraldeetan hiztun berrien inguruan egindako txostenean oinarrituko gara. Bertan, mudak direla-eta hainbat ideiei zerrendatzen dira (O' Rourke eta Pujolar, 2019:15):

- Hizkuntza baten ikasleak hiztunak bilakatzen dira bizitzako aldaketa aro edo transizio une batean.
- Aldaketa une horietan harreman sare berriak sortzeko aukera gertatzen da. Sare berri hauetan hiztun berriek askatasun gehiago izaten dute nahi duten hizkuntza erabiltzeko. Jada, ez daude aurreko etiketen pean.

- Gehienetan, muda pertenezia gogo batekin dator: sare batean txertatzeko edota espazio ala jardun baten parte izateko. Gogo honek bultzatuta, orain arte erabiltzen ez zen baliabide bat (hizkuntza bat kasu honetan) erabiltzeko hautua agertzen da.
- Aurretik esandakoaren ondorioz, ikusten da muda ez dagoela halabeharrez (ezta gehienetan ere) lotuta identitate etnokultural edo abertzale batekin. Modu honetan, hizkuntza eta nazioaren arteko lotura erromantikoa apurtu egiten da.
- Muda egoera hauetan agerian geratzen dena hiztunaren agentzia da: hiztunak hizkuntza bat ezagutzen du eta, baldintza egokiak ematen direlako, egunerokotasunean praktikan jartzea erabakitzen du.
- Hitztunek ezin dute muda eurek bakarrik egin, beste hiztun batzuen laguntza behar dute, besteak beste, hiztun legitimo gisa aitortua izateko.
- Orain arte dakigunaren arabera, muda gehienak helduaroan gertatzen dira.

Azkenengo puntu honek zalantzak sortzen dizkigu. Baita jakinmina ere. Egile ezberdinek diotenez, muda egin ahal izateko "heldutasun" puntu bat behar da, askotan bizitzako gora beherak baitira muda egitera bultzatzen dutenak (Puigdevall et al., 2018:2):

*(...) by focusing on 'how individuals become new speakers, we turn these phenomena into processes characterised by change, movement and maturation rather than staticity and placeness'.
(Pujolar and Puigdevall 2015, 168)*

Baina zalantza dugu, heldutasun maila hori derrigorrezko baldintza den muda gertatzeko edota "muda jakin" bat gertatzeko, orohar, helduen ikuspegitik baliogarria dena edota "egokitza" jotzen duguna. Nerabezaroak edota gaztaroak bere ezaugarri propioak dituztela onartzen badugu, agian pentsa daiteke egoera eta ezaugarri horietara egokitutako muda izan beharko genukeela jomuga. Azken finean, muda denboran eta espazioan kokatutako hautua eta *performancea* bada, zentzua du hori nerabe eta gazteen denboran eta espazioan kokatzea eta testuinguru horretatik aztertzea, ulertzea, eta, horrela badagokio, bultzatzea.

Ildo horretatik tiraka, iruditzen zaigu agian "muda"ri buruz hitzegitea baino "mudei" buruz hitzegitea litzatekeela egokiena; "muda" egiteko, ulertzeko eta bizitzeko modu bakarra ez dagoelako. Eta horregatik inportantea iruditzen zaigu, nerabe edota gazteei buruz ari garela, eurentzat, euren errealitatean baliogarria izan daitekeen muda kontzeptu bat erabiltzea eta aplikatzea. Eta gero, noski, elkarriketa eta eztabaida bat sortzea helduaroan sortu daitezkeen muda ezberdinekin. Azken finean, muda berebiziko lotura du bizitzarekin, hiztunen biografiekin. Hori dela eta, ezin dugu ahaztu gazteekin ari garela, hau da, etorkizunean izango diren hiztun helduez ari garela. Eta alderantziz, helduekin ari garenean, interesgarria izan daiteke atzera begiratzea eta distantziatik ikustea eta aztertzea gaztaroan izandako hiztun hori. Ildo horretan sakondu du Kathryn Woolardek Katalunian urteetan egindako lan bikainean. "Singular and Plural" (2016) liburuan, Woolardek 1980. hamarkadan elkarriketatutako gazteengana bueltatzen

da, euren (hizkuntz) errealtatea ezagutzeko eta hizkuntzaren gaineko hausnarketa jasotzeko. Landutako gai ezberdinen artean, benetan interesgarria suertatzen da ikustea garai bateko gazteek eta egungo helduek zein nolako kontakizuna egiten duten (euren) nerabezaroaren inguruan eta garai hartako hiztun gisa izandako bizipenen inguruan. Beste ezer baino, bizitzak dakartzaten aldaketak eta aldaketek bizitzan duten eragina nabarmentzen dira (Woolard, 2016:276): «(...) transformation as a matter of maturation, an opening of the mind against the closed-minded preoccupations of adolescence».

Azken finetan, Joan Pujolarrek dioenez, muden ikerketak denborari buruz hausnartzera behartzen gaitu, eta bai hizkuntza bai soziolinguistika beste begi batzuekin begiratzera (Pujolar, 2019:169):

The notion of muda, I would argue, also contributes to develop so-called “longitudinal” or “life cycle” perspectives on the study of multilingualism more generally.

Mudek prozesu soziolinguistikoez hitz egiten digute (Pujolar, 2019: 166).

Euskal Herrian, une honetan, muden inguruko hainbat ikerketa daude martxan. Agian bada momentua, Woolardek egindakoaren harira, ikerketa longitudinal bat planifikatzen hasteko. Interesagarria litzateke, muden gainean informazio gehiago jasotzeko, eta, bide batez, euskal ikerkuntzan tradizio gutxi duen ikerketa mota, longitudinala alegia, elikatzeke.

Hiztun berrien inguruan irekitako bideari jarraibidea emanaz, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega eta Jone Goirigolzarri aitzindariak izan dira muden azterketan ere. 2016-2019 urteetan zehar muden gaineko lehenengo ikerketa burutu zuten eta azken boladan ari dira horren ondorio nagusiak plazaratzen. Kasu honetan unibertsitateko ikasleen artean gertatutako mudetan jarri zuten arreta eta gazte horiek (18 urte ingurukoak) izan ziren euren ikerketa subjektuak.

Ikerketa horren ondorioz, egileek ikasleen mudak bultzatu edota oztopatzen dituzten aldagaiak zehaztu zituzten; baita, mudak gertatzeko erabiltzen ohi diren estrategiak. Ikus ditzagun bi aspektu hauek.

Batetik, hauek izango lirateke mudak gertatzeko, edo ez gertatzeko, eragiten duten elementuak (Goirigolzarri et al., 2019:36-38): 1) hiztunek euren gaitasunen gainean duten iritzia edo irudia; 2) euskara erabiltzeko unean sentitzen duten konfidantza eta erosotasuna; 3) bakarrik batua jakitea; 4) aurreiritzien multzoa; 5) interlokutorearen iritziak eta sentimenduak (hau da, pentsatzea: zer pentsatuko du (elkarriketa kideak) euskaraz egiten badut?); 6) momentuan bizitutako emozioak, negatiboak ala positiboak.

Bestetik, ikerketa dela medio, Goirigolzarrik, Amorrortu eta Ortegak hiztunek muda gertatzeko erabiltzen dituzten zenbait estrategia eta baliabide aipatzen dituzte (ibid.:39-40): 1) muda egiteko egokiak izan daitezkeen pertsonak aukeratu; 2) konfidantzazko espazioak aukeratu, konplizitatea bultzatuko duten guneak; 3) muda prozesu gisa irudikatu, iraunkorra eta progresiboa; 4) bikoteka edo talde txikietan hitz egin; 5) hizkuntzen alternatziekin jokatu; 6) besteen aurrean euskararekin identifikatua izatea lortu.

Aurretik jakina zenez (Pujolar, Gonzalez eta Martinez, 2010) eta Goirigolzarrik eta bere taldekideek ere ondorioztatu dutenez, unibertsitatea une eta gune aproposa da mudak gertatzeko. Baldintza onak ematen dira bertan hori suertatzeko, baina, egileek gaineratzen duten moduan, aukera pasatzen utz dezakete gazteek hausnarketa eta kontzientziazio lan bat egiten ez bada (Goirigolzarri et al., 2019: 44).

Unibertsitatea mudarako gune aproposa den moduan, uste dugu aisialdiak eta, bereziki kirolak, aukera asko eskeintzen dituela hizkuntz aldaketa gertatzeko. Baina mudantza ez da berez etorriko, hori gertatzeko baldintzak sortu behar dira, dinamika jakin batzuk bultzatu, eta emozionalki zein ideologikoki euskararen hautua sostengatuko duen egitura bat eratu. Ideologiak, ideiak, irudikapen, erreferente, ereduak, leloak, eta abar ezinbesteko papera dute hizkuntz hautuen aurrean. Horregatik, gazteek, hizkuntzaren inguruan maneiatzen dituzten ideiak, iritziak, ikuspegiak, aurreikuspenak, nahiak, etabar, sakonki ikertu beharrekoak direla uste dugu. Hizkuntza-ideologiak dira hauek, gazteen eremuetan ez ezik, gizarte osoan zabaltzen eta barraiatzen direnak, eta erabilera geldiarazten edota hauspotzen lagundu dezaketeenak.

Ideologiaren azterketak gako interesgarriak emango dizkigu gazteek euskararen eremuan duten kokapena ezagutzeko eta euren jokabideak hobeto ulertzeko. Mahai gainean, adibidez, horrelako galderak daude: egun euskararen inguruan zirkulatzen ari diren ideiak eta ideologiak, non kokatzen dituzte gazteak? Zein leku uzten diete? Zein paper ematen diete? Eta horren aurrean zeintzuk dira gazteen erantzunak?

Bat egiten dugu Ruben Moralejok eta Fernando Ramallok diotenarekin: hizkuntza-ideologia funtsezko gako bat da ezagupenetik erabilerarako jauzia emateko (Moralejo eta Ramallo, 2019:189). Horregatik, garrantzitsua irudi zaigu txosten honetan gai honi atal bat eskaintzea. Azter ditzagun jarraian, gai honen inguruan bildutako zenbait ohar eta gogoeta.

5 HIZKUNTZA-IDEOLOGIAK. GERTURAPEN OROKOR BAT

Gurean "ideologia" hitz nahiko arrunta da eta erabilera edo zentzu anitzekoa. Hortik batzuetan sortzen den nahasmena. Euskararen kasuan, hainbatetan, ideologia alderdi politikoen jardunarekin lotu izan da. Horregatik batzuetan entzun dugu euskara politizatuta eta ideologizatuta egon dela edo dagoela. Kasu honetan, eremu publikoan, komunikabideetan alderdi politikoek eta zehazki euren buruzagiek hizkuntzaren inguruan egindako adierazpenei eta diskurtsoei egin ohi zaio erreferentzia. Baina, aurrerago aipatuko dugun moduan, ideologia ez du bakarrik jardun politikoak sortzen; eta ez da bakarrik komunikabideen diskurtsoen bidez zabaltzen. Ideologiak, orohar, eta hizkuntz-ideologiak zehazki, izaera konplexuagoa eta mamitsuagoa du.

Soziolinguistika Eskuliburua (Zarraga et al., 2010) izeneko lanak, kapitulu oso bat eskaintzen dio hizkuntza-ideologiari. Horren egileek (Lionel Joly eta Belen Uranga) gaiaren garrantzia nabarmentzen dute, besteak beste, hizkuntz ideologia(k) eta hizkuntza jarreraren arteko loturak direla medio (Joly eta Uranga, 2010: 185):

Hiztun-komunitatearen errealitateak, hiztunen ideologiak eta abar, hiztunengan jarrera batzuk ala beste batzuk izatea ekarriko du eta horrek, zalantzarik gabe, eragin zuzena izango du hiztunen jardueran, hizkuntza bat ala bestea hautatzean, hizkuntza baten aldaera bat ala besta erabiltzean.

Hizkuntza-ideologiaren gainean plazaratu nahi dugun ikuspegia azaldu aurretik, egile hauek, ideologia nozioaren inguruan eta, zehazki, hizkuntza-ideologiaren inguruan (edo, eurek dioten moduan, "ideologia linguistikoa"ren inguruan) erabiltzen dituzten definizioak ekarri nahi ditugu abiapuntu gisa.

Aurrena, Jolyk eta Urangak Harxulet Hiztegi enziklopedikora jotzen dute ideologia zer den definitzeko (ibid.:186):

Garai, gizarte, talde, klase edo pertsona baten ideia-sistema, nolabaiteko doktrina filosofikoaren atala osatzen duena eta banakoaren nahiz taldearen jokabidea baldintzatzen duena.

Eta oinarri hau hartuta, hizkuntza eremura egiten dute jauzi, bertan ideologia nola gauzatzen den ezaugarrituz. Horretarako, Kataluniako hiztegi soziolinguistikoaren definizioaz baliatzen dira (ibid.):

Hizkuntzaz hiztunak dituen sinesmen-multzoak dira, estruktura eta erabilera linguistikoa hautemateko duen modua arrazionalizatze edo justifikatzeko.

Definizio hau UZEIk hizkuntz-ideologiaren inguruan ematen dutenarekin osatzen dute (ibid.:187):

Pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da.

Egileen ustez, hizkuntza-ideologia hizkuntza-irudikapenen, hizkuntza-jarreraren, hizkuntza-motibazioen eta hizkuntza-portaeren hiperonimo moduan uler daiteke (ibid.:187) eta, hortaz, ikerlariak kontzeptu hauek marrazten duten eremu semantikoen inguruan aritu beharko lukete hura aztertu nahi izatekotan. Zehazki, hau litzateke hizkuntza-ideologiaren arloa arakatu nahi dutenen zeregina (ibid.:186):

Hiztunak hizkuntzei balio morala, soziala edo politikoa ematen die. Ideologia linguistikoen ikerketa-eremua konstruktuko kognitibo-afektibo horien azterketa da. Pertsonak hizkuntzei buruz egiten dituzten balorazioak aztertzea, alegia.

Jolyk eta Urangak azaltzen duten moduan, hizkuntza-ideologiaren nozioa hizkuntz antropologian hasi zen erabiltzen eta hortik, soziolinguistikaren eremura zabaltzen. Gaur egun, ikerketa lerro garrantzitsua da, ikuspegi eta planteamendu ezberdinak biltzen dituen, nazioarteko testuinguruan ez ezik, Europako hizkuntz gutxituen inguruan garatutako ikerketa arloan ere bai. Jada zerrenda luze xamar osatu daiteke hizkuntz ideologiak mintzatzen diren egileez eta azterlanez. Denak aipatzea ez da gure helburua, baina horietako batzuetan bildutako hausnarketetatik hainbat gako nabarmendu nahiko genituzke gure testuinguruan aplikagarriak direlakoan gaudelako.

Helburua, hizkuntza-ideologia ulertzeko proposamen zabala osatzea litzateke, euskal hiztunen errealitate konplexua ahalik eta modu osatuenean irudikatzeak. Horretarako Kathryn A. Woolard eta Bambi B. Shieffelinek (1994) hizkuntza-ideologiaren inguruan egindako hainbat gogoeta hartuko ditugu abiapuntu gisa.

Esandakoak esanda, une honetan, definizio zehatz bat eman baino, nahiago izan dugu horren oinarrian funtsezkotzat jotzen ditugun zenbait ideia azaltzea. Zehazki, hiru aspektu iruditzen zaizkigu bereziki azpimarragarriak, hain zuzen ere, jarraian azaltzen direnak.

a. Hizkuntza-ideologiak hizkuntza gainditzen du

Aurreko lerroetan ikusi dugun moduan, hizkuntz ideologia(k) definitzeko garaian ohikoa izan da hizkuntzak erdigunea hartzea, eta bereziki honen gainean sortutako ideiak edota balioak. Planteamendu hau abiapuntu moduan baliagarria bada ere, uste dugu hizkuntza-ideologiez mintzatzean hizkuntzaz gaindiko errealitateaz ere ari garela. Zentzu horretan, egokiagoa iruditzen zaigu Woolard eta Shieffelinek proposatutakoa (1994:55-56):

Ideologies of language are significant for social as well as linguistic analysis because they are not only about language. Rather, such ideologies envision and enact links of language to group and personal identity, to aesthetics, to morality, and to epistemology.

Ikuspegi hau oso erabilgarria iruditzen zaigu, besteak beste, behartzen gaituelako hizkuntza testuinguru zabalago batean kokatzen eta aztertzen. Antropologo gisa hau ezinbestean egin beharreko ariketa da, Alessandro Durantik (2000) hizkuntz antropologia definitzean gogorarazten digun moduan. Durantiren ustez, antropologoek lana hizkuntza baliabide kultural gisa eta praktika multzo bat bezala

ulertzea litzateke, hizkuntza eta hizkuntza praktikak munduan izan eta egoteko modu baten adiera eta isla direlarik. Modu horretan, hiztunek hizkuntzei buruz ari direnean (gure kasuan euskara, gaztelera edota frantsesari buruz ari direnean) euren munduez, bizimoduez eta errealiteez esaten diguten horretan ere erreparatu beharko genuke, hizkuntza testuinguru zabal horretatik bereiztu ezin delako.

Gure ikeremura ekarrita, alegia, hiztun gazteen eremura, ideia horrek balio digu beste behin hizkuntza eta gazte kulturen arteko lotura azpimarratzeko. Gure ustez, hiztun gazteen hizkuntza-ideologiak aztertzeke, ezinbestekoa da hizkuntzek euren erreferentziazko munduetan duten tokia eta papera ulertzea. Hau da, hizkuntza gazteen testuingurutik begiratu eta interpretatu beharko genuke. Edo, alderantziz, gazteen kultura hizkuntzaren betaurrekoetatik aztertu. Norabidea edozein izanda ere, azpimarratu nahi dugu hizkuntza eta testuingurua zabalagoaren arteko lotura eta hizkuntza-ideologiak ikertzeke biak presente egoteko beharra.

b. Hizkuntza-ideologia gizarte egitura eta hizkuntza hautuen arteko zubia da

Ikerlariak hizkuntza-ideologia ezberdinen trazak antzeman ohi dituzte hiztunek hizkuntzen gainean osatutako diskurtsoetan. Era horretan, diskurtsoak ideologiaren "edukiontzia" lirateke eta hiztunen pentsamendu, iritzi edo balioak bertan islatuta agertuko lirateke. Horrela, hizkuntza-ideologia hizkuntza bat edo batzuen gainean egindako balorazio gisa irudikatzen da, neurri batean errealitatean eta praktikan duen botera eta eragina gutxietziz.

Uste dugu hizkuntza-ideologia balorazio, iritzi, uste edo/eta diskurtsoez haratago doala, eta errealitatean parte hartzeke eta eragiteke indarra handia duela. Aurreko puntuan azaldutakoaren harira, ideologiak betetzen duen bitartekaritza lana azpimarratu nahi dugu, besteak beste, gizarte egiturak eta hizkuntz hautaketaren arteko lotura gauzatzen duelako. Woolard eta Shieffelinek horrela azaltzen dute ideia hau (1994:72):

The topic of language ideology is a much-needed bridge between linguistic and social theory, because it relates the microculture of communicative action to political economic considerations of power and social inequality, confronting macrosocial constraints on language behavior.

Hizkuntza-ideologiak hiztunak gizarte egituraren duen kokapena adierazten du, klase soziala, generoa, jatorria, adina edo bestelako aldagaiak bertan biltzen direlarik. Hortik egiten ditu bere (hizkuntz) balorazioa(k) eta hautua(k); beregan sozialki espero dena betetzen edota, urratzen. Ideologia beraz, ez da diskurtso edota iritzi soila; ezta hiztunaren barruan gertatzen den eraikuntza kognitiboa bakarrik. Gizarte egiturarekin du harremana eta, aldi berean, hizkuntza hautuan du isla, bien artean suertatzen den tarte bat betez.

Era horretan, gazteen hizkuntza-ideologiak aztertzen baditugu, ezin dugu ahaztu beste ezer baino lehen gazte gisa gizarte egituraren duten tokitik ariko direla. Horri, esan den moduan, bestelako aldagai sozialen eragina gehitu beharko genioke, izan generoa, klasea, jatorria, etabar. Bestalde, gazteen hizkuntza hautuak, kokapen horrek eskainitako aukerei ematen dieten "erantzuna" lirateke, hizkuntzen aurrean jarrera jakin bat gorpuztuz.

(Hizkuntza) ideologiak beraz badu dimentsio makrotik eta mikrotik, egituratik zein harremanetatik; ideiak eta balioak, (norbanakoaren) kognizioetatik gaindi bizi direlaren seinale.

c. Hizkuntza-ideologiak askotariko agentziak biltzen ditu

Goian aipatutakoaren ildotik, hirugarren ideia edo aspektu bat azpimarratu nahiko genuke hizkuntza-ideologiez hitz egiteko ordua: hizkuntzek, bere arlo subjektiboak barne, duten dimentsio soziala, erakia eta praktikoa, alegia.

Hau azaldu aurretik gure burua "praktiken azterketaren" tradizioan kokatzen dugula argitu nahiko genuke. Paradigma hau 1960. hamarkadan azaleratu zen - batez ere hizkuntza antropologiaren eremuan- Ferdinand de Saussure eta Noam Chomsky bezalako hizkuntzalariak garatzen ari ziren hizkuntzaren gaineko ikuspegia kontrajarriz. Atzera begira jarri eta, Laura M. Ahearnek horrela azaltzen du momentu hura (Ahearn, 2001:110):

Whereas most linguists follow de Saussure (1986) and Chomsky (1965, 1986) in studying language as a set of formal structures set apart from everyday interactions ("langue" rather than "parole," and "competence" rather than "performance"), most linguistic anthropologists regard language as a form of social action, a cultural resource, and a set of sociocultural practices.
(Schieffelin, 1990:16)

Pertsonok hitzekin gauzak egiten ditugula azpimarratzen du Ahearnek. Horrek norabide bikoitza izango luke: batetik, hitzen eta, orohar, hizkuntzaren bidez errealitatea eraikitzen dugu; bestetik, (gure) hitzak eta hizkuntza errealitate horren isla dira, hiztunok gizarte egituretan zein harremanetan murgilduta baikaude (Ahearn, 2001).

Era horretan, hizkuntza ulertu dezakegu ekintza edo jarduera sozial gisa (*form of social action*) eta, testuingurua baldintzatzeko gaitasuna edukitzeaz gain, testuinguruaren eragina jasotzen du hala beharrez. Harremanek edota botere dinamikak lotura zuzena dute hizkuntzarekin eta horregatik hizkuntza guztiek, edota hitz egiteko modu guztiek ez dute -sozialki- pisu edo prestigio berdina. Ikuspegi horretatik, jakina, hizkuntzak ez du "bakarrik" informazioa transmititzen edo garraiatzen, «(...) linguistic anthropologists view language as a vehicle that people themselves are continually in the process of building together (Ahearn, 2001:111)». Hizkuntzek eta hitzek mataza bat ehuntzen dute mundua osatzen duten era guztietako elementuekin, izan bizidunak zein bizigabeak.

Praktika guzti hauen artean kokatzen dugu hizkuntza-ideologia, hizkuntzarekin lotutako ideiak, irudiak edota errepresentazioak, hauek hizkuntza praktiketan parte hartzen duten agente guztien fruitua izanik. Hitztunaz gain, bere testuinguru hurbila, hizkuntza politika zein hizkuntza plangintzarekin lotutako eragileak, soziolinguistek edota hizkuntzaren gaineko ikerlariak..., denon agentzia ikus daiteke hizkuntz ideologi(ar)en aztarnetan. Zentzu horretan hizkuntza-ideologia aztertzeke hitzunaren ikuspegia gainditu behar dugula uste dugu, hitzun "horretan" parte hartzen duten eragile ezberdinak antzematen. Azken helburua, hizkuntza-ideologiaren eremuan munduak, gizarteak eta bere (g)izakiek duten partehartzea

nabarmentzea litzateke: «the agency of speaking subjects, and to a historicized image of language as constructed by human action (Woolard 2016, 30-31)».

Ideologiak ere ekintzak dira, eta horren konzientzia hartzea garrantzitsua dela uste dugu, batez ere hiztun gazteei buruz ari garela. Izan ere azkenengo hamarkadetan helduok (hizkuntza eragile, ikerlariok eta abar) gazteak arazo bilakatu ditugu eta, egun, euren hizkuntza-ideologiak ezin dira ulertu urte hauetan hiztun gazteei zuzendutako lan ildo, politika, jarduera edota egitasmoek sortutako ondorioetan erreparatu gabe. Gazteen diskurtsoetan eragin hauek somatzen eta irakurtzen jakin behar dugu, baita horien aurrean hiztunek adierazitako jarrerak.

Laburbilduz eta goian aipatutako hiru ideia hauek azaldu ondoren, esan daiteke, hizkuntza-ideologiaz hitz egitean elementu hauek ari garela haintzat hartzen:

- Hizkuntza ez ezik, hizkuntza inguratzen duten testuinguru sozial eta kulturala, bere erreferentziazko mundua.
- Hizkuntzak, hiztunen bidez duen kokapen soziala eta hori men egiteko zein eraldatzeko egindako saiakerak eta praktikak.
- Hizkuntzak praktika gisa duen bilgune izaera, bertan eragina eta agentzi ezberdinak elkartzen direlarik. Hizkuntza praktikak, hizkuntz ideologia barne, agentzia guzti hauen ondorioa litzateke, giza jarduna denaren seinale.

Modu horretan, hiztunen hizkuntza-ideologia (euren) diskurtsoen bidez aztertu nahi badugu ere, horien testuinguru soziokulturala, kokapena eta eragileak jaso eta ikertu beharko ditugu. Gure ustez elementu hauek guztiak presente daudelako hizkuntza eta hizkuntz praktikak deskribatzeko orduan hiztunak erabiltzen duen diskurtsoan eta errelatoan. Hortik abiatuta, bertan - Timothy Currie Armstrongek (2014:573) dionez- topatu ahal izango dugu: «(...) a coherent set of beliefs, attitudes, and norms that describes the value of a language and how it should be used».

Hizkuntz ideologiaren nozioa arakatu ondoren, hiztun gazteengana hurbildu nahi dugu, maila teoriko eta abstraktoan landutakoa gure gertuko errealitatean kokatzeko eta bertatik aztertzeke. Zeregin horretan bi helburu nagusi ditugu. Batetik, egungo euskal gazteriak zein ideologia dituzten eskura aztertzea; bestetik, hiztun gazteengan ideologi horiek duten eragina antzematea. Beti ere, hiztun berriengan arreta berezia jarritz.

5.1 EUSKAL GAZTE HIZTUNAK: BELAUNALDI BERRIA, BETIKO LELOAK?

Asko hitz egin eta eztabaidatu da euskarari buruz baina, gutxiago gogoetatu da, diskurtso guzti horiek sortutako ondorioen inguruan (Hernández, Martínez de Luna, Olaso, 2006) edota hizkuntza plangintzatik bultzatutako mezuen eta leloen eraginari buruz (Järlehed, 2008). Gauza bera esan daiteke, euskal soziolinguistikari buruz. Aztertzeke daude diziplinaren oinarri ideologikoak eta horiek hiztunengan izandako eragina (Bucholtz, 2003). Arrazoi batengatik edo besteengatik, gutxi

dakigu euskararen gaineko ideologiei buruz; bai egindako ibilbideari buruz, bai ezaugarriei buruz.⁴³

Dena dela, azken urteotan, ikerlerro honen gaineko interesa somatzen ari da, batez ere, hiztun berrien eremuan murgiltzen diren ikerlarien aldetik. Izan ere, gero eta ageriagoa geratzen ari da hiztun berriek zer esan handia dutela hizkuntz gutxituen etorkizunean (O' Rourke eta Pujolar, 2019) eta zeregin horretan hizkuntza-ideologia funtsezko aldagaia dela. Jakin badakigu, hiztun berrien partehartzea oso baldintzatuta dagoela komunitateak eurengan duen irudiarengatik eta, batez ere, komunitateak hiztun gisa aitortzen dien legitimitate mailarengatik (Artetxe, 2018). Hori litzateke, hain zuzen ere, hizkuntz-ideologiaren indargune garrantzitsuenetarikoa bat: gaitasuna dute hiztunak bereizteko eta sailkatzeko. Batzuk hiztun legitimitzat hartzen dira, eta beste batzuk ez (Bucholtz, 2003:400).

Bestalde, bat egiten dugu Juan Sebastián Ferrada, Mary Bucholtz eta Meghan Corellarekin (2020) hizkuntza-ideologiak aztertzeke eta ulertzeke tresnek hiztun (berri) gazteen agentzia bultzatzeko duten ahalmena nabarmentzen dutenean. Ildo beretik doa Timothy Currie Armstrong-en proposamena, hizkuntza bat ikastea "kode" bat bereganatzea baino gehiago izan behar duela aldarrikatzen duenean. Hizkuntz gutxituen kasuan, kodigoaz gain, edo kodigoarekin batera erabilerarako gizarte praktikak ere barneratu behar direla azpimarratzen du egileak (2014: 580-581):

In this respect, parents' and children's language learning should be understood, not simply as acquiring an abstract code, but also as learning a situated social practice, including learning the skills required to negotiate minority language use.

Euskal Herrira itzuliz, berriz aipatu nahi dugu hizkuntza-ideologiaren gaineko kezka egonik ere ez dela ikerlerro gisa egonkortu. Hau esanda ere, Jacqueline Urlak eremu honetan egindako ekarpena nabarmendu nahiko genuke. Bere lanean, esate baterako, argi geratzen da hizkuntza gutxituen berreskurapenak dakarren karga ideologikoa (Urla, 1999:46). Hau ikustarazteko Urlak hizkuntza plangintzaren adibidea jartzen du. Egilearen ustez, hau hizkuntz politikak duen tresna eraginkorrenetarikoa izan daiteke, biziberritzerako urratsak irudikatzeaz gain, erabileran eta hizkuntza bera ulertzeke eta pentsatzeko moduan eragina duelako. Urlak aipatzen duenez, hizkuntza plangintzaren testuinguruan euskaraz egiteak esanahi politiko berri bat bereganatzen du: «it is a cultural responsibility (Urla, 1988: 388)».

Urlak ideia hau planteatzen zuen unean (1990. hamarkadaren amaieran) aldaketa nabarmenak gertatzen ari ziren euskararen arloan. Goian ikusi dugunez, erakunde publikoen protagonismoarekin batera, hizkuntzaren inguruko mugimendu sozialaren pisua azpimarratu beharko litzateke. Lehenengoentzat hizkuntza politika eta plangintza botereari eta ardura instituzionalari lotuta bazeuden ere, bigarrenengoan kasuan, politika eta plangintza horiek nagusiki kulturarekin harremana zuten.

⁴³ Salbuespenen artean, aurrerago aipatuko den Jacqueline Urlaren lana eta Lionel Jolyk 2004. urtean Sorbona unibertsitatean aurkeztutako doktorego-tesia egongo lirateke. Ikergaia zabalagoa bazen ere, Jolyk kapitulu oso bat eskaini zion hizkuntzen gaineko errepresentazioei, hain zuzen ere: Euskal Herriko hizkuntzei buruzko errepresentazioen errealitatearen analisiari.

Horrela, euskara, hiztun guztion ondare gisa irudikatzen hasi zen, hiztun hauen kokapen politikoa edozein zelarik ere (Legorburu, 2020: 34).

Halere, teorikoki diskurtsoak eraberritzeko urratsak eman badira ere, praktikan (eta beste hizkuntz gutxituetan gertatzen den moduan) hiztun natiboak jarraitzen du berreskurapenaren prozesuaren erdigunea betetzen. Bernadette O'Rourke eta Joan Pujolarrek dioten moduan (2019: 17): «In a sense, language revitalisation has 'needed' the notion of the native speaker as someone who produces ideal, legitimate, authentic, traditional speech».

Egileek gogorarazten diguten moduan, hiztun natiboaren inguruan eratutako paradigma XIX. mendean amaieran indarrean zegoen soziolinguistikaren ajea litzateke eta ez du balio egungo egoerari aurre egiteko. Hiztun berriaren nozioak aurretiko paradigma eta pribilegioak ezбайдan jartzen ditu eta hizkuntza, identitatea, kapitala eta pertenezia hiztun berri horiekin negoziatzea ezinbestekoa dirudi (ibid.:18). Halere, hau nekez gertatzen da, ez Euskal Herrian, ez hizkuntz gutxitua duten beste herrialde askotan.

Azken urteotan egindako ikerketetan parte hartu duten gazteek, hizkuntza politika eta plangintzaren aroan hazi dira eta murgiltze ereduetan hezituak izan dira. Euskararen normalizaziorako sortu eta diseinatutako estrategien erdigunean egon dira kokatuta (Urla, 1988:387). Hein handi batean, denak dira hiztun berriak, euskarak aurretik inoiz ezagutu ez zuen egoera baten fruitua direlako. Halere, instituzionalizazioak aro berri bat ekarri bazuen ere, ez zuen aurrekoa guztiz ordezkatu. Egun ere euskararen eremuan diskurtso zaharrak eta berriak elkarrekin bizi dira eta, zentzu horretan, egokiago dirudi ideologia ezberdinen zirkulazioaz hitz egitea, zeinetan aintzinako ideiak eta berriak nahasten dira, edota ideologiaren sorburu diren eremu ezberdinen arteko eraginak antzematen dira (Armstrong, 2014:578).

Ideologia ezberdin hauen artean, batzuk euskal "hiztun berrien" profilarekin lotuta agertzen zaizkigu. Eta ezin dugu ahaztu hau dela, gazteei dagokienez, azken urteotan nagusitzen ari den soslai (Ortega et al., 2014). Ane Ortega, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jacqueline Urla eta Belen Urangak hiztun berri hauen hizkuntz identitateetan arakatzea erabaki zuten, egun Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntz ideologietara iritsi ahal izateko (ibid.: 89-90):

El estudio de las identidades lingüísticas nos interesa por su capacidad para explicar las ideologías que subyacen en lo que la comunidad considera que es un «verdadero» hablante de euskera y un hablante legítimo. Interesa descubrir si los nuevos hablantes son considerados hablantes legítimos de euskera o no (por sí mismos y por los demás), y en base a qué criterios; interesa también saber si las identidades lingüísticas que habitan son fijas o si se puede progresar hacia identidades más legitimadas; si, tal como defiende Bucholtz (2003), la legitimidad debe entenderse como procesos de legitimación negociados por la práctica social; interesa también identificar cuáles son los factores que en el contexto vasco funcionan como vías para la legitimación.

Egile hauek topatutakoa berretsi ahal izan dugu azkenengo ikerketetan, alegia, hiztun natiboek duten legitimazioa eta horrek traba suposatzen duela hiztun

berrientzako: "Según nuestros datos, el hablante nativo es una identidad que no se puede alcanzar" (ibid.). Ezintasun horri aurre egiteko naturalizazioaren diskurtsoak azaleratzen dira nonahi. Aurretik aipatu denez, askorentzat, gazte euskaldunak familia euskaldunetakoak dira. Horiek lirake "benetako" euskaldunak eta euskaraz hitz egiten duten gazteak horiek direla irudikatzen da. Benekotasunaren ideiak indarra handia du oraindik: «The primary significance of the authentic voice is what it signals about *who* one is, rather than *what* one has to say" (Woolard, 2016: 22)».

Euskal Herriko kasuan ikusi dugu gazteek hizkuntzarekin lotutako itxurakeria ("postureoa" euren hitzetan) erabat baztertzen dutela, naturaltasuna⁴⁴ gorapatuz. Hitzun legitimo izateko, natural agertu behar da. Eta hau nagusiki lortzen da hizkuntza familian edota, hainbat kasuetan kalean⁴⁵ ikasten bada. Bide hauetatik hizkuntza modu naturalean eta "inskonszientean" barneratuko da eta era autentikoan (sinesgarrian) agertuko da.

Diskurtso hau aurreiritziz eta estereotipoz beterik dago, goian esan dugun moduan, frankismotik (eta aurreko garaietatik ere) eratorriak direnak. Hizkuntza eremua da egun gazteentzat orokorrean eta hitzun berrientzat bereziki euskaraz murgiltzeko esparru nagusia eta, askorentzat, bakarra. Halere, egindako ikerketetan ikusi izan dugunaren arabera, eskola ez dela gai izan, ideia horiek iraultzeko. Neurri batean, ideologia sendotzeko ere baliogarria izan dela pentsa daiteke. Armstrongek eskola definitzeko erabiltzen dituen hitzak datozkigu burura: «a particular influential site of ideological reproduction (2014:578)».

Gauzak horrela, eman dezagun beste urrats bat gurean garrantzia duen (hizkuntz) naturalizazioaren ideian sakontzeko, eta horrekin lotutako nozioak azaltzeko, besteak beste benekotasuna eta anonimotasunaren kontzeptuak.

5.2 BENEKOTASUNA, ANONIMOTASUNA ETA NATURALIZAZIOA, DISKURTSO NAGUSIAK

Aurretik esanda dago: hizkuntza-ideologia(k) baliabide garrantzitsua da hitzunontzat, horien bitartez hizkuntza, kultura eta identitatearen arteko harremanak kudeatzen eta garatzen ditugulako (Snyder-Frey, 2013). Euskal Herrian, Ane Ortega, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jacqueline Urla eta Belen Urangak horren berri eman digute, euskal hitzun berrien identitateak aztertu dituztenean. Egile hauen ustez (hizkuntza) identitatea komunitatearen ispilu bilakatzen da eta bertan, "benetako hitzuna" zer den eta zein den argi islatzen da (Ortega et al. 2016: 89).

Hau ez da inolaz ere kezka berria ikerlarien artean. Penelope Eckertek (2003) edota Mary Bucholtzek (2003) horren inguruan hitz egin dute maiz eta biek hizkuntza antropologian eta soziolinguistikan gaiak sortu duen interesa eta arreta nabarmendu izan dute. Bucholtzek dioenez, soziolinguistikaren hasieratik kezka partekatu bat egon da bertan elkarbizi izan duten lan ildo eta ikuspegi ezberdinen

⁴⁴ "Natural", "naturala", "naturaltasuna" dira gazteen ahotik jasotako espresioak. Askotan erabiltzen dituzte azaltzeko zergatik gazte batzuek, gehienetan, euskaraz hitzegiten eta beste batzuk gazteleraz. Euren hitzetan, horrela egiten dute: "natural" ateratzen zaielako.

⁴⁵ Kalean ikastea posiblea ikusten dute herri txiki eta oso euskaldun batean bizi bazara.

artean: benetako hizkuntza. Benetako hizkuntza zer den eta zeini dagokion argitzea jomuga izan dute ikerketa soziolinguistikoek euren hastapenetatik, eta zehaztera ere iritsi dira (Bucholtz, 2003:398):

(...) real language - that is, authentic language - is language produced in authentic contexts by authentic speakers.

Benetako hizkuntza eta hiztuna definitzeak ideologia bat zehaztea eta finkatzea ekarri du, hiztunok, hizkuntz eragileak zein ikerlariok elkarbanatu eta erabiltzen duguna. Eta horren ondorioz identitate jakin bati emango zaio bidea. Bucholtzek horrela irudikatzen du: «I consider the sociolinguistic investment in authenticity as an implicit theory of identity (ibid.)».

Benekotasunak indar handiko ideologia dugu (hizkuntzaz zein bestelako gai askori buruz hitz egiten badugu) eta esentzialismoa dugu horren gako nagusi bat (ibid.:400).

Essentialism is the position that the attributes and behavior of socially defined groups can be determined and explained by reference to cultural and/or biological characteristics believed to be inherent to the group. As an ideology, essentialism rests on two assumptions: (1) that groups can be clearly delimited; and (2) that group members are more or less alike. The idea of authenticity gains its force from essentialism, for the possibility of a 'real' or 'genuine' group member relies on the belief that what differentiates 'real' members from those who only pretend to authentic membership is that the former, by virtue of biology or culture or both, possess inherent and perhaps even inalienable characteristics criterial of membership.

Aurrerago aipatuko dugunez, esentzialismoan naturalizazioaren oiartzunak somatu daitezke, eta bien arteko mugak lausoak direlakoan gaude. Baina aurretik, beste ñabardura interesgarri bat egin nahi dugu. Hain zuzen ere, benekotasunean eta esentzialismoan oinarritutako eraikuntza teoriko zein ideologiko horrek duen kokapen geografikoa azpimarratu nahiko genuke. Hau da, mendebaldea. Mendebaldeko ideologiaz blaituta agertzen zaigu benetakotasunaren ideia. Michele Z. Rosaldok (1982) adibidez mendebaldean hitza eta errepresentazioaren arteko lotura estuezina nabarmendu zuen. Gurean, hitz bat munduaren zati bat ordezkatzeko, azalpenak emateko, kritikatzeko, eztabaidatzeko, eta abar erabili dezakegu. Hitzak egi edota errealtate bat ordezkatzeko luke. Baina harreman hori beste testuinguru batzuetan modu berean ez dela ematen azaldu zuen Rosaldok. Ilongoteen artean⁴⁶, esate baterako, hitzek ez dute "egiazko" edo objetiboa den ezer ez ordezkatzeko, esperientziek eta harremanek hauek baino garrantzi handiagoa dutelako. Bere hitzetan (Rosaldo,1982:210): «For them (Ilongots), words are not made to "represent" objective truth, because all truth is relative to the relationships and experiences of those who claim to "know"». Egileak emandako azalpenaren arabera, Ilongoteen artean garrantzi handiagoa dauka jakitea norbaitek "nola" jakin duen (zerbait), (horren inguruan) "zer" dakien baino. (ibid.:230).

⁴⁶ Ilongoteak Filipinetako komunitate bat da.

Rosaldok egindako lekuan lekuko lana bikain erabiltzen du bere hipotesia sostengatzeko, izan ere, antropologo horrek harreman zuzena ikusten zuen gizarte edo kultura batek hizkuntza eta pertsona ulertzeko duen moduen artean: «(I want to argue here) that ways of thinking about language and about human agency and personhood are intimately linked” (ibid.: 203)».

Gure testingurutik gertuago, Kathryn Woolardek Katalunian aztertu du benekotasunaren gaia. Eta bereak dira azken urteotan gai honen inguruan garatutako hausnarketa interesgarrienak. Bere kezka nagusia da jakitea zerk ematen dio legitimitatea hizkuntza bati eta hiztun bati (beste) talde edo hiztunen aurrean. Ikerketa ezberdinen ildotik ondorioztatu ahal izan du autoritate hori bi ideologia ezberdinetan sostengatzen dela: batekin aurretik aipatutako benekotasuna dugu; bestetik, anonimotasunaren ideologia. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu baina -egileak dio- ez dira bata bestearengandik independenteak (Woolard, 2016:21) «(...) but rather are to a great extent co-constituted, meaning they are defined in relation to each other as poles on an axis of linguistic differentiation (Gal 2012)».

Woolardek benekotasunaren inguruan ematen duen definizioa aurreko lerroetan planteatutako hainbat ideiekin bat dator:

(...) authentic is viewed as the genuine expression of a community or of a person's essential "Self" (...) To be considered authentic in this ideological frame, a speech variety must be very much "from somewhere" in speakers' consciousness, and thus its meaning is constituted as profoundly local".
(ibid.: 22)

Anonimotasuna zehazteko esparru edo esfera publikora jotzen du egileak, hor kokatzen duelako nagusiki kontzeptu honen indarra (ibid.: 25):

"By anonymity, I mean that the modern "public" itself, as a social space that generates a common public discourse, supposedly includes everyone, but it abstracts away from each person's private and interested individual characteristics to distill that common voice. (...) Such anonymity is attributed not just to publics but also to the languages that articulate such publics. Ideally, the citizen participating in public discourse speaks in what we could call a "voice from nowhere".

Woolardek aipatzen duenez, historikoki hizkuntz gutxituek benekotasunean oinarritu izan dute euren autoritatea edo legitimitatea, hizkuntza eta komunitatearen arteko lotura ezin estuagoa irudikatuz. Aldiz, hizkuntz hememonikoek anonimotasunaren bidez eskuratu dute, nagusiki, euren autoritatea. Bata eta bestearen kasuan, naturalizazioa ikusi du egileak oinarrian, bietan autoritatea edo legitimazioa era naturalean planteatzen delako: «Each of these two ideological frameworks takes a linguistic form to be rightfully authoritative because it is the natural, unmediated expression of a state or social life in the world (ibid.: 30)».

Benekotasunak hizkuntza eta hiztun talde baten jatorria eta esentziari egiten dio dei; anonimotasunak, ordea, komunitate baten ordezkartza egokia eta zuzenari. Honen adibidea lirake, hizkuntza estandarrek, gure kasuan, batua.

Testuinguru ezberdinetan ikusi den moduan, naturalizazioa tresna indartsua da eta ondorio asko utzi ditu hizkuntz hegemonikoen zein hizkuntz gutxituen kasuan, izan ere maila idologikoan ez ezik, maila praktikokoan ere eragina du.

Euskararen eremura ekarrita, eta aurretik aipatu den moduan, Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla eta Urangak ikertu dituzten bi idelogi horien azterak. Euren ikerketek balio izan dute Woolardek planteatuako kontzeptuak lantzeko, eta bertan euskal testuinguruan benekotasunak eta anonimotasunak duten adiera eta horien gauzapea aztertzeko.

5.2.1 Euskara eta anonimotasuna

1960. hamarkadan euskara biziberritzeko ekimenek berpizte interesgarria bizi izan zuten. Gizarte arlo ezberdinetan hainbat eragile mugitzen hasi ziren gainbeheran zegoen hizkuntza bultzatzeko. Kulturaren eremuan ahalegin honen adibide anitzak topa daitezke; baita hizkuntzalaritzaren arloan ere. Denen artean agian ezagunena hizkuntza estandarra sortzeko saiakera izango litzateke. Horrela deskribatzen dute prozesua Urla et al. (2016: 4-5):

Standardization simultaneously operates as a synecdoche of the unity of the language and the nation. The norms for a Unified Basque, known as Euskara Batua, were developed by the Basque Language Academy in the course of the sixties and seventies and designed explicitly as an amalgam of different dialectal forms. It was intended by its creators to serve as the common written language of Basque speakers, occupying the roles that had exclusively belonged to Spanish.

Egileek esaten dutenaren arabera, Batuaren sorrera ezinbestekotzat jotzen zen une hartan umilki antolatzen ari zen euskal eskolen sarei zein etorkizunean eratuko zen euskal hezkuntza sistemari begira. Era berean, funtzeskoa zirudien euskarazko komunikabideen edota administrazio publikoaren garapenerako. Egileek primeran deskribatzen dute une hartan euskal gizartearen Batuarekiko zegoen grina, euskararen modernizaziorako eta biziraupenerako gako nagusia bilakatzeraino. Halere, Michael Silversteinek azaltzen duenez (1996), estandarren inguruko ideologiak oso sustraituta daude mendebaldean eta horren inguruko ahaleginak Euskal Herrian ez ezik, beste toki askotan ere aurki daitezke:

*The presumption of the existence of a common set of shared norms is fundamental to Western notions of what it means to be a “real”, “modern” and “public” language. This creates a powerful motivation for linguistic minorities to standardize as they revitalize their language (...).
(Urla et al., 2016:4)*

Batuaren sorrera lehenago hasi bazen ere, esan daiteke 1968an Arantzatzuko santutegian izandako batzarrean eratu zela. Ondoren, aurreikusita zegoen moduan, administrazio publikoan, komunikabideetan eta hezkuntza eremuan zabaltzen joan

zen. Berez, Batuaren arauak, bereziki idazketan aplikatzeko baziren ere, laster zabaldu ziren publiko aurrean egin beharreko ahozko-adierazpenetara. Hortik aurrera euskarazko irakaskuntza (bai helduena, bai haur eta gazteena) Batueraz egin da, salbuespenak salbuespen, gaur egun arte (ibid.: 5). Urla eta beste ikerlariak erakutsi duten moduna, denborarekin honek paradoxa nabarmen bat utzi du. Milaka eta milaka lagun Batuan euskaldundu dira baina arrotze moduko bat sentitzen dute hizkuntzarekiko. Batetik, adierazten dute estandarra traketsa gertatzen dela egunerokotasunean garatzen diren gertuko harremanetarako. Batua, artifizialtzat jotzen dute, kolorerik gabekoa. Bestetik, Batuan sozializatutako hiztun asko (gaur egun gehienak) konturatzen dira, erabili dezaketen aldaera bakarrak (ikasitako estandarra) ez duela ahalbidetzen benetako hizkun bilakatzea, benetako euskaratzat, euskara txukun eta jatortzat, etxean (familiar) entzundakoa eta ikasitakoa hartzen baita.

Paradoxa honen muinean, prestigioaren, autoritatea eta legitimotasunaren auzia(k) agertzen zai(zki)gu. Zenbait hiztun, etsita, konturatzen dira ikasitakoa ez duela gizartean baliorik; euskara jakinda ere, oso zaila egingo zaiela "benetako" euskaldunak edota euskaldun "legitimoak" izatea. Hau da bederen, hiztun berrien artean Urlak eta beste ikerlariak topatutako sentimendua (ibid.: 6).

*Batua did not enjoy greater prestige as might be predicted by its status as a standard, and none of our study participants described Batua as being more correct or proper Basque. Quite the contrary, several new speakers recount being told that Batua was "not really Basque". A sense of artificiality, of being a "book language" or "made up language", continues to dog Batua as it does other minority language standard varieties.
(Dorian 1981, 1994, O'Rourke & Ramallo 2011).*

Woolarden proposatzen duen markoaren arabera, hori gertatzen da gutxitutako hizkuntzak benekotasunaren ideari lotuago agertzen direlako anonimotasunaren ideiarekin baino. Euskara Batua sortuta ere zailtasunak ditugu funtzionaltasunean eta neutraltasunean oinarritutako anonimotasunaren ideologia euskararekin lotzeko. Hau da, euskarak jarraitzen du identitate jakin bat adierazteko gaitasunarekin lotuta, benetakotasunaren ideologian sustraitua.

5.2.2 Euskara eta benekotasuna

2019-2020 ikasturtean EAEko lau udalerrietan gazteen artean gauzatutako ikerketa batean ikusi genuen moduan (Soziolinguistika Klusterra, 2020), "natural" hitza da egungo diskurtsoetan nabarmentzen den kontzeptua. Elkarriketatutako gazteek maiz erabili zuten nozio hori hizkuntza jarrerak zein ohiturak deskribatzeko eta azaltzeko. Hizkuntz jokerak baloratzeko garaian, "natural" agertzen zen behin eta berriro. Horrela, naturala da "familia euskalduna" dutenek egunerokotasunean euskaraz aritzea. Eta kontrakoa: naturala da "familia erdaldunetako" euskaldunak (hiztun berriak) gazteleraz aritzea eskolako eremutik kanpo. Era berean, naturala da "euskalduntzat" jotzen den herri bateko gazteak euskara sarri erabiltzea; edo gazteleraz aritzea eten gabe, herri "erdaldunagoen" gazteak.

Deskribapen hauek behin eta berriz entzun izan genituen berriemaileen ahotik, hauen jatorria zein profila edozein izanda ere; oso zabalduta dagoen diskurtsoa dela konfirmatu genuen. Horrekin batera esan behar da diskurtso erosoak gertatzen

zaiela, ohiturak zein inertziak azaltzeko balio duelako. Gauzak "horrela" dira, naturalak, horrela "gertatzen" direlako. Joera hau izendatzeko oso baliotsua gertatzen zaigu Woolardek erabilitako nozio bat: "soziolinguistic naturalism". Goian aipatu den moduan, anonimotasuna eta benetakotasunaren oinarrian dagoen ideia naturalizazioa litzateke, eta bere zeregin nagusia bi kategori horiei sostengua ematea litzateke. Anonimotasunak zein benekotasunak jatorri "naturala" lukete, «(...) rather than the outcome of human will, effort, intervention, and artifice" (Woolard, 2016:30)». Eta horretan datza -dio Woolardek- bere indarra eta eragina, izan ere, naturalizazio horrek sormena, eraldaketa eta bizitasuna ukatzen ditu.

Such naturalism is opposed to recognition of the agency of speaking subjects, and to a historicized image of language as constructed by human action.
(ibid.: 30-31)

Puntu honen amaieran Woolarden ideia berrartuko dugu, baina une honetan geldione labor bat egin nahiko genuke benetakotasunaren inguruan bi hitz esateko. Izan ere, lehenago aipatutako ikerketan jasotako ideiek bat egiten dute Urlak eta beste ikerlariak topatutakoarekin. Esan daiteke euskal gazteen artean bi irudi sostengatzen dutela euren artean zabalduetako benetakotasunaren ideologia: familia eta gertuko komunitatea. Biek euskararekin lotutako praktikak, usteak eta rolak sostengatuko lituzke.

Gure ikerketan antzeman dugun moduan, Urlak eta beste ikerlariak ere, familia guñeak, hizkuntz ideologian duen pisua nabarmendu dute (Urla et al., 2016: 5):

One of our most notable findings is the strong adherence of new speakers to mother tongue ideology (Ortega et al. 2015). By this we mean that our study participants overwhelmingly felt that someone who learned and spoke Basque in the home possessed a deeper life-long identification with Basque than they felt they could claim.

Gure azkenengo ikerketan (Soziolinguistika Klusterra, 2020) ideia bera ondorioztatu izan dugu, izan ere, familiak erabateko pisua hartu du gazteen diskurtsoetan. Ez hainbeste, ordea, euren hizkuntza praktikak aztertzeke garaian. Kasu honetan, argi ikusi da, familiaren garrantzia nabarmen gutxitzen dela, familia euskaldunetako gazte askok, eskola zein etxetik kanpo, nagusiki edota bakarrik gaztelera erabiltzen dutela aitortzen dutelako.

Joera hau ikertutako gune ezberdinetan antzeman izan badugu ere, argiago agertu da euskaldunen kopurua txikiagoa den herrietan. Hau lotuta egongo litzateke Urla eta beste ikerlariak deskribatutako errealtate batekin. Izan ere, egileek azaltzen duten moduan, hiztun berriek benetakotasunaren helburura heltzeko modua da inguru euskaldun batean zeharo murgiltzea, hau da, "euskaraz bizitzea" euskal hiztunen sareetan txertatuz, eta egunerokotasunean, kalean, harreman ez-informaleetan euskara entzun eta erabiliz.

"Living in Basque", that is, speaking it as a language of everyday life, was recognized as a pathway to developing a sense of identification as a Basque speaker. We found that individuals who had ample opportunities to use Basque in their

everyday lives, particularly in their immediate social circles of family and friends, and had communicative competence in oral informal registers were those most likely to identify in an unmarked, unqualified way as Basque speakers, euskaldun.
(Urla et al. 2016: 3)

Ikusten denez, kasu honetan, arreta testuinguruan jartzen da. Hitzunek aukera ikusten dute bertan (familiako eremuan ez bezala) euren identitatea moldatzeko edota eraldatzeko, ekinez eta saiatuz, benekotasunaren eredura hurbildu daitezkeelako. Mary Bucholtzek ondo azaltzen duen moduan, saiakera honetan hitzunek benetakotasunaren helburura iristeko erabiltzen dituzten estrategiak edota praktikak somatu ditzakegu: «(authentication) as the outcome of constantly negotiated social practices (...) It is the tactic of authentication that produces authenticity as its effect (Bucholtz, 2003:408)». Estrategia hauek bere zentzu guztia hartzen dute euskal hitzunik nagusitzen diren herri edo komunitateetan; euskaldunen kopurua txikia den tokietan, aldiz, oso nekeza gerta daiteke euskaraz bizi nahi izate hori.

Itxuraz, beraz, hizkuntza gutxituen hitzunik autentikotasuna eta benekotasunaren kale itsuan harrapatuta geratzen dira. Baina Woolardek gogorazten digunez, irtenbideak badira: «alternative formulations may value will, effort, or artifice rather than primordial and natural essence, including in matters of language» (Woolard 2016, 35)». Proposamen hauek, askotan, ikerketa antropologikoek erakutsiak dira eta mendebaldetik kanpoko gizarteetan topatutako adibideak dira; beste batzuetan, mendebaldeko gizarte postmodernoetan aurkitutakoak dira. Azken honekin lotuta, Woolardek kasu ezberdinak azaltzen ditu: Ben Rampton-en "crossing" a, hip-hopen inguruan garatutako ikasketek aldarrikatutako hizkuntz formen nahasketak edota Ainu gazte japoniarren "(metro)ethnic identity" delakoa (Woolard, 2016:36-37).

Irudikapen berriak hauek erakusten dute hitzun eta hizkuntzen arteko loturek ez dutela zertan oinarritu behar naturalizazioan. Era berean, erakusten dute hizkuntza identitatea ez dagoela derrigorrez lehen hizkuntzarekin lotuta, edota lehenengo hizkuntzarekin izaten den lotura ez dela, halabeharrez, benetakotasunaren ikurra.

Artifice, in the sense of making something through deliberate human action and intervention, may be recognized and valorized in community practice as allowing the truest, most authentic realization of a social self. When conceived on other foundations than nature and origins -desire, potential, becoming, art, cultivation, will and pluck- an ideology of authenticity will have different consequences for language, its users, and its analysts.
(ibid.: 37)

Hawaiin zein Kataluinian egindako ikerketaren ildotik benekotasuna berdefinitzeko aukerak antzematen dira, bi kasu hauetan autentikotasuna benekotasunean oinarritu baino, etorkizunari egindako proiektuan kokatu daitekeelako. Alegia, hitzuna, berez eta "naturalki" den horretan baino, izan daitekeen horretan oinarrituta. Horrela, proiektuan dagoen identitate batetaz ("project identity") mintzo da Woolard. Bertan erronkak eta lorpenak bilakatzen dira akuilu. Edo, Anthony Giddensek dioen moduan, proiektu narratibo koherente bat osatu nahia (Giddens 1991 in Woolard, 2016:36). Ikuspegi hauetatik identitatea, jatorri edo

oinarri bat baino prozesua bilakatzen da eta ibilbide horretan antzematen dira jada identitate horren ezaugarriak eta emaitzak. Hizkuntza praktikak eta jardunak erdigunea hartzen dute, hauek baitira tresnak eta baliabideak hiztunak euren identitatea, sinesmenak, subjektibitatea eta agentzia eskuratzeko (ibid.: 37).

Gainera, gazteen kasuan, ideia berak ñabardura bereziak izan ditzake. Cristina Aliagas-ek Kataluniako kasu baten bidez erakusten duen moduan, gazteek, benekotasuna lagunen arteko hizkerarekin lotzen dute. Are gehiago, kasu honetan kalea litzateke hizkera, hitz egiteko modua edota hizkuntza bati sinesgarritasuna ematen diona⁴⁷. Gazte kulturen izaera bati leiala izatea baloratzen da eta artifizialtzat jotzen dena segituan da baztertua. Horregatik Aliagasek ikertutako hiztun berri gazteek rap-a egin behar zutenean gaztekerara jotzen zuten nagusiki, hizkuntza horrek zuelako hiztun horien artean kaleko sinisgarritasuna. (Aliagas 2017)

Euskal Herriko kasuan ikusiko dugunez, gazteek hizkuntzarekin lotutako itxurakeria ("postureoa" euren hitzetan) erabat baztertzen dute, naturaltasuna gorapatuz. Hiztun legitimo izateko natural agertu behar da. Eta hau nagusiki lortzen da hizkuntza familian edota, hainbat kasuetan kalean⁴⁸ ikasten bada. Bide hauetatik hizkuntza modu naturalean eta inskonszientean barneratuko da eta era autentikoan (sinesgarrian) azalduko da.

Eta puntu honekin amaitzeko, aipamen bat egin nahi diogu handik eta hemendik, antzematen den beste diskurtso bati: hizkuntzen merkantilizazioa eta horrek dakarren eredu neoliberalak: *"the speaker self"* (Sung-Yul Park, 2010). Ikuspegi horren baitan, euskara bakoitzaren ardura da. Euskara ikasi? Bai, baina gero, bakoitzak erabaki dezala zer egin euskararekin. Ikuspegi honen arabera mundua toki baketsu, orekatua eta harmoniatu gisa agertzen zaigu: «the world becomes a harmonious display of essences, emptied of history and filled instead with nature» (Barthes, 1972 in Woolard, 2016: 31)». Mundu idealizatu horretan hizkuntzarena ardura eta erabaki pertsonala da. Gure kasuan, gazteen kulturetatik aldenduta eta norbanakoaren eskuetan utzita, ahul agertzen da euskara, erraz igartzen baitira (gazte) euskaldunen irudi homogeneousak ezkututzen dituen arrakalak. Izan ere, euskalduntzat jotzen ditugun gazte guztiek ez daukate ez ezagupen maila bera, ez erabiltzeko aukera eta sostengu bera, ezta legitimazio maila bera ere.

Hiztun naturala edo hiztun neoliberalak? Ziur aski, datozen urteetan naturalizazioa, autentikotasuna, benekotasuna eta norberaren hautuaren hizkuntza-ideologiak indartsu mantenduko dira Euskal Herrian, eta identifikatuak edukitzea garrantzitsua dela uste dugu. Alternatibak eraikitzeo eta zabaltzeko abiapuntua zein den jakin behar delako.

⁴⁷ Ezaguna dira hizkuntz gutxituen ikaskuntza prozesuekin lotutako aurreiritziak. Galizian edo Korsikan ikusi den moduan (Woolard 2016, 24), hainbatetan hiztun berriak faltsutzat jotzen dute euren hizkuntza, eskolan ikasi dutelako. Kasu batzuetan hizkuntz gutxitu bat erakustea "kutsakorra" bezala irudikatzen da, hizkuntza hori manipulatzeko eta desnaturalizatzen ariko balira bezala.

⁴⁸ Kanean ikastea posiblea ikusten dute herri txiki eta oso euskaldun batean bizi bazara.

6 KIROL ESPARRUAK ESKAINTZEN DITUEN AUKERAK: BABESGUNEAK

Dokumentu honen amaieran Joan Pujolarren hitz batzuk ekarri nahi ditugu. Mudaz ari dela, hiztunak aukeran dituen hizkuntzen artean bat edo bestea erabiltzeko orduan eragiten dioten faktoreak aipatzen ditu egileak:

Our conditions of possibility for speaking each variety, then, depend partly on our competence in it, but also on the social conditions that make the act of speaking possible, socially congruous, or normatively acceptable.
(Pujolar, 2019:169)

Argi dago. Hizkuntz bat hitz egiteko derrigorrezkoa da horren ezagupena izatea. Maila txikian bada ere, gutxieneko gaitasuna bat eduki behar du hiztunak hura erabiltzeko eta komunikatzen saiatzeko. Euskaren kasuan, baldintza hau betetzen da Euskal Herriko gazteriaren ehuneko oso altu batean. Baina, Pujolarrek ohartarazten gaituen moduan, gaitasuna ez da nahikoa. Baldintza sozialak ere behar dira, hizkuntza hori erabiltzeko aukera ematen dituzten baliabide zein baldintzak behar dira. Eta hori ez dago beti toki edo egoera guztietan bermatuta. Eta ez gara bakarrik baldintza objektiboez (legedia, hiztun kopurua, etabar) mintzatzen ari, baldintza subjektiboak ere aipatu behar dira, esate baterako, hitz egiteko legitimazioa edota onarpena.

Gure iritziz baldintza sozial hauek ezinbestekoak dira, hizkuntza bera jakitea bezain garrantzitsuak dira, baldintzarik gabeko hizkuntza norberaren "gozamenerako" bakarrik eratuko litzateke eta.

Egun gazte askorentzat eskola da eremu bakarra zeinetan, neurri handi batean, baldintzak (objektiboak zein subjektiboak) ematen dira hizkuntzarekin (kasu honetan, euskararekin) aritzeko. Hortik aurrera hizkuntza desagertu egiten da, praktikoki zein sinbolikoki presentziarik ez duelako. Egoera horretan oso zaila da hizkuntza erabilerari eustea, horretarako gutxieneko arkitektura (sostengua) ez dagoelako. Orainaldian pentsatzen eta, batez ere, etorkizunean pentsatzen helburu erreala izan daiteke saiatzea baldintza horiek sortzen, garatzen edota lantzen, eta saiatzea haur, nerabe eta gazteen hizkuntza aukerak zabaltzen. Eta aukera praktikoez zein sinbolikoez ari gara. Gazte batzuk agian momentuz ez dute euskaraz egin nahiko edo ez dute euskararen inguruko ardurarik sentituko, baina etorkizunean bai, sentituko dute nahia edo beharra euskaraz egiteko edota hobeto ezagutzeko. Jakin badakigu hau izaten dela, hiztun berri askoren frustrazio momentua.

Jakina da, eta aurretik aipatu da jada txosten honetan, muda gehienak helduaroan gertatzen direla. Hori, printzipioz, ez da gure helburua izan behar. Idealea haurrak eta gazteak euskara ikasten duten momentutik erabiltzea litzateke, baina badakigu egun hori ez dela gertatzen. Horregatik, bigarren mailan bada ere, muda noizbait gertatzeko bidea jartzea litzateke asmoa. Esanda dago: biografiaren ikuspegiak hizkuntzaren inguruko esperientziek eta bizipenek duten izaera malgua eta aldakorra argi erakusten digu.

Honekin lotuta esan nahiko genuke, babesguneaz hitz egiten dugunean ez dugula buruan eremu, toki edo egoera bat zeinetan beti, uneoro eta mundu guztiarekin euskaraz hitz egiteko aukera emango duen. Jarraian azalduko dugun moduan, babesgunearen ideiak Pujolarrek esandakoan sakondu nahiko luke: nola sortu eta garatu baldintzak euskarak tokia izan dezan. Eta hau epe motz, ertain edo luze batera izan/gerta daiteke.

Edozein kasuan, baldintza horiek bi eratakoak izan behar direla pentsatzen dugu. Batetik oinarritzko eta egiturazko baldintza batzuk egongo lirateke; bestaldetik, parte hartzezko baldintzak egongo lirateke. Jarraian bi baldintza mota hauek azaldu eta deskribatuko ditugu, babesguneaz hitz egitean zertaz ari garen hobeto irudikatzeko asmoz.

6.1 BABESGUNEA(K): EGITURAZKO BALDINTZAK

Txosten honetan bertan aipatu dugu behin baino gehiagotan, aisialdiak haur eta gazteen ongizatean eta sozializazioan duen garrantzia. Gainera kirolak duen pisua azpimarratu dugu, egun, mendealdeko gizarteetan duen presentzia eta eraginaren isla. Eta hauek dira hain zuzen ere, kirolak hizkuntzaren sustapenerako duen oinarri interesgarria: haur eta gazteen ikuspegitik, kirola, gozamen, harreman eta prestigioaren sinonimoa da. Hau dena taldea edo komunitatearen formatuan: ezinbestekoa dena haur eta gazteen identitatearen garapenerako. Zein hizkuntzarako.

Pádraig Ó Duibhir eta Laoise Ní Thuairisg (2019) gazteen artean eskolatik kanpo ematen den irlandararen erabilera ikertu dute. Hizkuntza gutxituen kasuan, erronka nagusia eskolatik kanpo erabiltzeko dauden aukerak zabaltzea dela ondorioztatu dute. Hizkuntzak, diote, komunitate bat behar du: «languages need communities in order to live. So, only a community can save an endangered language (Ó Duibhir eta Ní Thuairisg, 2019:127)». Ideia planteatu ondoren zenbait adibide ematen dituzte, horien artean, “Na Gaeil Óga” kirol klubaz aritzen dira⁴⁹. Klub honek Dublín du egoitza eta futbol irlandarra eta hurlinga dira bertan lantzen diren disziplinak. Dena dela, talde honen berezitasuna hizkuntzarekiko duen konpromisoa litzateke, bere jardunaren erdigunean kokatuta baitago. Kluba kirolean trebatzeko eta aritzeko gunea da, baina, aldi berean, harremanak lantzen eta bertako hizkuntza eta kulturaren bidez komunitate bat osatzen dute bertako kideek. Kirol disziplina jakinetan aritzeko elkartzeko dira profil ezberdinetako haur, gazte zein heldu eta helburu nagusia ez bada ere, hizkuntza komunitatea osatzeko eta egituratzeko tresna da: praktika- komunitate horren ezaugarri nagusia da, hain zuzen ere. Gaelikoak pertsonak sartzeko eta elkartzeko balio du, baita talde gisa identitate bat emateko.

Abiapuntu horretatik, iruditzen zaigu klub bateko hizkuntza ardura eta jarduna, gutxienez, hiru ildotik planteatu eta landu daitekeela: (hizkuntza) sozializatorako gune gisa, (hizkuntza) harremanetarako gune bezala eta, azkenik, (hizkuntza) legitimitaterako eragile gisa.

⁴⁹ Bideo interesgarri bat dago ikusgai klub honen inguruan. Bertan hizkuntzaren gainean duten ikuspegia argi azaltzen dute bertako kide batzuek: <https://www.youtube.com/watch?v=owKn-Y49Yps>

Jarraian zeregin hauetako bakoitzaren inguruan ohar batzuk emango ditugu. Hauetako gehienak 2007an argitaratutako ikerketa batetik hartuak dira. Ikerketa horren egileak Pádraig Ó Riagáin, Glyn Williams eta F. Xabier Vila I Moreno izan ziren eta euren helburua hiztun gutxituen hiztun gazteek⁵⁰ eskolatik kanpo egiten zuten hizkuntz erabilera aztertzea izan zen, beti ere, erabilera hori zabaltzeko gakoak topatu nahian.

Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok gazteei begira aisialdiak (eta kirolak) duen garrantzia aipatzean sozializazioan duen papera nabarmentzen dute, bertan jardun jakin batekin lotutako arauak ikasteaz gain, gizartean orohar idatzita edota idatzi gabe dauden jarraibideak ezagutzen eta barneratzen dituztelako. Arau horiek aisialdiaren esparruan zein esparru horretatik kanpo dute balioa eta, era horretan, bizitzarako argibideak eta laguntza izan daitezke. Horrekin lotuta, egileek John Cottrellek egindako ikerketa⁵¹ baten emaitzak azpimarratzen dituzte (Cottrell, 1996 in Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok, 2007:44):

Cottrell (1996) undertook an in-depth analysis of adolescent social relations in adult-organised settings. He asserts that many researchers miss the educational benefits that can flow to young people from the community provision of structured recreational activities. Through participation in structured activities, adolescents learn the unwritten social rules which characterise the organisation and conform to the standing pattern of behaviour, making such clubs a potentially powerful agent of socialisation. If the above arguments are correct, they suggest that the provision of structured activities has obvious value in the formation and maintenance of Irish speaking networks among adolescents.

Aipuan agertzen denez, klubean dauden arauak (baita ere, noski, hizkuntzarekin lotutakoak) erreferentzia garrantzitsuak dira gazteentzako, bertan zein gizarte zabalean mugitzeko. Horrekin lotuta erreferentteen auzia ere nabarmendu nahi dugu, izan ere aisialdian zein kirolean bizitzan pisu handia duten pertsonak topatzen dituzte haur eta gazteek. Kasu honetan, jakina da, haurrak adinez gora joan ahala hizkuntz erabilera jaisten dela, baina gurean zein beste testuinguru batzuetan antzeman denez (Ó Duibhir eta Ní Thuairisg, 2019:128), nerabezaroan eta gaztaroan erabilera mantentzen da erreferentziazko pertsonen aurrean. Hau dela eta, klubean bertan ezartzen diren arauak (baita hizkuntza arauak ere) eta bertako erreferentziazko pertsonak (zuzendaritza taldekideek, entrenatzaileek zein bestelako langile edota bolondresekoak) komunitate horren zutabeak dira gazteei begira eta, hizkuntza dela eta, horretaz jabetzea eta horren arabera era egokian jokatzeko ezinbestekoa dirudi.

Goian aipatu denez, haur eta gazteen ikuspegitik aisialdi jardueren erakargarritasuna harremanetan datza ere. Gustuko duten jardun batean aritzeaz gain, jarduna hori gustuko duten pertsonekin partekatzea da gozamen horren iturri

⁵⁰ Irlanda, Wales, Catalunya, Euskal Herria eta Ipar Irlanda izan ziren aztertutako kasuak. Bertako 11-18 urte bitarteko gazteak izan ziren zehazki ikerketa honetako subjektuak.

⁵¹ Aipatutako ikerketaren izenburua hau litzateke: Social Networks and Social Influences in Adolescence.

nagusienetariko bat. Harreman mataza horretan helduak daude (kluben kasuetan bertako arduradunak eta, batez ere, entrenatzaileak) baina, bereziki, adinkideak. Adinkide horiekin dituzten hartuemanak dira jardueran dagoen osagai gozagarrienetarikoa.

Gainera, kontuan hartu behar da beti horrela gertatzen ez bada ere, askotan, haurrek eta gazteek eskolaz kanpoko jarduerak bere lagunen arabera aukeratzen dituztela. Era horretan, eskolan garatzen dituzten harremanak hortik kanpo ere mantentzen dituzte, loturak estutuz.

Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok honen berri ematen dute euren txostenean. Dubois and Hirschek (1989) egindako ikerketa batean oinarrituta horrela diote: «(Dubois and Hirschek) suggest that structured non-school activities can serve as an aide to friendship formation, acting as a 'first step' from seeing a friend in school only, to seeing them in unstructured surroundings (Dubois and Hirschek 1989 in Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok, 2007:44)». Egileek Gabrielle Maguirek (1991) Ipar Irlandan egindako ikerketa baten ondorioak jasotzen dituzte, gaian sakontzeko asmoz. Izan ere Maguirek arreta berezia jarri zuen eskola barruan eta kanpoan ematen diren gazte dinamiketan. Egile honen azterketa etnografikoan topatutakoa ekarri nahi izan dugu honera, aipua luzea bada ere, gazteen artean ematen diren joerak ikustarazteko lagungarria delakoan gaudelako:

(Gabrielle Maguire) claims that the recreational activities of children attending the Irish-medium primary school are based within the (Irish speaking) community, and are associated with school friends. However, as the pupils grow older there is a general shift towards English. Partly, this was due to the then absence of Irish-medium secondary education, which meant that school-based friendships established after a certain age were almost certain to be mediated through English. When monolingual contacts visit the Irish-speaking community, their bilingual counterparts tend to speak English in their presence, encouraging language switching, and decreasing the overall tendency to use Irish. Nevertheless, an equally important factor is the social development associated with adolescence, which necessitates the extension of the social life into English-dominant domains, due to the dearth of Irish-medium leisure activities for this age group. While some participate in Irish-language activities such as traditional music or dance classes, in reality, teenage Irish speakers are very restricted socially. Leisure activities for teenagers, such as local sports clubs, youth clubs, discos etc. are largely part of the English speaking environment. The stability of Irish as a spoken medium is seriously threatened by the intense exposure of young people to these English language dominated activities, which are not balanced out by a complementary range of Irish-medium possibilities. Because of this, young people often find that an English-speaking environment intensifies its dominance over all aspects of their lives during adolescence. "A need exists for the provision of cultural centres which would offer young Irish speakers and learners social opportunities, resources and amenities comparable to those available to the general public". The association between the English language and the

adolescent peer culture develops a corresponding association between that language and the type of subjects discussed with peers. Accordingly, bilingual adolescents come to consider English to be a more suitable or appropriate medium for certain conversation topics (e.g. romantic relationships) and Irish is deemed 'inappropriate'. Additionally, the shift among older adolescents towards English has the effect of exposing their younger siblings to a higher degree of English use.
(Gabrielle Maguire, 1991 in Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok 2007: 37)

Ikusteke dago (gurean ez delako sakonki hau aztertu) zein nolako eragina duen eskolan garatutako harremanak kanpoan ere jarraitu izanak: euskaren alde egiten dute joera horiek? Ala kontra? Eskolak badu, kasu honetan, eragina aisialdiaren eremuan? Eta alderantziz? Hau da, lagundu dezake aisialdiak eskolaren (hizkuntza) zereginetan?

Azkenik, bestelako joera bat ere aipatu nahi dugu. Izan ere, hiztun berrien mudak ikertu dituzten lanek argi erakusten dute sarritan, testuinguru berri eta ezezagun batean sartzeak hizkuntza joerak aldatzeko dakartzaten onurak. Hau ikusi da, adibidez, Euskal Herrian, Katalunian zein Galizian unibertsitate garaia emateko garaian. Bere testuingurutik kanpo eta betiko harreman sareetatik aldentuta, batzuk errazago dute hizkuntza mudantza egitea. Galizian egindako ikerketa batean horrela deskribatu dute unibertsitatea Moralejo eta Ramallok (2019:171):

"(...) en el plano de un proceso de adaptación personal a un nuevo contexto, el cual en la mayoría de los casos conlleva trastoca el entramado de certezas y prácticas idiosincrásicas que funcionaban en antiguos espacios, resulta mucho más "natural" y sencillo "dar el paso" e iniciar un proceso de conversión, el cual, con frecuencia, ya venía gestándose con anterioridad.

Unibertsitatean gertatzen dena, eman daiteke ere aisialdi edo kirol eremuan? Hau ikertu beharreko ildoak litzateke.

Azkenik aisialdiak eta kirolak hizkuntza legitimaziorako duten garrantzia aipatu nahiko genuke, funtsezkoa iruditzen zaigulako. Sozializazioarako zein harremanetarako guneak izateaz gain, diskurtso mailan zein ideologi mailan egin dezaketen lana gakoa dela uste dugu. Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok zeregin horretan ere erreparatu zuten, eta euren azterketaren ondorioetatik tiraka, horrela azaldu zuten toki askotan somatzen den egoera (Ó Riagáin, Williams eta Vila I Morenok, 2007:31):

For language spread to be more effective, Catalan and Basque need to be more incorporated in activities not connected with education. But, at the same time, it is a fact that in extra-school activities Castilian speakers feel fully legitimized to function in their language as monolinguals, and their lack of interpersonal linguistic skills puts pressure on Catalan speakers to accommodate to them. A vicious circle is created that is extremely difficult to change.

Egileek aipatzen duten zirkulua apurtu beharko litzateke eta hizkuntz gutxiagotuen aldeko jardun zein diskurtso legitimatzaileak eratu. Jardun eta diskurtso horren elementu zein dinamika aproposak aztertu eta diseinatu beharko lirateke tentuz eta modu egokian; ahalik eta kontsentsu handienarekin; ahalik eta partehartze handia eta anitzarekin.

Moduak eta manierak edozein izanda ere, argi dago, aisialdi edo kirol gune bat (hizkuntza) babesgunea bilakatu nahi bada, hizkuntza eta hiztunarentzat espazio segurua izan behar duela. Hori lortzeko bidea egituratik hasten da. Behin zutabe eta oinarria(k) jarrita, urrats bat egin dezakegu aurrera eta partehartzeko baldintzetan erreparatu.

6.2 BABESGUNEAK(K): PARTEHARTZEKO BALDINTZAK

Testuinguruak probesten duen egituratik taldea osatzen duten partaideengan joko dugu babesguneak maila honetan hartzen duen zentzua aztertzeko. Partaideez ari garela kluba baino, taldea irudikatzen ari gara gaztetxoez eta entrenatzaileez (ez) osatutakoa, alegia.

Kasu honetan bi dira babesgunea zertan datza azaltzeko azpimarratu nahi ditugun ideiak.

Batetik, ezinbestekoa iruditzen zaigu ezagupen partekatua hitz egitea. Izan ere, kirol praktika batean murgiltzen den haur edo gaztetxoa disziplina horretan aritzeko beharrezkoa du ikasle bihurtzea. Kirola ere ezagupenerako eta ikasteko testuingurua litzateke. Ezagupen praktikoa litzateke, gorputzetik abiatzen dena baina, azken finean, ikasketa prozesua dago erdigunean. Horrek norbanako dimentsio bat du, baina baita ere (eta batez ere) taldekakoa. Kirola, nagusiki, ikaskuntza partekatua da. Hau agerikoa da talde kirolean baina baita ere bakarka lehiatzen diren horietan, klubak eta taldeak (entrenatzeko osatzen diren taldeak) oinarri oinarritzakoak direlako ikasketa prozesuan zehar. Haurrak edota gazteak ikasten du taldean, taldekideekin batera, entrenatzaileekin batera eta testuinguruan topatzen dituen baliabideak erabiliaz. Era horretan, kirolean ere, haurrak edo gazteak ikasle identitatea garatu behar du, disziplina jakin batean trebatzeko helburua baitu. Hau funtsezko gerta daiteke hizkuntzaren ikuspegitik, aukera egon daitekeelako hizkuntza (gure kasuan, euskara) ikaste prozesu horren parte izateko.

Kirol eremuan hizkuntza bat ikastea ez litzateke izango helburua (ez behintzat helburu nagusia) baina denok "ikasle" bihurtzen dituen testuinguru batean, errazago txertatu daitezke bestelako ikasketa prozesuak, hizkuntzarekin lotutakoak barne. Ikasle identitatean hori da "erreal" den bakarra: edozer gaizki edo trakets eginda ere, justifikatuta dagoela, ikasten ari garelako.

Idea hauek azaltzeko, adibide gisa planteatu nahi dugu O'Rourke eta Walshek (2020) Irlandan ematen diren "elkarriketa zirkuluen" inguruan egiten duten hausnarketa.

Elkarriketa zirkuluak hizkuntza gaelikoa erabiltzeko eta praktikatzeko guneak dira. Bertan era eta maila guztietako hiztunak elkartzen dira gaelikoz hitz egiteko eta trebatzeko. Era berean, esan daiteke helburua hizkuntza eremu publikora ateratzea dela. Aipatutakoez gain, bada azpimarratu beharreko beste berezitasuna: espazio hauen izaera informala, atsegina eta segurua (O'Rourke eta Walsh, 2020:152).

Egileen ustetan egokia litzateke elkarrizketa zirkuluak babesgune gisa irudikatzea, eta horrela definitzen dute: «Small conversational circles in a non-competitive atmosphere increase the sensation of learning within a secure community (ibid.:154)».

Egileek azpimarratzen dutenez, testuinguru horren ezaugarria litzateke taldean eta elkarrekin ikasteko eskaintzen duen aukera, baita ikasle gisa aritzeko parada: hitzegin askatasunez, testuinguru informal batean, elkarri lagunduz eta animatuz, taldetasuna bultzatuz. Testuinguru horretan "ikasle identitate" hori bilakatu daiteke "erreal" eta "berria" (*novel*) izaera ezabatuta geratzen da edo, gutxienez, lausotua: «peer teaching and learning where language can operate as mutual language learning exchange, space is used to perform their learner identities and to exist as "real" speakers in these spaces" (ibid.: 161)».

Ikasle izaerak berdindu egiten ditu taldekideak, eta horrek aukera ematen du "jolasteko" eta izaera "amateurra" ahaztutzeko, une batean benetako jolaskideak eta hiztunak direlako.

Ikusi denez, puntu horretara iristeko funtsezkoa da sortuko den babes gunearen izaera zaintzea. Horretarako gakoa espazio horretan egoteko modua(k) d(ir)a (Guilló, 2020), batez ere, harremanak sortzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko moduak. Harremanek bilakatzen dutelako gune bat babesgunea (Wei eta Chao-Jung, 2009).

Hona hemen babesguneak egituratzeko garaian beste ikerketa batzuetan agertu diren zenbait aholku edo ohar:

- Modu eta baliabide guztiak baliotsuak dira. Ez daude zuzenak edo ez zuzenak diren formak. Are gahiago, inperfekzioak izaera edo identitate positiboa eduki dezake (Järlehed, 2018).
- Ez dago agindurik: inork ezin du agindu zer esan eta nola esan.
- Ez dago aurreikuspenik, ez baloraziorik. Denak ikasleak gara (Puigdevall, Colombo eta Pujolar, 2019).
- Ikasteko eta saiatzeko borondatea egon behar du. Konpromisoa eta ardura erakutsi behar da taldekideen aldetik (ibid.).
- Eta azkenik, beste aspektu garrantzitsu bat: taldeak bilatu behar du bere modua eta bere bidea(k) egiten duena balidatzeko eta legitimatzeko. Autentikotasuna eraiki daiteke (Bucholtz 2003) eta taldeari begira hau praktika interesgarria da, besteak beste, indartu egingo delako bere jarduna eta identitatea.

Aurreko lerroetan basbegunearen izaera eta ezaugarriak definitzen saiatu gara. Horren ondorioz, espazio horiek zirriborratzen lagundu izana espero dugu. Ikusi denez, ez gara gu izan lehenengoak eta, beste ikerlari batzuen lanez baliatu gara gune horiek itxuratu ahal izateko. Lan horietan agertzen diren hainbat aholku ekarri nahi izan ditugu babesgune bat eraikitzeko momentuan kontuan hartu beharrekoak direla uste dugulako.

Gure kasuan, nerabe eta gazteekin arituko garenez, bereziki interesgarria iruditzen zaizkigu Ó Riagain, Williams eta Vila I Morenoren (2007) txostenean jasotako ideia pare bat eta, amaitzeko, horiek azpimarratu nahi ditugu. Batetik, gazteekin ari garela, eta edozein proposamena egiten dugula, uste dugu eurei utzi behar zaiela protagonismoa edo, bederen, protagonismoaren parte handi bat. Bestetik, barne aniztasuna asko zaindu behar dela. Zaindu eta islatu, kide guztiak parte sentitu ahal izateko.

Egileek horrela azaltzen dituzte bi ideia hauek (Ó Riagain, Williams eta Vila I Moreno, 2007: 34):

Excessive dependence on official bodies –either the school itself, or other official institutions – may turn young people against the language. In liberal, westernised societies, citizens tend to be zealous of their personal freedom, and suspicious about explicit instructions from the authorities. Especially when addressing young people, language promoters should avoid patronizing or paternalistic positions. It is also good for the language that different social voices are allowed to be heard in that language: heterogeneity is a mark of contemporary societies, and contemporary languages have to reflect internal heterogeneity.

7 ONDORIOAK

Atal honekin amaiera ematen diogu txosten honi. Puntu honetan ez dugu informazio edo ideia berriak mahaigaineratu nahi. Nahiko dokumentu trinkoa dugu, jada, eskuartean. Aldiz, testuan zehar aipatutako hainbat puntu jaso eta azpimarratu nahi ditugu, labur eta zehatz. Hauek "Euskara Kirolkide" egitasmoaren hasierarako zutabe edo oinarri izatea nahiko genuke, proiektuaren dekalogoia edo. Balio dezatela hauek, orrialdeetan zehar esandakoa laburbiltzeko eta datozen urratsen norabidea definitzeko.

1) Gazteekin aritu nahi dugu.

Gazteen jakintza eta agentzia onartu behar dugu, eurak baitira adituak euren esperientziak kontatzen eta aztertzen eta euren hizkuntz bizipenen gainean hausnartzen. Eurengandik gertu egon behar/nahi dugu, ikusi, ikasi, hitz egin eta lankidetzara sustatu.

2) Gazteak gizartearen ispilu dira.

Euskararen egoera hobeto ulertu nahi dugu eta gazteengan jotzeko arrazoi bat hori da, eurak laguntzen digutela gure gizartea hobeto aztertzen eta ezagutzen. Gazteak gizartearen ispilu dira, eta gazteen munduan euskarak dituen gabeziak helduenak ere dira.

3) Euskararen guneak eta hutsuneak.

Gazteak eta euskara bat egiteko tokiak sortu ditugu: familia (hainbat kasuetan) eta eskola. Hauek dira gazteei dagokienez, erabilerarako gune nagusiak, baina, ez (euren) gogokoenak: aisialdia eta horren barruan, kirola, gazte kulturaren funtsezko guneak dira. Euskara gune horietan txertatzen asmatzea dugu erronka.

4) Euskararen arauak ez dira gizarte arauak.

Euskararen arauak ikasten dituzte: gramatika eta literatura. Baina, kalean erabileraren arauak beste batzuk dira. Arau sozialak daude, eta talde presioa. Toki, testuinguru eta egoera askotan gaztelera da gazteen arteko araua. Euskara erabiltzea markatua da eta horri aurrerikoteko, baliabide edo estrategia gutxi dituzte.

5) Praktika-komunitateak, oinarritzko egitura.

Gazteak komunitateen artean murgiltzen dira: praktika komunitate hauetan gazteak batzen dituen helburu bat dago; gazteen arteko harremanak daude; talde agentzia badago. Praktika-komunitatearen nozioa hizkuntzari dimentsio praktikoa eta kolektiboa ematen dizkio, eta oso aproposak dira gazteekin lan egiteko.

6) Hizkuntza sozializazioa, etengabeko ikasketa.

Sozializazioak, hizkuntza-sozializazioa barne, bizitza osoan dirau. Horrek laguntzen digu epe ertain edo luzeari begira jartzen eta ikerketa zein eskuhartzea denbora mantxoago batean kokatzen. Gaurko nerabe eta gazteak biharko helduak dira eta horri ere begiratu behar zaio. Erein aurrerago jasotzeko.

7) Hitzun berriak erdigunera.

Hitzun berriak euskararen berreskurapenaren prozesuak emandako fruitu nagusienetarikoa dira. EAEko gazteei buruz ari garela gehiengoa dira eta, printzipioz, gehiengoa izaten jarraituko dute. Hori dela eta, hitzun hauen profila(k) ondo ezagutu eta aztertu behar dira, ikerketen erdigunera ekarriz.

8) Gazteen mudek sostengu sendoa behar dute.

Hizkuntz jokabideak eta ohiturak aldatzea jarri dugu jomuga azken urteotan. Halere, haur, nerabe, gazteei buruz ari garela, ez da nahikoa ohiturak aldatzea. Ohiturak landu behar dira, baina bestelako baliabideak ere behar dira, hizkuntza aldaketak sostengatuko duen gutxieneko egitura sendo bat.

9) Hizkuntza ideologiak errealitate berrietara egokitu behar dira.

Euskararen biziberritze prozesuak hitzun natiboa jarri zuen erdigunean. Egun hitzun berrien profila nagusitzen ari denean errealitate horretara egokitutako diskurtsoak eta ideologiak garatu behar dira. Hitzun natiboa eta hitzun berriaren dikotomiak auzitan jarri behar dira eta hitzun mota ezberdine arteko elementu amankomunak indartu.

10) Babesguneak helburu.

Aisialdi edota kirol gune batean egiten dena bezain garrantzitsua da nola egiten den, zein baldintzetan, egiteko moduak eta egite horretan garatzen diren harremanak. Horiek denak bilakatzen dute eremu bat babesgunea. Kluba (hizkuntz) babesgune izateko behar dituen baldintzak, egiteko moduak, eta harreman mota definitzera goaz datorren fasean.

Hau da, hain zuzen ere, txosten honi amaiera jartzean abiatuko dugun prozesua.

BIBLIOGRAFIA

- Ahearn, Laura M. 2001. "Language and Agency", *Ann. Rev. Anthropology* 30: 109-137.
- Amonarriz, Kike. 2020. "Berrindartu eta Jauzi", *Topaberri aldizkaria*, 67:23-25
- Aliagas, Cristina. 2017. "Rap music in minority languages in secondary education: A case study of Catalan rap", *International Journal of the Sociology of Language*, 248:197-224.
- Altuna, Jaime, Hernández, Jone M. 2019. "Retos metodológicos en el estudio de las prácticas lingüísticas de jóvenes y adolescentes". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 65-88
- Amorrortu, Estibaliz, Ortega, Ane, and Goirigolzarri, Jone. 2017. "Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 104:11-49.
- Armstrong, Timothy Currie. 2014. "Naturalism and ideological work: how is family language policy renegotiated as both parents and children learn a threatened minority language?" *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 17, 5:570-585.
- Artetxe, Miren. 2020. *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Artetxe, Miren. 2018. "Hiztun berriak eta bertso mundua". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 109: 45-72.
- Berrio-Otxoa, Kotxesi; Martínez, Zesar; Hernández, Jone M. 2003. *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)* Soziologiako Euskal Koadernoak 13. Eusko Jaurlaritza.
- Berrio-Otxoa, Kontxesi, Martínez, Zesar; Hernández, Jone M. 2000. *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bourdieu, Pierre. 1985. *¿Que significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid. Akal.
- Bourdieu, P. 1988. [1979] *La distinción. Criterios y bases sociales del gusto*. Madrid. Taurus.
- Casas, Ferran. 2006. "Infancia y representaciones sociales". *Política y sociedad*, 43, 1: 27-42.
- Costa, James. 2015. "New speakers, new language: on being a legitimate speaker of a minority language in Provence" *International Journal of the Sociology of Language*, 231:127-145.

- Cuenca, Manuel. 2000. "Ocio humanista. Dimensiones y manifestaciones actuales del ocio". *Documentos de Estudios de Ocio*, 16. Deustuko Unibertsitatea.
- Díez, Carmen. 2003. "Deporte, socialización y género". In Medina, Xabier eta Sanchez, Ricardo (eds.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*. Barcelona. Icaria: 159-180.
- Dumazedier, Joffre. 1971. "Realidades del ocio e ideologías" in J. Dumazedier y otros. *Ocio y sociedad de clases*. Barcelona. Fontanella: 9-45.
- Duranti, Alessandro. 2000. *Antropología Lingüística*. Madrid. Cambridge University.
- Eckert, Penelope. 2006. "Communities of Practice" In E. K Brown; R. E Asher; J. M. Ys Simpson (eds.) *Encyclopedia of language and linguistics, Volume 2* edited. Amsterdam and Oxford. Elsevier: 683-685
- Eckert, Penelope. 2003. "Language and Gender in Adolescence". In J. Holmes; M. Meyerhoff (eds.) *The Handbook of Language and Gender*. Oxford. Blackwell: 381-400.
- Eckert, Penelope, and McConnell-Ginet, Sally. 2013. *Language and Gender*. Cambridge. Cambridge University Press.
- Eckert, Penelope, and McConnell-Ginet, Sally. 1992. "Think practically and look locally: Language and gender as community-based practice" *Annual review of anthropology*, 21(1): 461-488.
- Euskal Herriko Unibertsitatea. 2018. "Euskararen III. Plan Gidaria 2018-2022". Eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/plan-gidaria-2018-2022>.
- Euskararen Aholku Batzordea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2016. *Gu gazteok*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza. 2018. *EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2015) Arrue proiektua*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. 2017. *Euskadiko Gazteak 2016*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Feixa, Carles. 2003. "Un antropólogo en el fútbol" In Medina, F. X.; Sanchez, R. (eds.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*. Barcelona. Icaria: 73-102.
- Feixa, Carles. 2011. "Juventud, espacio propio y cultura digital". *Revista austral de ciencias sociales*, 20:105-120.
- Fernandez, Irantzu. 2016, *Nerabezarako maitasun bizipenen etnografia: Harremanen antolaketa, gorputz-lana eta heteroaraua Bilboko gaztetxoan artean*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Fernández San Martín, Jon. 2019. "Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 113: 41-85.

Ferrada, Juan Sebastián; Bucholtz, Mary; Corella, Meghan. 2020. " `Respetá mi idioma´: Latinx Youth Enacting Affective Agency". *Journal of Language, Identity & Education* Vol. 19, num. 2: 79-94.

García Canclini, N., Cruces, F., Urteaga, M. 2012. *Jóvenes, culturas urbanas y redes digitales*. Madrid. Ariel.

García, María del Carmen; Fernández Muñoz, Cristóbal (Koord.). 2016. *Si lo vives, lo compartes. Cómo se comunican los jóvenes en un mundo digital*. Barcelona. Ariel.

Gazteen Euskal Behatokia. 2019. "Euskadiko gazteak eta sare sozialak". Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/albisteak/2019/gazteen-euskal-behatokiak-euskadiko-gazteak-eta-sare-sozialak-izeneko-txostena-aurrezten-du/>

Goirigolzarri, Jone; Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane. 2019. "Activación lingüística de jóvenes hablantes de euskara en la universidad". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 165-183.

Goodwin, Charles. 2004. "A Competent Speaker Who Can't Speak: The Social Life of Aphasia" *Journal of Linguistic Anthropology*, 14(2): 151-170.

Guilló Arakistain, Miren. 2020. "Hilerokoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak". Doktorego- tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gutierrez, Kris. 2008. "Developing a Sociocritical Literacy in the Third Space". *Reading Research Quarterly*, 43: 148-164.

Hernández García, Jone M. 2020. "(Gure) Hiztun Gazte Digitalak" txostena. Gazteen unibertsoa. Euskararen Aholku Batzordearen enkarguz egin. Argitaratu gabe.

Hernández García, Jone M. 2010. "Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur", *Euskara* 55,2:579-607.

Hernández, Jone M. 2008. "Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 69: 27-42.

Hernández García, Jone M.; Altuna Ramirez, Jaime; Beitia, Iñigo. 2018. "D ereduko kirola. Ikerketaren txostena 2017-2018". Argitaratu gabe.

Hernández García, Jone .M.; Altuna Ramirez, Jaime. 2017. "Gazteak euskararen jolastokian» in J. Goirigolzarri Garaizar; X. Landabidea Urresti; I. Manterola Garate (eds.) *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*". Bilbo. Uda Euskal Unibertsitatea (UEU): 53-70.

Hernández García, Jone M. 2016. "Jarrera eta motibazio kontzeptuez haratago... Hizkuntzakultura, praktikak eta emozioak". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 99: 179-195.

Hernández García, Jone M.; Altuna Ramirez, Jaime. 2016. "D ereduko kirola. 2016ko ikerketaren txostena". Argitaratu gabe.

Hernández García, Jone M.; Martínez de Luna Pérez de Arriba, Iñaki; Olaso Garitano, Olatz. 2006. "Theoretical, Social and Political Discourses on the Basque Language". In M.J. Azurmendi; I. Martínez de Luna (eds.) *The Case of the Basque: Past, Present and Future*. Andoain. Soziolinguistika Klusterra: 103-116.

Holmes, Janet; Meyerhoff, Miriam. 1999. "The Community of Practice: Theories and methodologies in language and gender research". *Language in Society* 28: 173-183.

Hornsby, Michael. 2015. "The "new" and "traditional" speaker dichotomy: bridging the gap" *International Journal of the Sociology of Language* 231:107-125.

Irazu, Alberto. 2017. *Rocka Puntua!* Iruñea. Pamiela.

Jaffe, Alexandra. 2015. "Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner trajectories" *International Journal of the Sociology of Language* 231:21-44.

Järlehed, Johan. 2008. "Euskaraz. Lengua e identidad en los textos multimodales de promoción del euskara, 1970-2001". Doktorego-tesia. Göteborgs universitet/University of Gothenburg

Joly, Lionel; Uranga, Belen. 2010. "Hizkuntza-ideologia eta hizkuntza-jarrerak" In A. Zarraga. *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain. Eusko Jaurlaritz. Soziolinguistika Klusterra: 185-228.

Kasares, Paula. 2014. *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbao. Euskaltzaindia.

Kulturaren Euskal Behatokia. 2012. "Gazteen Kultura Kontsumoa". Eskuragarri: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_gazt_kultu_r_kontsumo/eu_def/adjuntos/gazteen_kultura_kontsumoa_2012.pdf

Lave, Jean, and Wenger, Etienne. 1991. *Situated Learning. Legitimate Peripheral Participation*. Cambridge. Cambridge University Press.

Legorburu, Onintza. 2020. "Euskaigintzaren bilakaera historikoa: topo egin al du noizbait feminismoarekin?". HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondokoa (2019-2020).

MacDougall, David. 2005. *Film, ethnography, and the senses. The corporeal image*. Princeton. Princeton University Press.

MacDougall, D., 1998, *Transcultural cinema*. Princeton, New Jersey. Princeton University Press.

Medina, Xabier; Sanchez, Ricardo. 2003. "Hacia una antropología del deporte en España" Medina, F. X.; Sanchez, R. (eds.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*. Barcelona. Icaria.

Moralejo, Rubén; Ramallo, Fernando. 2019. "Las condiciones del (pre)neofalantismo y el proceso de conversión lingüística en Galicia". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 165-183.

Mosquera, Estefanía. 2019. "Travestismo lingüístico: una experiencia sociológica y didáctica sobre ideologías, obstáculos y persistencia en neofalantes de gallego". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 131-145.

Muñagorri Garmendia, Lander. 2019. "Zergatik kantatu euskaraz". HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondokoa (2018-2019).

Nogués-Pedregal. 2009. "La relación entre antropología y ocio ¿es un planteamiento ocioso?". In M. Latiesa Rodríguez; M. García Ferrando; A. Antón Álvarez Sousa (coord.) *Sociología del ocio y del turismo: tipos, planificación y desarrollo*. Granada. Universidad de Granada: 310-319.

Ó Duibhir, Pádraig & Thuairisg, Laoise Ní. 2019. "Young immersion learners' language use outside the classroom in a minority language context". *AILA Review* Volume 32: 112-137.

Ó Murchadha, Noel P.; Hornsby, Michael; Smith-Chistmas, Cassie; Moriartyk, Máiread. 2018. *New Speakers of Minority Languages*. London. Palgrave; MacMillan.

Ó Riagain, Pádraig; Williams, Glyn; Vila I Moreno, F. Xabier. 2007. *Young People and Minority Languages: Language use outside the classroom*. Dublin. Centre for Language and Communication Studies Trinity College.

O'Rourke, Bernadette, and Walsh, John. 2020. *New Speakers of Irish in the Global Context: New Revival?*. New York: Routledge.

O'Rourke, Bernadette; Nandi, Anik. 2019. "New speaker parents as grassroots policy makers in contemporary Galicia: ideologies, management and practices". *Language Policy* 18:493-511.

O'Rourke, Bernadette; Pujolar, Joan. 2019. *From New Speaker to Speaker: Outcomes, reflections and policy recommendations from COST Action IS1306 on New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges*. IAITH: Welsh Centre for Language Planning.

O'Rourke, Bernadette; Pujolar, Joan; Ramallo, Fernando. 2015. "New speakers of minority languages: the challenging opportunity – Foreword" *International Journal of the Sociology of Language* 231:1-20.

Ortega, Ane; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jacqueline. 2016. *Los nuevos hablantes de euskera: experiencias, actitudes e identidades*. Bilbao. Universidad de Deusto.

Ortega, Ane; Urla, Jacqueline; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone; Uranga, Belen. 2015. "Linguistic identity among new speakers of Basque" *International Journal of the Sociology of Language* 231:85-105.

Ortega, Ane; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jacqueline; Uranga, Belen. 2014. "Nuevos hablantes de euskara". *Digithum* 16: 86-97.

Padín, Paulo. 2019. "Neofalantes online". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 147-163.

Patiño-Santos, Adriana. 2019. "When language mixing is the norm: documenting post-muda language choice in a state school in Barcelona" *International Journal of the Sociology of Language*, 257: 109-135.

Puigdevall, Maite; Colombo, Alba; Pujolar, Joan. 2019. "Espacios de adopción del catalán, una aproximación etnográfica a las mudas lingüísticas en Cataluña". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) *Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español*. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 111-129.

Puigdevall, Maite; Walsh, John; Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane. 2018. "‘I’ll be one of them’: Linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts". *Journal of Multilingual and Multicultural development* Vol.39, Issue 5: 445-457.

Pujolar, Joan. 2019. "Linguistic mudes: An exploration over the linguistic constitution of subjects". *International Journal of the Sociology of Language*, 257: 165-189.

Pujolar, Joan; Maite Puigdevall. 2015. "Linguistic mudes: How to become a new speaker in Catalonia." *International Journal of the Sociology of Language* 231: 167-187.

Pujolar, Joan; Gonzalez, Isaac; Martínez, Roger. 2010. "Les mudes lingüístiques dels joves catalans". *Llengua i ús* 48: 65-75.

Pujolar, Joan. 2007. "Gènere i bilingüisme: connectant experiències i teories" In J. Santaemilia; P. Bou; S. Maruenda; G. Zaragoza (eds.) *International Perspectives on Gender and Language*, 3-30. Valencia. Universidad de Valencia: 3-30.

Ramallo, Fernando. 2018. "A Galicia neofalante" *A trabe de Ouro* 109: 11-22

Rosaldo, M.Z., 1982, «The Things We Do with Words: Ilongot Speech Acts and Speech Act Theory in Philosophy», *Language in Society* 11, 2: 203-237.

Ruiz, Jorge. 2012. "El grupo triangular. Reflexiones metodológicas en torno a dos experiencias de investigación" *Empiria: Revista de metodología de ciencias sociales*, 24:141-162.

Silverstein, Michael. 1996. "Monoglot "Standard" in America: Standardization and Metaphors of Linguistic Hegemony". In D. Brenneis; R. Macaulay (eds.) *The Matrix of Language*. Boulder. CO. Westview Press: 284-306.

Snyder-Frey, Alicia. 2013. "He kuleana ko kakov: Hawaiian-language learners and the construction of (alter)native identities". *Current Issues in Language Planing*, 14:2; 231-243.

Soziolinguistika Klusterra. 2020. "Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia". Argitaratu gabeko txostena.

Sung-Yul Park, Joseph. 2010. "Naturalization of Competence and the Neoliberal Subject: Success Stories of English Language Learning in the Korean Conservative Press. *Journal of Linguistic Anthropology*, 20, issue 1: 22-38.

Unsain, Joxan. 2011. *12-16 urte bitarteko nerabeen kirol-jarduera fisikoak. Lasarte Oria, 2009-2010*. Doktorego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Urla, Jacqueline; Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane; Goirigolzarri, Jone. 2017. "Basque standardization and the new speaker: Political praxis and the shifting dynamics of authority and value". In P. Lane; J. Costa; H. De Korne (eds.) *Standardizing Minority Languages* edited by. New York. Routledge: 24-46.

Urla, Jacqueline; Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane; Goirigolzarri, Jone. 2016. "Authenticity and Linguistic Variety Among New Speakers of Basque". *Language Documentation & Conservation Special Publication* No. 9: 1-12.

Urla, Jacqueline. 1999. "Basque Language Revival and Popular Culture". In W.A. Douglass; C. Urza; L. White; J. Zulaika (eds.). *Basque Cultural Studies*. Reno: Basque Studies Program. University of Nevada: 44-61.

Urla, Jacqueline. 1988. "Ethnic Protest and Social Planning: A Look at Basque Language Revival". *Cultural Anthropology*, Vol. 3, Num. 4: 379-394.

Wacquant, Löic. 2006. *Entre las cuerdas-Cuadernos de un aprendiz de boxeador*. Buenos Aires. Siglo Veintiuno Editores.

Wearing, B., & Wearing, S. (1988). "All in a day's leisure": Gender and the concept of leisure". *Leisure Studies*, 7(2): 111-123.

Wei, Li; Chao-Jung, Wu. 2009. "Polite Chinese children revisited: creativity and the use of codeswitching in the Chinese complementary school classroom". *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 12:2; 193-211.

Wenger, E. 1998. *Communities of Practice: learning, meaning and indentity*. Cambridge: Cambridge University Press.

Woolard, Kathryn. 2016. *Singular and Plural: Ideologies of Linguistic Authority in 21st Century Catalonia*. Oxford: Oxford University Press.

Woolard, Kathryn; Schieffelin, Bambi B. 1994. "Language Ideology". *Annual Review of Anthropology*. Vol. 23; 55-82.

Zalbide, Mikel. 2019. "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 110: 11-78.